

Goienkaria

2007ko azaroaren 30a > Egubakoitza > VII. urtea > 311. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

G2a

GOIENKARIAko komikigileekin berriketan > 43-44

LAPURRETAK Eraikitzen diharduten etxeetatik 50 galdera lapurtu dituzte > 05

ARETXABAleta Herriko Plazaren itxura erabat aldatuko dute datorren urtean > 31

ESKORIATZA Kontratazioetan irregularitasunak egin diren susmoa du Udalak > 34

"Norbaitek uste duenean bizitzaren zentroa dela, bizitzak irentsi egin dezake"

Juan Izuzkiza
Juan Zelaia sariaren irabazlea > 09



EUSKARA > EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Euskararekiko motibazioa Euskararen Eguneo ardatz

ABENDUAK 3 Astelehena da Euskararen Nazioarteko Eguna; hala ere, ospakizun ekitaldiak aste bukaeran hasiko dira

EKIMEN UGARI Bailarako ia herri guztietan antolatu dituzte ekimenak eta nagusiak Bergaran eta Arrasaten izango dira

DEBAGUNE Ibarreko euskara elkarteen bilguneak 'Ez zoratu, euskarari ebatu' leloa aukeratu du aurtengo egunerako > 02-03

MARKEL OLANO > BISITALDIA

Diputatua Antzuolan egon da

Diputatu nagusi Markel Olanok eta Pedro Iturbe alkateak elkarlanerako bidea sendotu dute > 15

Bergarako araztegia 2008. urte hasieran hasiko da ur zikinak garbitzen

Ibarreko saneamendu lanean aurrerapauso garrantzi-tsuak ematen dihardute. Bergarako Mekolalde auzoko araztegia aurten amaituko dute eta 2008. urte hasieran jarriko dute martxan. Bergara, Antzuola eta Elgetako urak jasoko dituzte araztegi horretan, eta behin garbitu ondoren, Deba ibaira isuriko dituzte. Debagoieneko saneamendu lan guztiak 2011rako amaituko dituzte, Epeleko araztegia lanean hasi eta gero. Debagoienak 130.000 bizilaguneko eremuari dagozkion ur zikinak arazteko gaitasuna izango du. > 04



MEKOLALDEKO ARAZTEGIA 2005. urtean hasi zen Jaurlaritza araztegi hori eraikitzen eta 11,5 milioi euroko aurrekontua izan du.

JASONE ZABALA

AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-08
- Elkarritzeta > 09
- Iritzia > 10-11
- Gutunak > 12
- Herriak > 15-39
- Kirola > 40-42
- Kultura > 45
- Sailkatuak > 46
- Eskelak > 47
- Denbora-pasa > 48
- Gazteak > 50
- Komunikazioa > 51
- Telebista-Irratia > 52
- Non-zer > 54-55

M
MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 298

ARETXABAleta TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

SEIN
grupostaldea

Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran



SUPER AMARA



DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkaleku

EUSKARA > EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Euskarari bultzada emateko ekimen ugari egingo dira asteluhenean

IBARREAN Leintz Gatzagan izan ezik, Debagoieneko gainontzeko herrietan izango dira ekitaldiak, euskalgintzak, gaztetxeek eta ikastetxeek antolatuta

MIRIAN BITERI > BERGARA

Datorren asteluhenean, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna da. Hala, debagoiendaren artean euskararekiko motibazioa eta sentiberatzea bultzatzeko asmoz, ekimen ugari izango dira datozen egunotan ibarrean. Gehienak asteluhenean izango dira.

Bada, Arrasaten zapatura aurreratua da ekitaldien hasiera. Hala, grafiti erakustaldia izango da Herriko Plazan, 17:00etan. Euskalgintzaren erakusketa ikusi eta liburu batean euskararen gai-koek ekarpenak ere jarri ahal izango dituzte plaza joaten direnek. Gaztaina erre eta musikarik ez da faltako. Ondoren, 18:30ean, ekitaldia egingo dute euskalgintzako partaideek.

Astelehenerako, berriz, triki-poteoa antolatu dute Zahar Berrikoek. Portaloiaren bilduko dira 18:30ean. AEDren txokoan amaituko dute, merienda eginda.

BERGARAN, ENPRESEI OMENALDIA Bergarako Berba taldeak ere egitarau zabala antolatu du asteluhenerako, *Pausoz pauso... normalkuntzaruntzleopean*. Bestetako beste, euskara planak abian jarri dituzten herriko sei enprese omenduko ditu. Hain zuzen,

Arcelor, Soraluce, GKN-Lazpiur, FIT Automocion eta Geyser Gas-tech. Aroztegi aretoan izango da ekitaldia, 19:00etan.

Urtero arlo ezberdinak jorratzen ditu Bergarako Euskaltzaileen Bilguneak. Aurten enpresa aukeratu du. Hala, enpresa horien lana txalatu eta beste batzuei bide berria jarraitzeko gonbita egingo die Berbak. Omenaldia gain, Berga-

rako euskararen egoera ere aztertuko dute. Ekitaldia hasi aurretik, umeendako jolasak izango dira Munibe plazan, 17:30ean.

ONATIN, IKASTETXEETAN

Oñatin ikastetxeetan baino ez dira ekimenak antolatu. Txantxiku ikastola eta Errekaldeko Haur Hezkuntzako umeek eskulanak egingo dituzte asteluhenean.

EKIMENAK DEBAGOIENEAN

> ARRASATEN

Ekimen ugari izango dira bihar, zapatau, Herriko Plazan. Grafiti erakustaldia, euskalgintzaren erakusketa, gaztaina erreak eta txalapartariak izango dira, besteari beste, 17:00etan hasita. Euskalgintzako partaideek egindako ekitaldi batekin amaituko da.

Astelehenean, Euskararen Egunean, triki-poteoa egingo dute Zahar Berrikoek. Merienda egongo da ondoren AEDren txokoan.

> BERGARA

Bergaran haurrendako jolasak izango dira asteluhenean, 17:30ean, Munibe plazan. Aroztegi aretoak, bestalde, ekitaldi nagusia hartuko du 19:00etan. Euskara planak martxan jarri dituzten herriko sei enpresa omenduko ditu Berbak, Bergarako Euskaltzaileen Bilguneak.

> ONATI

Txantxiku ikastolak eta Errekalde Herri Eskolak Euskararen Eguna ospatuko dute asteluhenean. Hainbat ekimen izango dira. Txikienek eskulanak egingo dituzte eta herri kirolak eta musika ez dira faltako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleendako.

> ARETXABAleta

Kantu-poteoa egingo dute asteluhenean, 19:30ean. Herriko Plazan egin dute hitzordua.

> ESKORIATZA

Astelehen goizetik soka bat jarriko dute Herriko Plazan, euskararen gaineko ekarpenak eskegi ahal izateko. Arratsaldean lan bilera egongo da 18:00etan, eta ondoren gaztaina erreak jango dituzte.

> ANTZUOLA

Domekan egingo dituzte Antzuolan ekimenak. Zurrategin dago jarrita hitzordua, 18:00etan. Taloak eta pintxoak izango dira, zuzeneko musikarekin alaituta.

> ARAMAIO

Hiru egun iraungo dute San Martin eeskolak antolatutako ekimenak. Astelehenean kontakizunak nagusituko dira eta martitzenean berba jolasak eta jaialdia.

Eguaztenean Euskal zaletasunaren eguna izango da. Magic Klown antzerki taldearen ikuskizuna izango da 18:00etan.

> ELGETA

Gaztetxeek euskararen gaineko leloa duen pankarta jarriko dute udaletxeko balkoian asteluhenean.

Besteak beste, Txantxikuko Lehen Hezkuntzako ikasleek hizki jolasaren bidez aurtengo leloa asmatuko dute. Arratsalde parteak, ikastolako Ttak ikasleen euskara taldeak antolatuta, jaialdia egingo dute gaztelekuaren. Berrotxo paper lehiaketako sari emanatza, bideoak eta musika emanaldia izango dira. Errekaldekoek, berriz, herri kirolak eta ikasle-

ek prestatutako bertso saioa eskainiko dute Zuazola institutu aurrean.

ARETXABALETAN, KANTU-POTEOA

Loramendi euskara elkartea, Udal Euskaltegiak eta Berriketan-ek ere kantu-poteoa antolatu dute Aretxabaletan. Herriko Plazan bilduko dira, 19:30ean, eta poteoan hasi aurretik, euskal-



EUSKARAREN EGUNA ARRASATEN Umeak eta nagusiak ederto ibili ziren joan den urteko Euska

AIPAGARRIAK

Euskalgintza eratu gura da Eskoriatzan

Eskoriatzan lan bilera egingo dute asteluhenerako arratsaldean. Horren asmoa euskalgintza eta kulturgintza azpibatzordea martxan jartzear izango da.

Horretarako, herriko zenbait lagun gonbidatu dituzte, eta euskararekiko sentsibilitatea duen edonori eta eskaintzeko zerbaite duenari irekita dago. Lan bilerari 18:30ean emango zaio hasiera, Eskoriatzako kultura etxean.

Boligrafoak emango ditu Debagunek

Aurreko urteetan bezala, Debaguneak boligrafoak banatuko ditu berriro ere Euskararen Egunean. 3.000 bat oparituko dituzte Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Bergarako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean.

Aurtengo egunerako aukeratutako leloa *Ez zoratu, euskarari ebatu* da. Hirugarren aldia da horrelako ekimen bat antolatzen duena Debagunek.

Ikastetxeetan ez dira ekimenak faltako

Elgeta eta Antzuolako ikastetxeetan izan ezik, ibarreko gainontzeko ikastetxeetan ekitaldiak izango dira asteluhenean, Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta.

Denetarik egongo da. Euskal jolasak eta ipuin kontalariak egongo dira batzuetan; musika eta dantzak ere bai; eta beste batzuetan, berriz, eskulanak egingo dituzte ikasleek. Txokole-janak eta gaztaina erreak ez dira faltako.

AEDk 25 urte egingo ditu datorren urtean

Arrasateko Euskaldun Dezagun elkartek zilarrezko ezteiak egingo ditu datorren urtean. 1983an, Arrasaten euskararen erabilera txikia zela ikusita, euskaldunon beharrak asetzeko sortu zen.

Hasieran euskararen egoerari buruzko ikuspegia lantza adostu zen, egoera zein zen jakiteko. Gaur egun lau lan-ildo nagusitan lanean dihardu: kultura, sentsibilizazioa, gazteak eta euskaldun berriak.

Euskararen Legeak 25 urte bete ditu

1982. urteko azaroaren 24an Euskararen Erabilerarako eta Normalizorako Legea onartu zuen Legebiltzarra. Hainbat arlotan aurrerapausoak emateko balio izan duela onartu dute euskalgintzako eragileek. Bada, oraindik egiteko asko geratzen dela gaineratu dute. Bestalde, Euskadi Irratiaren urteurrena ere izan zen hilaren 23an. Mende laurdena bete du honek ere.

tzaleen argazkia atera eta atxiki-mendu mezua irakurriko dute. Kantu-poteoa irauten duen bitar-tean, liburuxkak banatuko dituzte. Udaletxe zaharreko atarian emango diote amaiera ekitaldia-ri, txistorra janez eta azken kan-tuak abestuz.

ESKORIATZAN, LAN BILERA

Eskoriatzan, bestalde, soka bat jarriko dute Herriko Plazan, euskaren gaineko ekarpenak eske-gitzeko. 09:30etik aurrera jarri ahal izango dira. Arratsalde par-tean, berriz, lan bilera egingo dute kultura etxean, euskalgintza eta kulturgintza azpibatzordea eratze-ko asmoz. 18:00etan emango zai o-hasiera. Ordubete geroago, gaztai-na erreak jateko aukera egongo da Inkernu tabernan.

ANTZUOLA ETA ELGETA

Antzuolan Euskara batzordeak eskutitz bat bidaliko die herriko tabernei, egun horretan euskal musika eta euskarazko hedabide-ak jar ditzaten eskatzen. Gazte-xean ere bat egingo dute Euska-ren Egunarekin. Eta domeka

arratsalderako egin dute hitzor-dua Zurrategin: taloak eta txis-torra pintxoak salduko dituzte. Arrieta anai-arrebak giroa alai-tzeaz arduratuko dira.

Elgetako gaztetxeak, bestal-de, pankarta bat egiteaz ardu-ruatuko dira. Astelehenean udaletxe-ko balkoian jarriko dute pankar-ta hori.


ARAMAION, SAN MARTIN ESKOLA

Ibarreko herri gehienetan astelehenean izango dira ospakizunak, baina Aramaion hiru egun iraungo dute. Euskaren Egunean kontakizunak prestatu eta konta-tu beharko dituzte ikasleek. Eta arratsaldean ipuin kontalaria izango da liburutegian. Martitze-nean berba jolasak eta jaialdia izango dira eta eguaztenean, berriz, euskal zaletasunaren eguna izango da. Egun horretan, euskaraz berba egiteko elkarri animuak eman diezazkien zenbait ekimen izango dira. Antzerkiaren amaituko da guztia.

Leintz Gatzagan, azkenik, ez dute ezer berezirik egiteko asmo-rik astelehenean.



GOIENKARIA



Geyser Gasteche Euskara batzordeko koordinatzaile Koldo Guridi, bulegoan.

Koldo Guridi > Geyser Gasteche Euskara batzordeko koordinatzailea

"Euskara guzti patrimonioa da eta gure betebeharra da euskaren alde lan egitea"

M.B. > BERGARA

Bergarako Geyser Gastech enpresaren lana txalotuko du datorren astelehenean Bergarako Berbak. Euskara planarekin denbora luzeen daran-en enpresa da. Hango Euskara batzordeko koordinatzaile Koldo Guridi-kin izan gara.

Noiz jarri zen abian euskara plana Geyser Gastech enpresan?

2002ko urtarrilean erabakia har-tu zen, eta 2002ko uztailera euskara planaren diseinua egin genuen. Gaur egun planaren implementazio-rekin gabilta eta ordutik hona, bigarren plan estrategikoan murgilduta gaude. Bestalde, urtero egiten ditugun ekintzak sailkatzenko gestio plana egiten dugu, eta hura enpresako sail guztietara zabaltzen da. Beraz, esan dezakegu euskara plana enpre-sako egituraren egiteaz gain enpre-sako sail guztietara zabaltzen dela.

Zer dela-eta euskara plana martxan jartzea?

Enpresan kontzientzia eta impli-kazioa bultzatzen dugu arlo soziario-aren bidez, eta euskalduntze plana

horietako bat da. Horrez gain, euskara guzti patrimonioa da eta gure bete-beharra da euskaren alde lan egitea. Arrazoi hauek bultzatuta hasi ginuen.

Horrelako planak beharrezkoak dire-la iruditzen al zaizu?

Bai. Premiazko da, gainera, euskal-duntze planak langile guztien iritzia-rekin egitea, euskaren erabilera handiagotzeko, hizkuntza normalizatu eta enpresaren hizkuntza erreala bilakatzeko.

Nola eragiten die plan horrek enpre-sako langileei?

Lana euskaraz egiteko aukera ematen zaie, antolatzen diren ekin-tzetan parte hartzen. Hitz baten esan-da, aukerak ematen zaizkie nahi duten hizkuntzan lan egiteko.

Eta zuzendaritzari?

Eragin nabarmena dauka plan estrategiko eta gestio planeko eraba-ki eta akordioak bultzatzat, partida ekono-mikoak definituz eta euskaren inguruaren egunerokotasunean eredu-gari izanez, bakoitzaren lanean, biler-tan eta hitzaldi informatiboetan,

etab. Azken finean, guzti patrimonioa parte-har-tea bilatzen dugu; izan ere, denok dugu zer esana eta zer egina. Horren-bestez, maila desberdinatzen bada ere, ahalik eta jende gehienak parte hartzea nahi dugu.

Nola hartu duzue enpresaren jarre-txa lotua izango den berria?

Oso ondo. Tankera honetako erre-konozimenduak beti etortzen dira ondo. Lan mota hauek kasu askotan bihotzetzik egiten dira, eta aparteko poza ematen dute. Bestalde, oraindik eta poz handiagoa ematen du ikustek Bergaran azkeneko urtean enpre-sa gehiago murgildu eta inplikatu direla euskalduntze prozesuan.

Bada, oraindik asko geratzen dira pro-zesu horretan sartzeke. Zer esango zenieke horiei?

Euskara guztiona dela eta orain artean iraun badu, hemendik aurre-ra ere gure nortasunaren ikur izateko ahalegina egin behar dugula eta enpresek ere horretan badutela zer esana. Beraz, egingo nieke gonbitea eta esan, denon artean indarrak batu-ta egin behar dugula aurrera.

GERLARI HANDIA

Testua: Pello Anorga

Marrazkiak: Jokin Mitxelena

-5/7 urtekoentzat-

[...] beti gerla guztiak irabazten zituen Gerlari Handia. Ezpata zorrotza atera eta oihukatu zuen: "Barrabilariak baldin badau-kak, azal hadi nire ondora!" [...] Zer gertatuko den jakin nahi baduzu, eskuatu Ollentzerori liburua.

Pello Anorga
Jokin Mitxelena

Cerlari Handia

PAMIOLA
argazkidea

SSANGYONG KYRON 4x4 BERRIA

Mercedes-Benz Motorrarekin:
200 Xdi 141 ZP
270 Xdi 165 ZP



27.900 €-tik
aurrera



SSANGYONG

VERTIZ MOTOR

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99

SANEAMENDUA > DEBAGOIENEKO ARAZTEGIAK

Mekolaldeko araztegia 2008. urte hasieran jarriko dute martxan

Araztegia jardun normalean lanean hasterako sei eta hamabi hilabete bitartean pasatuko dira

Ibarreko saneamendu lanak 2011n bukatuko dituzte, Epeleko araztegia martxan jarritakoan

AINTZANE IRIZAR > BERGARA
Ibarreko saneamendu lanetan aurrerapauso garrantzitsuak ematen dihardute. Bergarako araztegia, Mekolalde auzoan, aurteno partean amaituko dute eta 2008. urte hasieran jarriko dute martxan. Eusko Jaurlaritzako arduradunek azaldu dutenez, baina, sei eta hamabi hilabete bitarteko denbora beharko dute araztegi hori jardun normalean lanean hasteko. Izan ere, araztegi bat bukatu eta hilabete batzuetan hainbat egokitzapen egiten joan behar izaten dute, sortzen diren beharraren arabera.

Bergara, Antzuola eta Elgetako urak jasoko dituzte Mekolaldeko araztegian, eta behin arazu edo garbitu ondoren, Deba ibaira isuriko dituzte.

Elgetan araztegi txiki bat egitea ere aztertu du Eusko Jaurlaritzak, baina, azkenean, alde batera laga dute aukera hori. Mekolalderaino kolektoreoa eramatea lan komplexua izango da; horregatik aztertu zuten araztegia herrian bertan egiteko aukera.

Mekolaldeko araztegiak 11,5 milioi euroko aurrekontua izan du eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak finantzatu du. Presa eta Amenabarrek osatutako aldi baterako enpresa elkarrekin eraiki du. 2005. urtean hasi zituzten lanak eta bi urte pasa behar izan dituzte lanok amaitzeko.

EPELEKO, 2010ERAKO
Epeleko araztegia, bestalde, 2010. urterako amaituko dute eta 2011n martxan jartzear espero dute. Aurtengo otsailean hasi dira lanekin. 32 milioi euroko aurrekontua dute Epeleko araztegiaren lanek. Espainiako Gobernuari dagokio Epeleko eraikiztea, Ingurumen Ministerioari, hain zuen ere, Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoaren eskuak; izan ere, interes orokorreko proiektu izendatu zuen Madrilek Epeleko araztegia.

Aurrekontua, Mekolaldekoarekin alderatuta, oso handia da, Epeleko proiektua askoz kompletxuagoa delako. Izan ere, proiektu horretan sartzen da Zubillagatik araztegiraino egingo duten tunela ere. Hain zuen ere, kolektorearentako tunel hori 1,4 kilometro luze izango da.

Epeleko araztegira Eskoria-tza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñati ur zikinak iritsiko dira. Debagoieneko saneamendu lan guztiak Epeleko araztegia martxan jartzenten dutenean amaituko dira.

DEBA IBARRA

Gipuzkoako ibairik kutsatuena geroago eta garbiago dago

Debabarrenean gurean baino aurreratuago daude saneamenduari dagokionez. Dagoeneko martxan daude hiru araztegi: Mutrikuko, Debakoa eta Elgoibarkoa.

Eusko Jaurlaritzako iturrien arabera, dagoeneko igarri egiten da uraren kalitatearen hobekunta Deba ibaiaren. Dena dela, ibaiak guztiz berreskuratzeko urteak pasatu beharko dira; izan ere, urpean, hondoan, hondakin asko dago geratuta eta hori, berez, naturaren eraginez garbitu behar da. Epe Iruzako helburua da. Gainera, faunaren bizi iraupena ziurtatzeko ur-ertz naturalak eta babespeak ere berreskuratu beharko dira. Denbora luzea eramatzen du horrek, naturalki lortu behar delako. Garbiago badago, behintzat, gure ibaia.

ERAUNKUNDEEN ARTEKO AKORDIOA

Aurreko astean bertan, erakundeen arteko akordioa sinatu zuten, urari dagozkion hainbat azpiegituraren lanak finantzatzeko. Akordio hori Eusko Jaurlaritzak, Diputazioak, Gipuzkoako Ur Partzuergoak eta Añarbe eta Txingudiko mankomunitateek sinatu zuten. Hain zuzen, 2003an sinatu zuten beste baten jarraipena da. Orduko hartan, 2.000 biztanletik gorako herri eta hirien saneamenduaren gaineko akordioa sinatu zuten.

Oraingo akordioak 101 milioi euroko inbertsioak egiteko aukera emango du, 32 proiektutan. Horietatik bi gure ibarrekoak dira: batetik, Antzuolako kolektorearen lanak egiteko bi milioi eta erdiko aurrekontua aurrez ikusten dute. Ariztiberri baserríaren ingurutik Bergararainoko kolektoreara egin behar dute. Elgetako kolektoreko lanetan, bestalde, hiru milioi euro inbertituko dituzte.


Antzuola zein Elgetako kasuetan, lanen kostuaren %75 Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak hartuko du bere gain; gainerakoa, bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak.

130.000 BIZTANLE

Epele eta Mekolaldeko araztegiak amaituta daudenean, 130.000 bizilaguneko eremuari dagozkion ur zikinak arazteko gaitasuna izango du Debagoienak. Mekolaldekoak 40.000 biztanleko eremu baten urak arazteko gaitasuna izango du eta Epelekoak 90.000 biztanleko eremuarena. Debagoienak 63.000 bat biztanle ditu. Baino industriatik, komertzioetako eta toki publikoetako urak ere jasoko dituzte eta horiek ere gehitu behar zaizkie. Hiri eta industria hondakinak garbitzeko diseinatuta daude araztegiak.



Mekolaldeko araztegiko lanak, bukatzean.



Arizmendi Kooperatiba Elkartea Batzar Nagusirako deialdia

Arizmendi Kooperatiba Elkarteko Estatutu Sozialetako 30. artikuluak dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak 2007ko urriaren 25ean egoitza sozialean egindako bileran adostu du Arizmendi Kooperatiba Elkarteko bazkide guztiak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

DEIALDIA

EGUNA: 2007ko abenduaren 13a.
LEKUA: San Viator Txiki guneko aretoa.
ORDUA: Lehen deialdia: 18:15.
Bigarren deialdia: 18:30.

GAI-ZERRENDA

LEHENA.- Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespen-txostenaren irakurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkideren izendapena.

BIGARRENA.- 2006-2007 ekitaldiko sozietate-kudeaketa aztertzea eta, hala balegokio, Urteko Kontuak (Balantza, Galera eta Irabazien Kontua eta Txostena), baita kudeaketa-txostenaren onartzea.

HIRUGARRENA.- 2006-07 ekitaldiko emaitzen banaketa.

LAUGARRENA.- 2007-2008 ekitaldirako aurrekontuaren aurkezpena.

BOSGARRENA.- Estatutu Sozialen 26. artikuluen aldaketa eta berregindako testuaren onarpena1.

SEIGARRENA.- Organo Sozialen Berriztapena: Kontseilu Soziala.

ZAZPIGARRENA.- Kontseilu Errektorea ahalduntzea.

ZORTZIGARRENA.- Galde-erantzunak.

Mercedes Iñarra Trojaola
Lehendakaria

Aretxabaleta, 2007/10/26

MONIKA BELASTEGI

LAPURRETA > PROFESIONALEK EGINDAKO LANA DIRUDI

Elgetako Uruburuko obratik 30 galdera lapurtu dituzte

Uruburun egin dituzten etxe familiabakarretatik eta bi bizitzakoetatik lapurtu dituzte

Bergarako San Antonion egiten ari diren etxeetatik ere 20 galdera lapurtu dituzte

L.Z./M.B.> ELGETA
Elgetako Domingo Iturbe kalean eraikitzen ari diren etxebizitzetan egin zuten lapurreta joan zen aste bukaeran. Etxebizitza familiabakarretako eta bi bizitzako etxeetako galderak eraman zituzten.

Etxe horiek egiten ari den Irualde Bat enpresa eraikitzailera azaldu duenez, "leihoak apurtu, etxebizitzetan sartu eta galderak desmontatu dituzte. Torlojuak banan-banan aterata lapurtu dituzte". Hala, "profesionalek egindako lana dirudi", gaineratu du. Zapatu eguerdian dena



URUBURU Etxebizitza familiarretatik eta bi bizitzako etxebizitzatik eraman zituzten aste bukaeran galderak.

GREBA OSASUNEAN

Asteon ere lanuztea egin dute Osakidetzan

M.B. > ARRASATE
Debagoineneko ospitaleko eta osasun etxeetako langileek lanuztea egin dute berriro ere asteon, lan hitzarmena eskatzeko asmoz. Hiru orduko egin zuten, eguztenean.

Sindikatuen arabera, ibarreko ospitaleko langileen %76k egin du lanuztea; Osakidetzak, berriz, langileen %28,49k egin duela dio. Zenbait datu ere eman ditu azken horrek, hala nola, programatuta zeuden bi operazio-gela 11:00ak arte geldi egon zirela eta mediku kontsultak egin zirela, nahiz eta erizain eta administracioko langilerik gabe.

OSASUN ETXEAK
Ibarreko osasun etxeen dagoienetan, Arrasatekoan lanuzteak %95eko jarraipena izan duela adierazi dute sindikatuek. Bergarakoan eta Aretxabaletan %60koa, Eskoriatzan %87koa eta Oñatin %27koa izan dela ere jakinatzeko dute sindikatuek.

Azken horien gainean ez du daturik eman Osakidetzak.

ondo utzi zutela eta astelehen goizean, lanera sartzean, lapurreta ohartu zirela azaldu dute enpresa eraikitzailertik. Guztira 30 galdera eraman zituzten.

BERGARAN 20 GALDARA
Ez da lehenengo aldia galderak lapurtzen dituztela gurean. Dueña bi aste ere lapurreta egin zuten

Bergarako San Antonion, Urteaga kalean egiten ari diren etxebizitzetan. Artzamendi ari da etxe horiek egiten eta 20 galdera lapurtu dizkiotela baieztago. Kasu horretan ere leihoak apurtuta sartu ziren etxebizitzetan. Artzamendik salaketa jarri du dagoeneko. Aseguru etxea egingo da lapurreta horren kargu.

Elgetako lapurreta oraindik salatzeke dagoela jakinarazi dute Errtzaintzatik. Bergarako lapurretagatik salaketa jarrita dagoela eta gertatutako ikertzen ari dela diote. Bada, oraindik egilea edo egileak nor izan daitezkeen ez dakite. Elgetakoari dagokionez, salaketa jartzeko dagoenez, ikertzekorik ez dagoela aipatu dute.



Ezagutu laserraren atsegina

Depilazio azkarra, progresiboa eta ziurra.

Eskaintza berezia

Abenduaren 31 arte baliagarria

Emakumezkoak

Besapeak + izterrondoak 100 €


Hanka osoak + izterrondoak 250 €



Gizonezkoak

Bizkarra 180 €

Bularra + sabela 180 €




TRATAMENDU GUZTIAK ESPEZIALIZATURIKO IKUSKAPENAREKIN

Debagoineneko estetika zentrorik handiena. Teknika eta tresneria aurreratuenak zure esku.

Bixente Ferrer, 1

20500 ARRASATE

Tel.: 943 79 52 17



AUKERA ZABALA Liburuen kasuan esaterako, zein adinekoendako gomendagarriak diren zehazten da katalogoan.

EUSKARA > AISIALDIA

Gabonen atarian, euskarazko produktuen katalogoa kalean dago

Debagoineneko udalek 2004a ezkero kaleratzen dute, euskarazko produkzioa bultzatzeko

Interneten ere eskuragarri daude aurtengo gomendioak, Gabonei begira: 'www.katalogoa.org'

EDU MENDIBIL > BERGARA
Aurten ere euskarazko aisialdi produktuen katalogoa argitaratu dute Debagoineneko udalek, elkarlanean.

Nafarroako Euskara Zerbitzuak hasi ziren katalogoa argitaratzen, 1997an. Gipuzkoako udal batzuei ideia gustatu eta 2001ean zabaldu zen probintzia. Ondorengo urteetan zabalduz joan zen eta Debagoineneko udalak 2004an hasi ziren katalogoa argitaratzen. Hasieratik

Debagoineneko udal guztiek parte hartzen dute eta harrera bikaina jaso du katalogoak gurasoen eta gaztetxoen artean.

Hain zuen ere, ume eta gaztetxeoi aisialdiko euskarazko produktuen eskaintza ezagutzen ematea da helburua, euskarazko produktuen eskaera ugaltzeko, merkatua dinamizatzet eta indartuz.

Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuko iturrien arabera, baloraziorako tresna nagusia euska-

razko produktu ekoizle eta banatzaileek eskain ditzaketen datuak dira: "Orain datu zehatzik ez badugu ere, haindik adierazten dute antzematen dela katalogoaren eragina: eragiten duela produktuoen eskaia handitzen".

NOLA ESKURATU

Gabonen atarian heltzen den gida

Liburuak, diskoak, mahai-jokoak eta abar jasotzen dira aurtengo katalogoan eta eros daitezke halako produktuak egoten diren ohiko dendetan. Gabonen atarian katalogoa kaleratzea ez da kasualitatea. Bertan aurkituko dituzue adin bakoitzerako aisialdi produktu egokienak.

Era askotako produktuak jaso dituzte: jostailuak, jokoak, liburuak, aldizkariak, bideoak, musika, informatika produktuak, filma arrakastatsuak eta abar. Produktuen salneurria eta hainbat kasutan zein adinekoendako gomendagarria den zehazten da.

AISIALDIAREN GARRANTZIA

Arduradunen arabera, euskaraz eskolatzearekin bakarrik ez da ziurtatzen umea euskaldun oso izango denik: "Umearen aisialdia oso importantea da euskara bereganatzeko eta gurasoei hauxe adierazi nahi diegu: aukera handiak daudela umeari euskal heziketa emateko, nahiz eta haindik euskaraz ez jakin".

Katalogoa eskoletan banatuko dute. Interneten ere eskuragarri dago: www.katalogoa.org.

50. URTEURRENA

Bihar hasiko dira Fagor Arrasateko ekitaldiak

50. urtemuga ospatzeko, lehen ekitaldia egingo dute Amaia antzokian

JASONE ZABALA > ARRASATE
Bihar emango zaie hasiera Fagor Arrasateren 50. urtemugako ospakizunei, Amaia antzokian.

Guztiok ereindako hazio lelopean, Fagor Arrasateko langile eta bazkideentzat bakarrik izango da, eta bi zati izango ditu lehen ekitaldi horrek: lehenengo, ikusentzuneko bat egongo da. Berrian, 23 lagunek sorreraz, bila kaeraz eta gaur egungo egoeraz iritzia emango dute; bigarrenik, Fagor Arrasateko lehendakari Joxean Alustizak hitzaldia egingo du Fagor Arrasateko historiaren inguruari. Horrekin batera, omenaldia egingo diete sortzaileei, eta baita lore eskaintza eta aurreeskua dantzatu ere. Eguna amaitzeko, bazkaria izango dute Uarkapen.

Ekitaldiekin jarraituz, abenduaren 1etik 15era *TACI Arrasatetik Arrasatera* izeneko erakusketa egongo da Kulturaten, eta herriatar guztientzako egongo da ikusgai.

BESTE EKITALDI BATZUK
Egongo diren beste ekitaldi batzuen artean, abenduaren 21ean Uarkapen jokatuko diren pilotu partiduak nabarmen daitezke. Baita ere urtarriaren 2tik 5era Gabonetako umeen jolasparkea eta otsailaren 23an Mikel Urdangarin abeslariaren kontzertua.

Hezurren kalitatea zain ezazu.

Hezur-dentsitometria orain Arrasaten.

CG

**CONSULTORIO
GINECOLOGICO**



ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88

EKONOMIA > MCC-REN 2006KO DATUAK

MCC, Gipuzkoako lehen enplegatzailea 2006an

MCCren 83.601 enplegatuetatik, 36.697 langilek Euskal Autonomia Erkidegoan garatu zuten jarduera 2006an, enplegu osoaren %3,8

EDU MENDIBIL > ARRASATE Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu osoaren %3,8 MCCk sortua zen 2006ko amaieran. Kooperatiba eta elkartea partaidetuetan MCCk zituen 83.601 enplegatuetatik, 36.697 langilek EAEn garatzen zuten jarduera. Nafarroan 3.966 langilek jardun zuten iaz; Erkidegoko enplegu osoaren %1,4, hain zuzen ere.

Industria sektorean areagotu egiten da MCCren garrantzia, enpresetako enplegua %8,6 baitzen EAEn eta %2,6 Nafarroan. MCCk Gipuzkoan du presentzia-rik handiena industrian (%16,1):



EROSKI TALDEA Banaketa arloan erreferente nagusietako bat da. GOIENKARIA

fabriketako sei langiletatik batek MCCn jardun zuen iaz.

EUSKADIKO KUTXA ETA EROSKI Industriakoak ez diren sektore- etan garapenaren protagonista nagusiak Euskadiko Kutxa eta

Eroski Taldea dira: iaz 12.299 lan-gileri eman zieten enplegua bi erakunde horiek.

MCCren jarduera guztiak kontuan hartuta, Gipuzkoako lehen enplegatzailea izan zen korporazioa, 21.010 enplegurekin.

EAE-ANV > SALAKETAK

EAEk Aralarren jarrera salatu du Aretxabaletan

Debagoineneko EAEko zinegotziek gogor kritikatu zuten Aretxabaletako Aralar alderdiaren jarrera, baita Oñatiako EAEn egoera ere

A. IRIZAR/A. BARRUSO > ARETXABAleta Debagoineneko Eusko Abertzale Ekintza alderdiko zinegotziek eta alkateek agerraldia egin zuten martitzenean Aretxabaletan, Oñati eta Aretxabaletako EAEko kideek bizi duten egoeraren aurrean babesia agertzeko.

Gogor kritikatu zuten Oñati eta Aretxabaletako udalen egoera; besteari beste, Aretxabaletako Aralarrendako izan ziren kritikak. Egotzi zieten ausardiarik eza, "bai PSOEren politika faxistari aurre egiteko, baita ekainean agindu zutena ez dutela beteko onartzeko" ere.

Arrasateko alkate Ino Galparsorok adierazi zuen Alderdiaren Legea Madrilen egin zuten



ARETXABALETAN Agerraldia egin zuten EAEko ibarreko ordezkariek. ARRITU BARRUSO

aren, beste alderdi batzuen konplizitateari esker aurrera ateraztula, eta hauxe gaineratu zuen: "Kontra daudela diotenek ere nahiago izan dute legearen abantailak aprobetxatzea, Madrili aurre egitea baino". Zera gaineratu zuten EAEkoek: "Azkenaldian behin baino gehiagotan entzun dugu desobedientzia zibi-

laren aukeraz berba egiten. Auke-ra ederra izan dute horrelakoak aplikatzeko, Alderdiaren Legearen kasuan, esaterako, baina keinuematik haratago ez da inor joan".

Angel Bergaretxe EAEn Aretxabaletako zerrenda-buruak adierazi zuen herritarren hitza errespeta dadin lanean jarraituko dutela eta lortu egingo dutela.

euskara plazara

DEBAGUNE-REN BULETINA

Egutegia 2008



2008ko egutegiaren azala.

DEBAGUNE

Debagunek 2008ko egutegia aterako du ibarreko irudiekin

DEBAGUNE > BERGARA

Urtero bezala, aurten ere Debagunek 2008ko egutegia aterako du. Orain arte ateratako egutegiak argazki zaharrez osatutakoak izan dira, eta aurten ere hala izaten jarraituko duen arren, berritasun bat izango dute.

Argazki zaharraren ondoan gaur egungo argazkia egongo da. Debagoineneko zapiri herritako plazak, kaleak... lehen nola zeuden eta orain nola dauden eta nola aldatu diren ikusteko aukera izango da bertan.

Herriei dagokienez, Oñatiko hiru argazki agertuko dira, Arrasateko beste hiru, Bergarako bat, Gatzagako bat, Aramaioko bat, Aretxabaletako bi eta Antzuolako bat. Bi argazki izango dira hilabete bakoitzeko. Azalean ere beste bi joango dira, Bergarakoak, eta azkeneko orrian 2009ko egutegia egongo da formatu txikian, eta bertan Aretxabaletako beste bi argazki egongo dira. Guztira, beraz, 28 argazki.

Agertuko diren herrietatik adibide bezala esan, Oñatin, udaletxea, plaza nagusia eta eliza agertzen direla argazkietan; Arrasaten, berriztatu berria den Biteri etorbidea; Bergaran, Espoloa; Aretxabaletan, herri erdialdean dagoen Durana kalea; Antzuolan, Herriko Plaza; Gatzagan, bertako Gatz Museoa, eta Aramaion, autobus geltokia dagoen kalea.

Debagunekoek argazkiak lortzeko hiru bide erabili dituzte. Argazki zaharrei dagokienez, Debagoineneko herrietako udal artxiboetako ateratakoak dira batzuk, eta herrietako jendeak era-mandakoak beste batzuk. Eta argazki berriei dagokionean, aldiz, hainbat euskara elkartek lortutako argazkiak dira egutegian jarri dituztenak.

NON LORTU EGUTEGIAK

Egutegia eskuratu nahi duenek, abenduaren 5ean Durangoko azokan izango du aukera, Topaguneak jarriko duen standean, eta azoka- ra joaten ez direnek herri bakoitzeko euskara elkarteenetan ere izango dute aukera egutegiok lortzeko. Hain zuzen ere, euskara elkarteko bazkide direnei dohainik banatuko dizkiete egutegiak, eta bazkide ez direnek, 3 euroren truke lortu ahal izango dituzte. Guztira 3.700 egutegia aterako ditutte kalera, 3.000 bazkideen artean banatzeko izango dira, eta beste 700 egutegi jarriko dituzte salgai.

EUSKARAREN EGUNA

Ezin dugu ahaztu Euskararen Eguna abenduaren 3an izango dela, eta Debagunek Ez zoratu, euskarari ebatu leloa auke- ratu du egun horretarako. Leloaren esanahia dela-eta, eus- karaz egitera bultzatu nahi da, ahal den egoera guztieta.

Egun horri lotuta, boligrafoak banatuko dituzte Arrasate, Bergara, Aretxabaleta eta Oñati DBHko ikasleen artean; guztira 3.000 boligrafo banatuko dituzte.

Hilabete bakoitzean bina argazki egongo dira, bat zaharra eta bestea berria

Egutegiak abenduaren 5ean ipiniko dituzte salgai Durangoko azokan

gure artekoak

MINI COOPER CLUBMAN > Orain dela pare bat aste egin du Mini etxeak automobil berriaren aurkezpen ofiziala. Gainerako Miniekin alderatuta, handiagoa eta luzeagoa da Cooper Clubman.

Virginia Rivas > Ribeloga autoetako arduraduna

"Egonkortasun handia dauka, automobil txikia izan arren"

AINIZANE IRIZAR > ESKORIATZA

Orain arte Mini etxeak merkatuan dituen automobilik ezagunenekin (Mini Cooper eta Mini One) alderatuta, automobil modelo berria handiagoa da, luzeagoa. Virginia Rivas Ribeloga etxeko arduradunak hauxe esan digu: "Beste modeloekin alderatuta, aldaketa nagusia da karrozeriarena, aldaketa estetikoa, diseinuarena".

Orain dela pare bat aste bakarrrik merkaturatu dute, oraintxe egin dute automobilaren aurkezpen ofiziala.

Forma karratua du automobil berriak eta espazio handiagoa du barruko aldean, bai bidairiendako, bai maletategian; gehienez 930 litroko edukiera dauka.

Aipatzeko da, bestalde, diseinuarekin eta erosotasunarekin lotuta, lau ate dituela Clubman automobilak, eta ate bereziak, gainera. Batetik, maletategia zabaltzeko bi ate dauzka, alboetara zabaltzen direnak. Bestetik, kopilotuaren aldean bi ate dauzka: aurreko atea, kopilotuarena, normal zabaltzen da, gainerako automobiletan bezala; atzoko aldeko atea, baina, atzeraka zabaltzen da. Horrela, bidaia erosotasun handiz sar daitezke atzoko aldeko eserlekutara.



Virginia Rivas, Ribeloga autoetako arduraduna, Mini berriarekin.

GOIENKARIA

Cooper Clubman 1.6 120 ZP

Prezioa	21.500 eurotik hasita
Luzera	3,93 metro
Zabalera	1,68 metro
Maletategia	930 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	5,5 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	201 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	9,8 seg.
CO2 isurketak	132 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

MOTORRA ETA SEGURTASUNA

Segurtasunari dagokionez, sistema osoa dauka. Hauxe gaineratu du Rivasek: "Egonkortasun handia dauka, automobil txikia izan arren; izan ere, proportzioan, automobil zabala eta baxua da; oso erosoa da gidatzeko, ez da batere mugitzen".

Motorren aukerari dagokionez, dieselazko bakarra dago (1.5 110 ZP) eta gasolinazko bi (1.6 120 ZP eta 1.6 175 ZP).

Azkenik, diseinuaren gainean, Rivasen hitzak: "Mini automobilak dira automobil diseinuaren erakusgarri onena".

begi-bistan



**Arrikutzekoak El Soplaon (Kantabria)
2006/01/28**

Argazkia: Ikerne Altube.
Testua: Aintzane Irizar.

Arrikutz kobazuloko gidariak Kantabriako El Soplao kobazuloa ikusten egon dira, koba turistiko-en arteko elkarlanarekin jarratuz. Irudian oñatiarrak beste kobazulo batzuetako gidariekin.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

etxeko leihotik



Goiatz Arana > GOITBko erredaktore burua

Narru gorritan utziko gaituzte oraingoan

apurretag. Aspaldian ez dut beste konturik entzuten. Uda inguruan dezente furgoneta lapurtu zitzuten, noiz-nahi eta edozein tokitatik. Matrikulak aldatu eta Espainiatik ateratzen ei zitzuten. Urrian eta azaroan kobre hariak kilometroka lapurtu dituzte, ehunka etxe telefonorik gabe utziz. Eta hilabete honetan bertan Ertzaintzak merkatarriak ohartarazi ditu, atzerritar itxurako bi gizonezko den-dan sartu eta bietako batek alarmak estaltzen dituelako, besteak dendaria distractzen duen bitartean. Helburua: gaez arazo barik otea. Azken asteetan, berriz, Elgetan eta Bergaran egiten dabiltsan etxe batzuetatik galdarak eraman dituzte, 50 guztira... Eta jarrai-tu nezake.

Etxean ere eskrupulorik gabe sartzent dira, ordea! Gurean lapurreta egin dutenetan urduritu egin izan naiz, kontrolatuta izan gaituztela pentsatuta. Baina, tira, lehen sikiera, etxe-jabea kanpoan zen bitartean osten zuten; gaur, berdin zaie! Eta halako batekin etxe-an topo egiten baduzu, zer? Aurre eginez gero kontatu ez duzu egingo, deskuidatz gero! Ez daitezela etorri, baina etortzekotan, kanpoan gaudenean, (mesedesz)!

> Entzundakoak

entzunda, ahaztu behar zaigu lasaitasuna zer den. Berriz ere ibili beharko dugu lasterka edo atzera begira, norbaitek jarraituko gaituen beldur. Amorragaria, baina egia.

> Gertakariotako

askoren egileak Europa ekialdekoak direla saltzen digute. Nik ez nuke inor zigortu nahi aurrez epaitu gabe eta epaitzea ez da nire egiteko, baina pentsatu beharko dugu zerbait.

izen propioak



**Harkaitz
Letamendi**
ESKIATZAILEA



**Andoni
Zubizarreta**
FUTBOLJOKALARIOA



**Aitor
Mendizabal**
PILOTARIA

Euskadiko Mendi Federazioak orain go astean egin du mendiko eskiaren euskal selekzioaren aurkezpena. Aitor Murua hautatzailearen aginduetara jardungo duten bost eskiatzaileen artean bi oñatiar ditugu: Aitor Otxoa eta Arkaitz Letamendi, hain zuzen ere.

Chernobil elkarteak hango umeak udan etxearen jasotzeko kanpaina abian jarri du. Aurpegi ezagun bat izango da kanpainaren protagonista, Andoni Zubizarreta futbolko atezain ohi aretxabaletarra, hain justu. Hiru urtean jaso du etxearen Txernobilgo neskato bat.

Lau terdiko Elgetako DV txapelketa jokatzen dihardu Mendizabal antzuolarrak eta finalerdiatarako txartela eskuan dauka. Abenduaren 6an jokatuko du. Hibai Bolinaga arrasate-arrak ere egun horretan jokatuko du finalerdiak partidua.

Pasa den astelehenean eman zuten aditzera Juan Zelaia VII. saiakera sariaren irabazlea. Iru-

ñeko Pamiela argitaletxeak antolatu eta Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioaren lagunza-

rekin egiten den lehiaketa da. Bada, debagoiendar batek irabazi du, Juan Izuzkitza berga-

rarrak, *Paranoien hozberoa* (*Nintendoren*) saiakerarekin. Horren inguruan jardun dugu.

Juan Izuzkitza > Juan Zelaia VII. saiakera sariaren irabazlea

"Juan Zelaia saiakeran lortutakoa nire lehen lana eta lehen saria izan da"

JASONE ZABALA > BERGARA

Juan Izuzkitza (Bergara, 1968) da Juan Zelaia VII. saiakera sariaren aurtengo irabazlea, eta 9.000 euroko saria jaso du. Bergaran bizi den arren, Durangoko Fray Juan de Zumarraga institutuan dihardu filosofia irakasle. Saiakera idaztearen kontua kasualitate hutsa dela esan digu.

Lehenik eta behin zorionak, Juan.


Eskerrik asko. Juan Zelaia saria lortzea zaila da, eta oso pozik nago.

Nork eta nola animatu zintuen lehiaketa honetan parte hartza?

Sinkronia bat dago honen guztiaren atzean. Kasualitateak esanguratsu bihurtzen ditugunean gertatzen da hau. Niri hiru edo lau kasualitate tokatu zitzaidan jarraian, eta egoera honek aurkezteria animatu ninduen. Berez, Euskalerria Irratirako Iruñean kolaboratzaile lanak eginen nituen, eta filosofiarekin zerikusia zuen tarte bat egiten genuen Peio Argiñarenak eta biok. Pasa den urtean sari hau Xabier Agirrek irabazi zuen eta hura ere irratia saioko kolaboratzailea zen. Halako batean, *Olagarri* Euskalerria Irratiko teknikariak eta Argiñarenak, Juan Zelaia sarira aurkezteria animatu ninduten, Xabier Agirrek irabazi bazuen nik ere aukera hori izan nezakeelako. Baino gaia pixka bat alde batera utzi nuen. Gero, kurtsoa amaitzean zegoenean ikusi nuen saiakeran parte hartzeko epea amaitzean zegoela. Baldintzak betetzen nituela ikusi nuen, eta nire buruari esan nion: 75 orri ez dira hainbesteko; gainera, orain uda dator, emaztea haurdun daukat. Emazteak berak ere animatu ninduen.

Zergatik uste duzu irabazi duzula?

Alde horretatik nahiko pozik nago. Euskara maila ez dut oso ona saiakera on bat egiteko. Bada, kit euskarako arazoak egon direla. Laguntza jaso dut Bergarako Udal Euskardegiko Maria Dolores lete irakaslearen esku. LANA entregatu behar nuen egunean farmazia batean elkartu nintzen harekin. Komentatu nion lana aurkeztu behar nuela eta ea umorrik bazeukan, abuztua zela kontuan hartuta, nire lana zuzentzea. Hasi zen irakurtzen, pixka bat zoratu zen eta akatsik potoloenak



Juan Izuzkitza berargarra, Juan Zelaia saiakeran jasotako diploma eskuetan duela.

JASONE ZABALA

zuzendu zizkidan. Hala ere, epaimahaiko presidenteak esan zidan oraindik ere saiakeran bazeudela zuzentzeko gauza batzuk, baina hori normala zela. Beraz, uste dut euskara aldetik akats batzuk egon daitezkeen arren, eduki aldetik zerbait ona ikus beharko zutela saria niri emateko. Gainera, inoiz ezer idatzit gabeakoa naiz. Hau da halako zerbaitera aurkezten naizen lehen aldia.

Zertan datza Paranoien Hozberoa (*Nintendoren*) saiakera?

Aurreko erantzunaren gainean doa lana. Filosofia irakasle naizen neurrian, honen inguruan doa saiakera. Guk ez ditugu era-bakiak hartzen, nahiz eta guk baietz uste dugun. Paranoia ordenagailuko joko bat bezala harzen dugu, eta Nintendo joko horren marka izango litzateke. Paranoia da, azken finean, norbaitek uste izatea edozeren zentroa dela, modu honetan zentzia emanago dioelako bizitzari... Baino, hori gertatzen denean, jeneralean, bizi-

AURKEZTEKO ARRAZOIA

"Hiru edo lau kasualitate tokatu zitzaidan jarraian, eta horrek animatu ninduen aurkezteria"

'PARANOIAREN HOZBEROA'

"Guk ez ditugu era-bakiak hartzen, nahiz eta guk halaxe dela uste dugun"

ETORKIZUNA

"Nire gogoz ez naiz beste saiakera edo antzekorik egitera animatuko; norbaitek esanda beharbada bai"

tzak irentsi egiten gaitu. Bizitza bizitza da eta gure interpretatzeko era beste gauza bat da. Interpretatzeko era horrek ezin du baldintzatu bizitza bera, eta honen inguruan doa saiakera.

Antolakuntzari dagokionez, esan, kapituluak doala. Hasiera-ko kapituluak agertzen da argi paranoia zein den, non dagoen arazoa... Kapituluak aurrera joan ahala, paranoiaren agertze hori ez da hain argia, eta paranoia bera askoz ere finagoa da, eta horregatik askoz ere arriskutsuagoa.

Paranoia arriskutsua den zati honetan, mil gako batzuk ematen ditut paranoia desarmatzeko, baina paranoia desarmatu duzula uste duzunean, berriz ere paranoid erortzen zara eta amaitu ezinezko joko batent sartzen gara. Azken konponbide bezala zera aipatzen dut: bizitzak agian ez due-la zentzurik, eta ez dela ezer geratzen dena, harropuzkeria dela.

Zuretzat idaztearen paranoia orain hasiko dela uste duzu?

Behin hasita jarraituko duzu mundu honetan?

Hainbeste kointidentzia geratutu eta gero saria jasotzean, paranoia asko pizten da, hazi egiten da, eta zure buruari esaten diozu ez duzula idazten jarraituko. Baino batek daki. Hala eta guztiz ere, ez dut uste jarraituko dudanik. Kasualitatez aurkeztu nintzen, eta hortxe uzten dut gaia. Norbaitek animatzen banau, beharbada bai, baina dedikazioa eta gogoa behar da horretarako.

Noiz argitaratuko da lana?

Nik uste dut otsailerako dagoela aurreikusita argitaratzea. Lehen, Durangoko azoka egunean argitaratzen zen, baina hainbeste libururen artean *galduko* den beldurrez, Pamiela argitaletxekoek pentsatu dute aurkezpena data zehatz baten egitea Durangokoaren ondoren, eta eman behar zaion garrantzia ematea. Oraindik zehaztu gabe dagoen arren, urtarri edo otsail alderako egingo da aurkezpena, Iruñean.



zabalik

Oskar Elizburu

'Pixka bat' zenbat da?

Pixka bat es mucho leloak jokoz kampo laga ditu hainbat euskaldun, euskaldungai eta erdaldun.

- Ai, ene! Beti gaizki esan ete dogu hori ere? -bere artean, larri, Bedoñako amonatxoak.

- Ostras! Irakasleak gaizki azaldu zigun hori! -4. urratsean astero 10 orduz AEKn ikasten diharduenak.

- ¡Leche! Y yo que creía entender algo! Siempre había relacionado *pixka bat* con *una pizca*. -Olarten 50 urtez bizi den erdaldunak.

Pixkanaka-pixkanaka baina eten gabe lan egiteak emaitza onak ematen dituena jakina da, eta *pixka bat* bakoitzak laguntzen dueña ere bai. *Pixka bat* ugari behar da, baina aurrera egiteko eta bakoitzak bere neurrian egin behar du ahalegina.

Azken 25 urtean izan dugun Euskararen Legeak eta bera era-biltzeko hizkuntza politikek hori egin dute, hain zuzen ere, pixka bat, apur bat, pittin bat besterik ez!

Legean aipatzen dena ere ez da bermatzen: euskara eskubidea da, baina nahi ez duenarendako ez da betebeharra, duela gutxi epaile bat entzun diogun bezala.

Pixka bat gutxi da euskarak daukan egoera kontuan hartuta, ez geratu lortu dugunarekin (eta ez da gutxi lortu duguna 25 urte hauetan) eta pausoar arindu dezagun.

Bidea luzea da oraindik eta osorik burutu beharrekoa da. Eskubideak bermatzea, ezagutzua eta erabilera sustatzea, euskara prestigiatzea eta lanerako zein eguneroko bizimodurako baloratzea, baliabideak jartzea, horretan dabiltsan elkartea eta erakundeekin elkarlanean aritzea; hori guztia da hizkuntza politika egoki batek egin behar duena eta hori da instituzioek egin beharreko gutxieneko, haien *pixka bat* hori.

Besteok ere ipiniko dugu gure apurra, jakina!

"Pixka bat es mucho' leloak jokoz kampo laga ditu hainbat euskaldun"

"Euskara eskubidea da, baina nahi ez duenarendako ez da betebeharra, epaile bat entzun bezala"

MAKATZENAKO PILOTALEKUAN ARGIRIK EZ ARRASATEKO IRAKURLE BATEK HONKO GALDERA HELARAZI DIGU: ZERGATIK EZDITUZTEPIZTEN MAKATZENA AUZO-KO PILOTALEKUKO ARGIAK? IRAKURLEAK AZALTZEN DUENEZ, ARRATSALDEETAN DU PILOTAN EGITERA JOATEKO AUKERA, BAINA GOIZ ILUNTZEN DUENEZ PILOTAN EZIN EGIN GERATZEN DA. DIO PILOTALEKUAK BADITUELA ARGIAK, BAINA BETI DAUDELA ITZALITA.

Arrasateko Udaleko Obra eta Zerbitzu Sailean egin dugu irakurlearen galdera: Zergatik ez dituzte pizten Makatzena auzo-ko pilotalekuko argia? Udaleko sail horretan erantzun digute-nez, egokiena da herritarrak ida-tzia aurkeztea udaletxeen dituen kezka, galdera, zalantza eta abarrekin, gero eurek erantzuna emateko.

TXAKURREK KALEAN LOTUTA IBIKI BEHAR DUTE

BERGARAR BATEK TXAKURREN GAINKO ARAUTEGIA DELA-ETA KEZKA AZALDU DU ETA HONAKO GALDERAK EGIN DIZKIGU: TXAKURREK KALEAN LOTUTA JOAN BEHAR DUTE EZINBESTEAN? ETA

pertsonaren bati txakur batengatik zerbaiz gertatuz gero nor da erantzule?

Kezka azaldu duen bergararrak azaldu digunez, Urkulun zebilen paseatzen, azaroaren 15ean, eta lotu gabe zeuden bi txakurren eraginez lurrera erori eta min hartu zuen. Horren aurrean, txakurren gaineko Arautegiak dioena jakin nahi du. Erantzunaren bila Aretxabaletako udaletxera jo dugu.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoikionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goienna.com

Aretxabaletako Udalak due-la hiru urte onartu zuen anima-liak edukitzea eta babestea arau-tzen duen udal ordenantza.


Hainbat kapitulu ditu eta sei-garrenean, animaliekin leku publikoetan nola jokatu behar den jasotzen du. Zehazki 25. artikuluak honela dio: "Txakurrek derrigorrez lepokoarekin eta uhalarekin lotuta ibili beharko dute bide publikoetan eta pertsonak dabiltzan gainerako leku guzti-ten. Muturrekoari dagokionez, berriz, erabilpena nahitaezkoa izango da, bakarrik, Animaliak Edukitzeko Erregimen Juridi-koaren 50/1999 Legeak arautzen duen animalientzat".

Animaliak eragin ahal dituen kalteei dagokienez, honela dio 34. artikuluak: "Animalia bide publi-koetan egon edo ibiltzen bada, eta norbaiti eta ondasun publiko zein pribatuei kalterik eragiten badie, jabea izango da erantzulea".

Bestalde, zigor erregimena ere jasotzen du udal ordenantza horrek. Arau-urratzeak hirutan sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak. Urratzeak 43 eurotik 21.565 eurora arteko isunekin zigor daitezke.

marrakiz

Unai Busturia



Goienkaria

Argiratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperativa Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estéban Plazaola **Zuzendarri nagusia** Inazio Arregi

Zuzendarria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urzelai (Kirola), Alex Azkarate (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)
Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Aintzane Irizar, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Aritz Barruso, Jasoene Zabala Oinarritzko diseinua Goi Arana **Maketaizoa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaya Mundifano, Zortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Bereziar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereziar, Marilù Unamuno.

EGOTZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Posta-e: goienkaria@goienna.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañor Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goienna.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 93

Posta-e: aretxabaleta@goienna.com

Publizitatea

Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goienna.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goienna.com

Legi Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTAZIALEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udal



Bergarako
Udal



Ofizialdi
Udal



Aretxabaleta
Udal



Eskoriatzako
Udal



Antzuolako
Udal



Aramaioko
Udal



Elgetako
Udal



Leintz Gatzagako
Udal

Soinketa, Matematika, Filosofia

Markos Zapiain
www.eibar.org/blogak/zapiain

Soinketa orduei eutsi beharko litzaieke. Neraben zaletasun berriak sedentarioak dira: zappinean etzanik, eseririk txatean. Pizza jaten dute gainera aldi berean, eta doneteak. Frexkatzeko premia larria dute gure gazteen hormonek eta gantzek. Ez badira apur bat mugitzen, 20

urte bete baino lehen akabatuko ditu kolesterolak.

Kasu bakar batean dirudi zilegi Soinketari orduak kentzeak: baldin ordu horiek Filosofiarri emango balitzazikio. Zeren Filosofiak gaur egun duen ordu kopuruak ez baitu behar bezala erakusten berez behar duela izan ikasketen bilotza. Halatan, ordutegiaren aldaketa berri honek ikasgaien berregituratze orokor batzuek. Pizza eman beharko lioke, ikasgai bakoitzaren oinarri filosofikoa garatze aldera, eta oinarri horien arteko lotura ahal bezain argi eta sistematikoenak. Kontua da Filosofiaz gainerako

ikasgaien ezin dutela beren funtsaren berri eman, Filosofia baliautu ezean.

Esaterako, Matematikan, ikasleek arazoak ebazten dituzte, baina itsu-itsuan. Zertara datoz horrenbeste ariketa, zein da problemen zentzia? Historiako Matematikari handienak oso gizon apasionatuak izan dira, eta bizi izan dituzten pasioak batik bat filosofikoak izan dira: espazioa, infinitua... Ordea, Institutuko ekuazio eta integral hutsekin biografia apasionatu horiek baztertzen dira, lur hartu barik airean biraka dabilen bizikletagurpila antzo. Matematikaren

blog

plazara

Bihar, abenduak, 1, Hiesaren Kontrako Nazioarteko Eguna da. 26 urte dira, dagoeneko, gaitza gure artean dagoela, baina Ainhoa

Rodriguezen iritziz, oraindik zergin handia dago birusari aurre egiteko, eta informazioa eta prebenetzia dira horretarako giltzetako

bi. Rodriguezek dioenez, gizakiok ez gara kutsatzen garenagatik, egingten dugunagatik baizik. Ez ahazteko moduko baieztapena.

Ainhoa Rodriguez *

26 urte hiesarekin elkarbitzeten

Urtero bezala, aurten ere abenduaren 1ean Hiesaren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatuko dugu.

Dagoeneko 26 bat urte dira hiesa ezagutu genuela. 26 urte beldurrez, ezjakintasunez eta lagun eta ezezagunen heriotzaz beteak, baina zorionez badirudi argi pixka bat ere ikusteko adina denbora izan dugula.

Gaiaren sentsibilizazioak bultzaturik, hainbat ekitaldiren antolaketan parte hartzen dute zenbait elkartek eta udalek eta orokorrean estatuko osasun batzorde eta komunikabideek.

Badirudi guztiok dakizkigu-la kutsatzeko bideak zeintzuk diren, babes gabeko sexu harremanen bidez, kutsatutiko odo-larekin kontaktu zuzena edukiz edota haudunaldian birusarekin kutsatutako amak seme-ala-bari transmitituz, esaterako.

Gutxi batzuek dakte, ordea, lehen kasuak homosexualengen izan zirela, pixka bat beranduago heterosexualengen ere detektatu zela hiesa, baina orain 11 urterako arte *antirretroviral* deritzeron terapia edo medikamentua ez zen eskuragarri egon. Horri esker gaixoen bizi kalitatea hobea da eta bizi iraupena ere luzeagoa da. Hala eta guztiz ere, orduro 600 pertsona inguru kutsatzen dira munduan eta dagoeneko 36 milioi pertsonak dute gaitza.

Nahikoa dakigula esateko prest gaude orduan? Nik uste ezetz, datuei begiratuz gero.

Orokorean munduari begiratuz egiten diren kampainak ez dira nahikoa. Oraindik hiesa zer den, nola transmititzen den eta nola ekidin dezakegun mun-



OXELO ARRIBETE

duko azken bazterrerraino zabal-teza falta zaigu. Asko egin da bai, baina informatzeaz gain pertsonak hezi behar ditugu gai honen inguru.

Prebentzia da gai honi aurre egiteko modu onena. Hiesak ez gaitu lehen bezala beldur-tzen, zeren lehen munduan, behintzat, medikamentuei esker ez baita gaixotasun hilgarritzat hartzen eta horren ondorioz prebentzia ahuldu egin dela esan dezakegu. Baino hortik salbu gaudela pentsatzena differentzia handia dago.

Inguruan hiesa duen jende gutxi edo agian inor ezagutzen ez dugulako gure ingurunean kasurik ez dagoela ez dugu pen-

"Medikamentuei esker, hiesa ez da gaixotasun hilgarritzat hartzen, eta horren ondorioz, prebentzia ahuldu egin da lehen munduan"

"Lotsatu egiten naiz birusaren atzean dagoen gizon edo emakumea ikusteko gai ez garelako"

tsatu behar. Zenbat pertsona ezagutzen ditugu hiesaren birusak jota daudenak? Zenbatek aitortzen du publikoki? Egia esan, gutxik. Eta arrazoia orokorrean gizarteak eurenganako duen errefuxean datza.

Gizartearen errua, gure errua da pertsona horiek isilean eramatea beraien gaixotasuna. Ez dago zertan *aireatu* gaitza duzunik; noski, bakoitzaren bizian bakoitzak delako zuzendari. Baino adierazi nahi dudana da lotsatu egiten naizela sortu dugun gizartearekin, lotsa birusaren atzean dagoen gizon zein emakumea ikusteko gai ez gare-lako, horren ordez *kutsatutako* bat ikusten dugulako. Eta tristura sentitzen dut aurreiritzi gabeko eta goxotasunez beteriko ingurune bat eskaintzeko dugun zailtasunarenagatik. Natu-raltasunez tratatu ordez estigmatisatu besterik ez ditugulako egiten pertsona horiek. Zergatik joera hau? Koldarkeria hau? Koldarkeria hiesaren proba egiteko, koldarkeria gure bikotekideei antisorgailua erabiltzeko esateko orduan.

Hiesa prebenitu eta sendatze-ko txertoak ikertzen jarraitzen dute adituek eta guk bien bitar-tean gure esku daukagun baka-rra erabili beharko dugu birus honi aurre egiteko: informazioa, hezkuntza eta prebentzia.

Ez ahaztu, hiesak ez du gizar-te mailaz, adinaz edo generoz ulertzen; ez zara kutsatuko zare-narenagatik, egiten duzunarenagatik baizik.

*Ainhoa Rodriguez, gizarte hezitzai-lea eta Gehituko kidea

zer deritzozu?

www.goiena.net

Zer eros daiteke Gobernuak umeengatik ematen dituen 2.500 euroekin?

> ZAINTZA ZERBITZUA

Diru laguntza hori baino gehiago eskertuko nuke nik 0 eta 3 urte bitarteko umeendako doako zaintza zerbitzu publikoa. Eta noski, orain dagoen zerbitzua nabarmen hobetuz. Mireia

> LAGUNTZATXOA

Egunerokoan behar diren gauzak erosteko laguntzatxo da, baina *txoa* diot, esne, pixoihalak... eta halakoak denbora tarte labur baterako erosteko baino ez duelako ematen laguntza horrek.

Marian

> UMEA IKAN?

Ez dakit ba halako ekimenekin herritarrok animatuko gaituzten seme-alabak izatera. Agian Frantziako laguntzak emango balitzte.

Ana

> BADA ZERBAIT

Ez da asko, baina bada zerbaiz. Nire garaian -eta ez naiz amonatxo bat- ez zegoen halako laguntzarik. Ea goraka doazen.

Miran

DATORREN ASTEKOAK:
Hasi zara Gabonetako opariak erosten?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

koplak

Julen Iriondo

Aurrera txuri-urdinak

esentziari buruzko galderari ezin zaio hizkuntza matematikoen bidez ihardetsi. Matematikaren esentzia ezin du Matematikak azaldu, Filosofia baino.

(...) Dena den, ariketa fisikoa gure gazteria usteltzen ari den kuadrillismoa eta komunikake-ria gainditzeko ere erabil liteke.

Nobedaderik ez

Pello Zabala
www.berria.info/blogak/pelloorzabala

G oizari neurria hartzea gustatzen zait. Argiari tamainatxoa, haizeari

xuxurlario mintzo xurrumurru disimulatua. Horrek hazi egiten du eguna goizetik, puztu barrua. Harik eta irratia nahiz gosaritako komentario, eguneko nobedadeekin topo egiten duzun artio... Kk-zaharra! Gosarikoa xurrupatu eta banoa!...

Eta, betikoan! Nobedaderik badugu ala...? Parisko borro-kak? Bushen bilera faltsoak? Judutar soldaduen 'deskuidoa'? Iraken eta inguruko herrietako sarraski ta sarras-kitxo egunerokoak? Josune Arriaga eta Jerome Sanchez tokatu zaiela oraingoan? Kale-borrokan aitzakitan, 'kame-

ren aurrean' atxilo eta burua makurraraziz eraman dituzten 'gaizkileetatik' pare bat askatu dituztela, tortura erraziotxa larraun ezarri eta gero?

Hainbat epaiketa martxan jarri nahi dituztela? Lehen talde gutxi baziren, Udalbiltza ere epaileen aurrera darama-tela? Jaurlaritzak eta sozialistek hitzartu dituztela aurre-kontuen saltsak? Ez dago nobedade zirkinik ere... Martxa hontan, guri emango digu nobedade galanta... Zenbati? Askori? Hor egon daiteke zorioneko nobedadea. Ai, mordoskatxo bati emango balie, sikiera!...

Txinatarrak bai, txinatarrak ez gabiltz gira ta bira arazorik ba ote legoke amerikarrak balira.

Anoetari Shangai jartzea omen litzake tristea Real Sociedad izena ere ez da ba oso geurea.

Aspalditik izan da Reala atzerritarrez betea orain aldatu daitekeena da diruaren kolorea.

Zamora, Satrus ta Arkonada ez ipiñi nostalgiko haiekin berriz ez dugu eta Ligarik irabazik.

Urtarrilean jakingo dugu nor dugun presidenteera baina bitartean komeni da puntuak ateratzea.

Betirako ez dira izango gure taldearen minak onean legez txarrean ere aurrera txuri-urdinak!

Horra istorio berri bat

Josu Sarasua
Aretxabaleta

Atxabalant ANVri bota eman zioten 839 lagunei zuzendua, gauzak argitze aldera, halaberrez, gorrotorik gabe eta autokritika izpi batez egina. "Ez gaituzte udalean nahi" esan zuten, "ausardia falta izan zaie" erantzuna, gaindizinezko inflexio puntuaren testigu dira berbok, hain ongi hasi eta konponezinean bukatua.

Istorioa udal hauteskundeak baino hilabete batzuk lehenago hasten da, ANVko zerrendak (oraindik egin gabeak) legez kanporatu ala ez, antzerki mediatikoa erdian Atxabaltako Aralarrek herrian ezker abertzalea bloke bakar batean aurkezteko ahalegina egin zuen. Batasuneko herrialdeko ordezkariek eterri ziren mintzakideak haietan zirela esanez eta herrian proposamenik ez egiteko exijitzu. Halere, Atxabaltako ANVkoek jakin zuten asmoen berri. baina beste behin eskuak loturik aurreko legealdi osoan bezala, oraingoan ez genuen erantzunik jaso. Ondoren eta tamalez, A. ANV legez kanpo utzi zuten, baina udal hauteskundeetan garbi gailendu ziren. Bihamamuneko Aralarren idazkia bi xede garbi zituen, publikoki zoriontza eta zerrenda kanporatuaren parte-hartzea bideratzeko borondate argia azaltzea, elkar ulertze eta errespetu truke. Bilera eta elkar hartze anitzen ondoren hirukoak hitzarmena onetsi eta sinatu zuen. Bertan, besteak beste, zerrenda kanporatuaren parte hartzeta eta gobernu eraketa planteatzen zen legezkoak ziren bide zirrikituak baliatuz. Dagokien erabaki ahalmenaz ari ginen baita Loreg legeaz ere noski, ez zen horretarako sortua izan baina balio zezakeen. Elkar ulertzera behartuta geunden zinez, egoera politikoak ere eskatzen zuen eta ariketa politiko simplea zen parte hartzearena; guk zerrendak erre (dimititu) eta zuek, zuen zerrendaz kanpokoa jarri, 839 izen aukeran... erdibide errazagorik? Ordezko pertsona izendatzea Aralarko hegoaldeko exekutibaren esku dagoenez, denbora behar zen beronek onar zezan, ez baitzen begi onez ikusten. Bitartean A. ANVkoei presioa egitea baino ezer hoberik bururatu ez, eta ordurako beste herri askotan "guk Arritxabaletan egin nahi dutena nahi dugu" exijitzen hasiak ziren. Hartu

emanak aurrera A. ANVk bere zerrendako laugarrena proposatzen du udalerako, besterik gabe.

Bidezkoa baina hutsala, ordea, erdibide praktikoa ez zen hain urrun, intelligentzia politiko minimoa duenak badaki Loreg legea ANVren zerrendako pertsona batekin aplikatzea EHn eta estatu mailan *pelotazo mediatico* bortitza dela bihamamunean, ordezkarri horrek ez luke iraunkortasunik udalean ez eta udal gobernuak ere; beraz, udalean parte hartzea bada helburua, nola uler daiteke hauen jokaldia? Bada, beste behin ere zuen ordezkariek gorengo exekutibaren etxeko lanak egiten dihardutelako, ez Atxabaltaroko konponbide bila, lehentasun politikoak goitik dato beti, Udalean parte hartzearena sekundaria zela antzeman zitekeen.

Aralarko exekutibak beste horrenbeste egin zuen, Atxabaltako Aralarren proposamena zapuztu. Ez egin eta ez egiten utzi, goitiko betoa ez dut asimilatu, nireka egin du inguruotan. Espero zen moduan azken proposamen itsustuari uko egin zion ANV. Akabo. Azkenean exekutiben arteko gerran kakaztuak guztiok eta aukera historiko galdua. Baina gauzak diren bezala kontatu behar dira.

Horrenbeste agerraldi eta diskurtso progre entzunagatik oraingoan ere zozoak beleari ipurbeltz eta ipurbeltzetik emateko arriskua. Mendekotasunak uxatu behar hurrengorako, independentzia eta sozialismoa behetik gorako bidean ondoen, lehenik norberaren baitan eta azkenik pankartan. Azala eta mamia elkarrengandik urrunegi direnean zaila da iraultza kolektiboan sinestea; umezurtz politiko egoera honetan, aukera ezin hobea dut nire baitako iraultza zorrozteko.

AHT gelditzera goaz!

Jesús Mari Garitano
(Ezker Abertzalearen izenean)
Bergara

Errepide sareko trafikoa arintzeko, batez ere N-1eko, autopista eraikitza beharrezkoa zela esan ziguten, eta era berean Debagoienarentzat ezinbestekoa zela. Gaur esaten digute Hondarribiko aireportua handitu eta Pasaiako kampoko Portua egiteaz gain, beharrezkoa dugula Gasteiz, Bilbo eta Donostia elkartuko dituen Abiadura Handiko Tren sareoa (AHT), eta berriz ere ezinbestekotzat aurkezten

digute *Euskal Y* proiektua errepide sareko trafikoa arintzeko. Diskurtsoa, finean, betikoa da, porlanaren kultura oinarriztat duen eta betikoen negozioa mantentzeko derrigorrezkoa den garapen zoro hau justifikatzeko moldatuz doana, baina betikoa. Oraingoan makroproyektu honen bultzatzaileak, eta noski, etekinen irabazoleak, Eusko Jaurlaritzan (PNV) eta Madrileko Gobernua (PSOE) dira.

Proiektua guztiz ezkutuan eramaten ari dira, gaur egun, oraindik ere, trazatuaren barruan dauden udalak, eta kaltetuak diren herritarrek ez dute inongo informazioak eskuratu. Instituzio ezberdinak proiektuaren aldeko kanpainak egin eta kontrako mugimendua kriminalizatzearekin batera trabak ipintzen ari dira informazioa eskuratu ahal izateko.

Herri honek duen orografia eta trazatuaren inguruko biztanle dentsitatea kontuan hartuta, begi-bistikoa da kalteak, bai ekologikoak, bai ingurumenekoak, bai sozio-ekonomikoak, konponezinak izango direla:

Mazela osoak moztuko dira, ezpondak, trintxerak, tunelak eta zubiak egingo dira, eta honek suposatzen duen lur eta harrien mugimenduarekin ibarbate osoak betetzea aurreikusten da. Erreka-bideak aldatuko dira, Udalatxeko moduko akuiferoak eta Angiozarreko bezalako bailarak txikituko dira, landa lurrik, larreak eta basoak galduko dira, lur eremu asko apurtu eta zatituko ditu trazatuak, eta honek guztiak eragin zuena izango du gure florak eta faunan eta dagoeneko makalduta dagoen baserritarren ekonomian. Populatuak dauden guneetan ere eragina handia izango da (zaratak...).

Hau guztia gutxi balitz, dena aurrera eramateko derrigorrezkoak dituzte harrobi eta porlandegi berriak, ingurumena oraindik gehiago kaltetuz, eta eragin paisajistiko erraldoi bihurtuz.

Ezin dugu ahaztu, beste alde batetik, horrelako garraiobide batek kontsumitzen duen energia kopuru handia, eta honek suposatuko duena; zentralen produkzioa handitzea, eta ondorioz poluzioa gehitzea.

Euskal Y proiektua Eusko Jaurlaritzak inoiz burutu duen proiekturik handiena da, eta honen kostuak urte askotarako hipoteka suposatuko du, beste arlo batzuetan (hezkuntza, osasungintza,...) egin beharreko inbertsioak kaltetuz.

Hau ez da, inondik inora, jendartea eskatzen duen tren

eredua, ez die herritarren beharrei erantzuten. Tren honek ez ditu herriak elkartzen, banatzan eta differentziak areagotzen baizik, gutxi batzuek erabiltzeko, eta gehiengoaren kalterakoa da. Proiektu honek ez dakar Euskal Herriaren bertebrazioa, erkidegoa soilik kontutan hartzen duelako.

Beste behin instituzioek jendartekoe debatea bahitu dute, ondorio atzera ezinak dakartzen makroproyektu honek hain beharrezko zuen debatea. Ahal izan duten moduan herri kontsultak galarazi dituzte, eta hala ere, kontsultak egin ahal izan direnean ezezkoa borobilan da.

Ezker Abertzalek Abadiadura Handiko Trenaren proiektuaren luzamenduaren beharra aldarrikatzen dugu, jendartekoe eztabaidea zabala burutu ahal izateko, jerry kontsultaren aurre-pauso gisa.

Honegatik guztiagatik bat egiten dugu AHT gelditu! Elkarlana taldeak datorren abenduaren 15erako, arratsaldeko 5:30ean, Arrasaten deitu duen manifestazioarekin, eta herritarrei bertara joateko deia luzatzen diegu.

Pixkanaka aurrera

Javier Martínez Aznal
Bergara

Datorren astelehenean nafarrok data garrantzitsua daukagu. Ez da bakarrik San Francisco Javier eguna izango, baita Euskararen Eguna ere. Nik ez dut festarik izango, Bergaran bizi bainaiz, baina ez zait importa, Euskararen Eguna da eta.

Niretzat, oso importanteak dira biak, baina nafar batzuentzat bigarrena soberan dago.

Duela bi urte nire herritik hona etorri nintzen, eta ez nuen aldaketa handirik sumatu, hemen etxeen bezala bainago. Bi herriak ez dira hain desberdinak, euskaragatik izango ez balitz. Nire herrian ez da euskaraz hitz egiten, Erriberan dago; hala ere, batzuetan entzuten da kalean, euskara talde bat esker.

Orain dela hamar urte, lehenengo aldiz, gure herriean euskara ikasteko aukera izan genuen, IKA euskara taldeari esker. Hasieran, hamabost bat lagunek parte hartu genuen, baina denborarekin talde hori txikitzen joan zen. Hau guztia ikusita, eta euskara zabaltzeko asmoarekin, euskararen

aldeko talde bat sortu genuen.

Urtero aste kultural bat antolatzen dugu, herriko jaietan txosna bat ipintzen dugu, euskararen alde lan egiten dugu. Jendea, gazteak batez ere, gure taldean parte hartzeko helburuarekin apuntatzen da, baina ahalegin handia egin behar dela ikusten dute eta, azkenean, taldea uzten dute. Inork ez zuen esan erraza izango zenik.

Guk, hasieran, txosna ipini genuenean, denetik jasan behar izan genuen: sabotajeak, mehatxuak... baina euskara gure bihotzean dago eta ez gara geldi geratuko.

Hori dela eta, guretzat Euskararen Egunak balio handia du.

Badirudi, gaur egun, herriko jendeak gurekiko jarrera hobetu duela, ez dute saikera handirik egiten euskararen aurrean, baina ez gaitzute lehen bezain gaizki ikusten.

Zorionez, Erribera inguru euskara aurrera doa eta gero eta euskara talde gehiago sortzen ari dira.

Gure herriko eskolan, esaterako, bertara joaten diren ume gehienek aukeratzen dute euskara ikasgaitzat. Nafar batzuei hori ez zaie gustatuko, baina euskara Nafarroan pixkanaka aurrera doa, eta gu poztzen gara.

Hona etorri nintzenean beldurra ematen zidan euskara hitz egiteak, baina gero konturatzen nintzen Nafarroan beti kexaka aritzen nintzela, han ezin genuelako euskara hitz egin, eta, hemen, aukera nuenez, hitz egiteko momentu ona zela. Orduan, beldurra eta lotsa kentzea erabaki nuen. Orain, hanka sartzen badut, ez zait importa; euskara hitz egitea da importanteena. Euskaldun berri nafar askori gauza bera gertatzen zaie, baina euskaldun zaharrek lagundu egin behar digne lotsa eta beldurra kentzen, denok batera gure altxorra babesteko, behin ikasi eta gero inork ez digu-eta burutik kenduko.

ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENKARIAn, 310. zenbakian, *Herriak* sailaren azaleko albistearen huts bat egin genuen. Hain justu ere, ibarreko udalek aurtengo Gabonetan kalean argiak ipintzeko gastatuko duten diru kopuruaren gaineko albistearen, Antzuolak Gaboneta-ko argitan 6.000 euro gastatuko dituela argitaratu genuen. Datu oke-rra da. Antzuolako Udalak argindarraren kostua besterik ez du gasta-tuko. Udaletxeko balkoian besterikez due argiak jarriko Gabonetan.





Kutxa Aurreikuspen-Planak, Kutxa eta Kurxa Bi BGAEri arikaita daude.

ZAINDU ZAITEZ BIHARKO. (DIRUA DAGOENEKO BERMATUTA DAUKAZU).

Sasoi betean sar zaitez biharko egunean, zure dirua bezain sasoitsu. **Kutxa Aurreikuspen Plan Bermatuekin**, nekerik gabe aurreztuko duzu, eta errentagarritasun itxurosoa, hainbat abantaila fiskal eta, batez ere, diru-kezkarik gabeko etorkizuna gozatuko dituzu.

bermatuak

Kutxa Aurreikuspen Plan
Etorkizuna ziur.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

Abendua

1-15ERAKUSKETA "TACI
ARRASATETIK ARRASATERA"

Kulturaten

21

Ostirala

PELOTA PARTIDUAKSantamas komisiōarekin eta Udalarekin
elkarlanean

Uarkapen, 22:00

Saralegi - Mendizabal II
Arretxe I - IzaOlaizola I - Otxandorena
Bengoetxea VI - Beguino

Urtarrila

2.3.4.5GABONETAKO UMEEN
JOLAS PARKEA

Txatxilipundi elkarrekin elkarlanean

Kiroldegin

12

Larunbata

MIKEL URDANGARINUdaleko Kultura eta Gazte Bulegoarekin
elkarlanean

Amaia Udal antzokian, 20:00

Otsaila

23

Larunbata

MIARRITZEKO BALLETA

Udaleko Kultura sailarekin elkarlanean

Amaia antzokian, 19:30

"Mozart Ballets" obra

Guztiok ereindako hazia

Fagor Arrasate da emaitza.

Guztioan artean ereindako haziaren fruitu emankorrena.

Herritik sortua eta Mondragoena errotua.

50 urte bete ditugu eta urteurrenaren ospakizunetan
murgildurik, herriko hainbat talderekin eta Arrasateko
Udalarekin elkarlanean ondorengo ekitaldiak antolatu
ditugu.Guztioan lanaren eta ulermenaren ondorioa garelako eta
guztiokin ospatu nahi dugulako.

Eskerrik asko.



Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> ARRASATE

Agerre-Santa
Teresa gunea
eraberritzeko
lehen fasea > **18**

> BERGARA

Sirimiri tabernak
eskuratu du lehen
saria pintxo
lehiaketan > **25**

> ELGETA

Gabonen aurretek
arrandegia
zabaltzeko asmoa
agertu dute > **37**

> LEINTZ GATZAGA

Soran etxea
ostatu bihurtzeko
lanak martxa
onean doaz > **39**

ANTZUOLA > DIPUTATUA HERRIAN IZAN DA

Alkatea eta diputatua pozik azaldu dira abiarazi duten elkarlanarekin

PROIEKTUAK Herriko
proiektu eta asmoen
berri eman zioten
Udaleko arduradunek

UDALBATZAREKIN
Egurdian elkartu zen
udalbatza osatzen
duten zinegotzi
guztiekin

HERRIRIK HERRI
Gipuzkoako herri
guztiak bisitatuko
ditu Olanok

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA
Atzo, eguna, Antzuolan egon
zen Markel Olan, Gipuzkoako
ahaldun nagusia. Goizean,
10:30ak aldera iritsi zen Herriko
Plazara. Hantxe zituen zain Uda-
leko ordezkariak, berarekin
batzarra egiteko: Pedro Iturbe,
alkatea; Mamen Jauregi, Gizar-
te Ongizateko batzordeko ardu-
raduna; Juanlu Aranburu, Kirol
eta Gazteria batzordeko teknika-
ria; eta Valen Moñux, aparejado-
rea, hain zuzen ere.

HERRIZ HERRI, GIPUZKOA OSOAN
Markel Olanok adierazi zuenez,
agintaldi hasieran agindutako
moduan, bere asmoa da Gipuz-
koako herri guztiak bisitatzea,
egitasmo, erronka eta arazoak
bertatik bertara ezagutzeo.
"Alkateek deitzen digute, gurekin
berba egin nahi dutela eskatze-
ko; nik nahiago dut alkateekin
euren herrietan elkartzea, horre-
la, herriak *in situ* ezagutu ahal
izango ditudalako, eta hori oso
interesgarria da". Debagoienean
egiten duen era horretako biga-
rren bisita izan da atzokoa; irai-
lean Oñatin egon zen.

Antzuolaren gainean esan
zuen proiektu oso sendoak ditu-
tela esku artean Udaleko ardu-
radunek, arlo askotan, eta hori
ikustea pozgarria dela: "Antzu-



SAGASTIN Balio askotariko Sagastiko zentroa bisitatu zuten lehendabizi Udaleko ordezkariek eta Markel Olanok.

A.I.

lako agintariak ez daude geldi;
gainera, ikuspegia egokiarekin
dihardute proiektuak bultzatzen", adierazi zuen Olanok.

Pedro Iturbe alkatea ere pozik
azaldu zen, ahaldun nagusiaren
kin batzarra egin eta gero. Horre-
la berba egin zuen: "Herriz herri
bisitak egiteko diputatuak mar-
txan jarri duen egitasmoa oso
positiboa iruditzen zaigu. Gaine-
ra, batzarra oso probetxugarria
izan da; balio izan digu lau urte-
rako plangintza eta elkarlana
zehazten hasteko".

PROIEKTUAK ETA ESKAERAK
Hainbat gairen gainean berba
egin zioten herriko ordezkariek.
Hasteko eta behin, aurreko astean
udalatzak Beasain-Durango
autobiaren gainean hartu zuen
erabakiaren berri eman zioten;

ESANAK

**"Pozgarria da
ikustea Antzuolako
agintariekin esku
artean proiektu
sendoak dituztela"**

Markel Olan > Gipuzkoako
ahaldun nagusia

**"Batzarra oso
probetxugarria izan
da; balio izan digu lau
urterako plangintza
eta elkarlana
zehazten hasteko"**

Pedro Iturbe > Antzuolako alkatea

autobiaren bide-trazadura alda-
tzeko eskatu dio Udalak Diputa-
zioari. Bestalde, autobiako lane-
tan sortzen diren lur soberakinak
Ipurtikara eramateko ere esku-
tu zioten Olanori, hantxe indus-
trialdea garatzeko. Errepideekin
jarraituta, Sagasti auzoaren pare-
an, saihestidean, Diputazioak
egiteko asmoa duen biribilgune-
aren gainean ere jardun zuten;
proiektu horri bultzada emateko
eskatu zioten Udalekoek.

Herriko kirol instalazioen
gainean, Pedro Iturbe alkateak
Olanori adierazi zion, Debagoie-
neko eta inguruko gainerako
herrietako instalazioen aldera-
tuta, Antzuolakoak eskasak eta
kaskarrak direla eta gai horren-
tan ere Diputazioaren laguntza
eskatzeko aprobetxatu zuen atzo-
ko Olanoren bisita.

Sagastiko balio anitzeko zent-
troa izan zen beste gai garrantzi-
tu bat. Hantxe jarriko dituzte
kulturari eta gizarte ongizatea-
ri dagozkion hainbat zerbitzu.
Azkenik, baserrietara ura erama-
teko proiektuaren berri eman
zioten Olanori.

Batzarraren ondoren, udale-
txea atzean laga eta martxan dau-
den proiektuetako lanak ikus-
ten ibili ziren herrian zehar; bes-
teak beste, errepideetako lanak,
Sagastiko zentroa, Telleria etxea
eta frontoia.

Azkenik, egerdian, udalba-
tza osatzen duten zinegotzi guz-
tiekin egin zuen batzarra Olanok.
Horrela, denak ezagutzeko auke-
ra izan zuen eta zinegotziek ere
euren kezkak eta ikuspegiak
diputatuari azaltzeko aprobetxa-
tu zuten batzar hori.

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Egubakoitza, 30	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Zapatura, 1	Etxeberria	Zarugalde 42	943 77 16 30
Domeka, 2	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Astelehenetako 3	Azkoaga	Iturriozt 17	943 79 19 99
Martitzena, 4	Corcera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Eguaztena, 5	Irizar	Erguin 15	943 79 12 39
Eguena, 6	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74

BERGARA

Egubakoitza, 30	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Zapatura, 1	Urritikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Domeka, 2	Urritikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Astelehenetako 3	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Martitzena, 4	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguaztena, 5	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 6	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15

ÖÑATI

Egubakoitza, 30	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Zapatura, 1	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 2	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehenetako 3	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Martitzena, 4	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguaztena, 5	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguena, 6	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16

ARETXABAleta

Egubakoitza, 30	Anitua Arriola	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Zapatura, 1	Anitua Arriola	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Domeka, 2	Anitua Arriola	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Astelehenetako 3	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 4	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 5	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 6	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalatxangokoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIoAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65


DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hildegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza garbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramai.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramai.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

ARAMAIOKO AUTOBUSAK

Arrasate	Aramai	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramai	Arrasate
07:50	08:05	
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezeran deitu: 629 54 59 23

eguraldia**DEBAGOIENEAN****Zapatura, 1**


Abenduko lehen eguna, lainotsu eta motel aurkeztuko zagu. Fronto hotz bat pasatuko da gure lurradetik eta ondorioz, zerua hodeitsu eta euri giroa nagusituko da.

**Domeka, 2**

Giroa hodeitsua domekarko, tartean zaparradak izateko arriskuarekin. Ipar-mendebaldeko haizea. Temperatura maximoak 10 °C-ren bueltan.

EUSKAL HERRIAN

Asteburuan giro txarra izango da nagusi. Zapatuau, arratsaldean zehar, atetzeko jorrera hartuko du eta poliki-poliki hodeiak ere desagertzen joango dira. Mendebaldeko haize bizia ibiliko da, iparmendebaldeko nagusituz. Domekan eguraldiak pixkat bat hobera egingo du.

**TENPERATURAK****MINIMOA**

Domeka, 25

2 °C**MAXIMOA**

Eguena, 22

16 °C**ASTEKO EURIA**(l/m³)**32 L**

Max. Min. Euría

Eguaztena, 21 16 °C 6 °C - l/m³

kale inuesta

Arazorik baduzu eguneko 24 orduak euskaraz bizi izateko?



Domingo Lopez
Erretiratua
Aramaio



Kontxi Kortabarria
Langilea
Aramaio



Nora Altuna
Langilea
Aramaio



Maite Arana
Langilea
Aramaio



Edurne Uribarren-Iturrieta
Langilea
Aramaio

Ez daukat inongo arazorik. Gainera, ni erdaraz baino hobeto moldatzentzen naiz euskaraz. Herritar guztiekin egiten dut, gainera euskaraz, eta norbaitek ez badaki, orduan erdaraz egiten dut.

Herrian denekin egiten dut euskaraz. Aramaion gehienek euskaraz dakte. Gainera, ni baserrian bizi naizenez, kalera gutxitxan jaisten naiz. Baina egoten naizen lekuetan, euskaraz egiten da.

Arazoa daukat euskaraz egin behar dudanean. Umeekin errazago egiten dut, jende nagusiarekin erdarara errazago jotzen dut, eta lagun taldearekin askotan erdaraz egiten dugu, euskaraz jakinda.

Elkarrizketa normal bat ez. Gai batzuetai bai, adibidez umeezin ari naizenean, baina nagusiekin ez. Dena euskaraz euskaldun zaharrek egiten dute, eta niri asko kostatzen zait.

txaloak



GOIENKARIA

Otarorako kale berriztatua zabalik



Joan den astean zabaldu zuten Aretxabaletako Otarora kalea. Hilabete asko iraun dute hango lanek eta hauts handia atera dute, eta horrek auzokideen haserrea sortu du. Azkenean, bada, zabaldu dute eta noranzko bakarrekoa izango da: Arrasatetik Aretxabaletara doazendako, hain zuzen ere. Lore politez apaindu dute eta kaleari itxura politagoa eman diote.

asteko datua

9.000

Hori da Juan Izuzkiza bergararrak irabazi duen euro kopurua Juan Zelaia VII. saiakera sarian. Saiakeraren titulua *Paranoiren hozberoa* (*Nintendo*) da, eta datoren otsailean ikusiko du argia.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

5 galdera...

Malu Pardo

Larrigan autoescola
Aretxabaleta

1. Spainiako zirkulazio zuzendaritzak abenduaren 6tik aurrera arauak betetzen ez dituzten gidarien-tzako zigorrak gogortu egingo ditu. Zer iruditzen zaizu neurria?

Aurrekoak baino astunagriagoa iruditzen zait. Arau-urratze asko egiten dira, ez da ezer errespetatzen. Gidatzeko baime-na kendu arren, jendeari ez zaio axola. Poltsikoan min egiten du isun handia ordaintzeko orduan, baina azkar ahazten da. Adminis-trazio bidea oso geldoa da.

2. Neurri horiek balioko dute gertatzen diren istripuak gutxitze?ko?

Gidariak ez badira kontzi-en-tzatzen, jai dago. Neurriak gogortzen badituzte, jendea errespetatzen hasiko da. Auto-eskolara gidabaimena ateratzen datozenei beldurra ematen die arauak ez betetzearen kartze-lara joatearen kontuak. Istri-puak oraindik ere asko dira, eta jendea horretaz kontzi-en-tzia-tea da kontua.

3. Debagoienean jendeak errespetatzen al ditu arauak?

Penagarria da. Debagoieneko gidarieki ez dituzte arauak erres-petatzen. Behin eta berriro arauak errespetatzen dituena harrapatu beharrean, arau-urratze txiki bat egin duenari sekula-koko isuna ipintzen diote. Bestal-de, esan beharra dago hemengo erre-pideak orokorrean nahiko eskasak direla.

4. Halako neurriek ez al dute kontrako efektu-rik sortuko?

Ez dut uste. Gidarieki ikusten badute benetan ipinitako neurri berriak aurrera eramatzen dire-la eta isunak gogortzen direla, jendeak errespetatu egingo ditu.

5. Neurri horiek ez al dira izango Estatuaren diru kutzak betetzeko?

Dirua lortzeko badaude bes-te bide batzuk. Nire ustez, hau guztia jendeak egiten dituen arau-urratzeak ekiditeko egiten da, eta ea horrela zerbaiz lortzen den.



OBRAK > AGERRE-SANTA TERESA

Agerre-Santa Teresa gunea eraberritzeko lehen fasea

Galizia kaleko aparkalekutik hasi eta Santa Teresako ikastolara arteko zatia egingo dute orain

Besteak beste, lehen aldiz "pareta berde" bat eraikiko dute

UBANE MADERA > ARRASATE
Agerre-Santa Teresa hirigunea berriro urbanizatu eta eraberritzeko proiekta lantzen dabil Arrasateko Udalak.

Lan horiek lau zatitan egingo dituzte: Galizia kaletik Santa Teresa ikastolarainoko zatia eraberritu du lehenengo; Agerre dagokiona onoren; Doneztebe Portuko gero; eta azkenik, Santa Teresa.

Orain, lehen zatiarekin hasiko dira, Galizia kaletik hasi eta Santa Teresako ikastolaraino doan zatiarekin, hain zuzen ere.

UDABERRI INGURUAN HASI
Hori bai, lehenengo eta behin, zati horretako obren gaineko proiektua eta aurrekontua egokitutu egin behar ditu Udalak (urtarrilla bukaerara arteko epea utzi du proiektuak aurkezten). Injelar enpresa arduratuko da horrekin. Eta gero, proiekta bera adjudikatu egin beharko du.

Labur esanda, horrek esan gura du udaberrian, "maiatzekain inguruan hasiko direla obrak"; hala adierazi du Izaro Agirrek, Hirigintza Saileko obra teknikariak.

Egin behar dituzten lanei dagokienez, berriz, askotarikoak izango dira.

ESPAZOI BERRIA

Adibidez, Galizia kaleko aparkalekutik hasi eta Santa Teresako ikastolarainoko errepide zatia egokitutu egingo dute.

Batetik, zoruan dauden galzada-harriak kendu eta haien lekuak zolatu egingo dute erreidea. Eta bestetik, zati horretan bi metroko espaloia sortu gura du Udalak, "oinezkoak babesteko". Hain zuzen ere, Santa Teresako ikastolatik aurrera dagoen espaloia eraberritzeko lotuko dute berria.

"PARETA BERDEA"

Espaloia egin ahal izateko, baina, ondoko berdeguneari zatia kendu beharko diote. Horrez gainera, pareta bat eraiki beharko dute, baina ez da edozein motako pareta izango hura: "Pareta berde bat egingo dugu, lurra-



PARKINGA Gaur egungo aparkalekuak (lehengo bolatokian) parkinga eraikitzea posible ikusten du Udalak.

U.M.

DATU OROKORRAK**Auzoa eraberritzea eta urbanizatzea**

Oro har, Agerre-Santa Teresa hirigune osoa eraberritu eta berriro urbanizatu gura du Udalak: "Orain dagoena hobetu gura dugu; ezin izango da espazio berririk sortu, parke edo berdegunerik, adibidez, dagoena berritu gura dugu", adierazi du Izaro Agirrek, Obra Saileko udal teknikariak. Hark kontatu du lau fasetan egingo dituztela lanak. Orain abiarazi duten prozesua lehen faseko lanen gainekoa da: Galizia-Santa Teresa. Gainerako hiru fasetan honako guneak eraberritzeko dituzte: Agerre, Doneztebe Portuko eta Santa Teresa. Han inguruko irisgarritasun baldintzak hobetu, oro har, eskailerak aldatu eta espaloia handitu bi metroraino. Horrez gainera, azpiegiturak (ura, saneamendua, argindarra...) berritu egingo dituzte, ikusten dituzten premien arabera. Behin obra horiek bukatuta, udalerriko gainerako auzoen artean, Santa Marina-Hondarribia hirigunea eraberritzea bakarrik litzateke.

rekin eta geostilekin egindakoa. Han dagoen berdegunea ukitu egin beharko dugunez, inpaktu hori murrizteko", aditzera eman du Agirre teknikariak. Pareta berezi hori "berde geratzen da eta, gainera, gero begetatu egin daiteke, landarez hornitu", azaldu du udal teknikariak. Eta hauxe ere gaineratu du: "Arrasaten halako zerbaite erabiltzen den lehen aldia izango da, proba moduan erabi-

liko dugu. Autobideetan eta hala-ko lekuetan egoten dira halako paretak". Bestalde, obra hori egin ahal izateko, oinezko zumardiarekin lotzeko dauden inguruko eskailerak eta arrapalak egokitutu egin beharko dituzte.

IBERDROLAREN HARRIA LURPERATU
Errepide inguruan egin beharreko obra horiez gainera, bestelakoak ere egingo dituzte: "Galizia

kalearen barruko aldeetara sartzeko guneetan irisgarritasun baldintzak hobetu gura ditugu, Galizia eta Agerre kaleen artean dauden desnibelak egokitutu", kontatu du Agirrek.

Horrekin batera, besteak beste, euri urak batzeko saneamendu sistema berria ipiniko dute. Halaber, Iberdrolaren argindar harria, Agerre kaletik Galizia kaleko transformadoreraino doan harria lurperatu egingo dute.

APARKALEKUA EGITEKO AZTERKETA

Oro har, Agerre-Santa Teresa eraberritzeko, baina, hainbat aparkaleku kendu egin beharko dituzte. Horren alternatiba moduan udal taldeak eskaera egin du azter dezaten ea auzoan gaur egun dagoen aparkaleku (lehengo bolatokian) parking bat eraikitzea, bizilagunek plazak erosteko interesik izango luketen. Izan ere, Udalak posible ikusten du gune horretan bi solairuko aparkaleku bat eraikitzea.

Ideia jasota dute Hirigintza Sailean, orain hura garatzea falta zaie, hau da, bizilagunen artean azterketa egitea.

ZERBITZUAK

Hilerriko hainbat gorpuzki, ateratzear

1997ko bigarren seihiokoan lurperatutakoak aterako dituzte

U.M. > ARRASATE
Arrasateko Udalak hartutako erabaki bi argitaratu ditu astean Gipuzkoako Buletinak. Haren arabera, batetik, San Kristobal hilerriko hainbat gorpuzki ateratzen hasiko dira urtarrilean. Hain zuzen ere, San Kristobaleko hilerriko nitxoetan 1997ko bigarrengoei seihilekoan lurperatutako hildakoen gorpuzkiak ateratzen hasiko dira 2008ko urtarrilaren 15etik aurrera.

ABENDUAREN 31
Hori horrela, nitxo horietatik atera behar dituzten gorpuzkiekin zer egin 2007ko abenduaren 31rako adierazi beharko zaio Udalari; bestela, gorpuzki horiek hilerriaren hezurtegi komunean utziko dituztela jakinarazi du Udalak.

SANEAMENDU ZERGAK
Bestetik, Gipuzkoako Buletinean astean jakinarazi dute, baita ere, 2007ko 3. hiruhilabeteko edateko ura hornitzeko eta saneamendu zerbitzuen tasaren ordainagiriak ordaintzeko borondatezko epea zabaldutu dutela. Hain zuzen ere, joan den azaroaren 19an zabaldutu zuten eta urtarrilaren 19ra arte izango da zabalik.

Tasa horiek ordaintzeko borondatezko epe hori buktzean ordaindu barik dauden zergak gaintzargarekin kobraztuko ditu Udalak.

> OBRAK

Monterron pareko zebrabidea altxatu egingo dute

Arrasateko Udaleko tokiko gobernu batzarrak oraingo astean onartu du Monterron jauregiaren parean zebrabidea altxatzeko obrak egiteko proiekta, gidariek oinezkoak hobeto ikus ditzaten. Obra horren barrian, inguruko espaloia egingo dute.

Ia 17.000 euroko inbertsioa egingo du Udalak obra horretan. Obra Sailek esandakoaren arabera, lanak ahalik eta lasterren hastea da Udalaren helburua.

GIZARTEA > EZKONTZA ZIBILAK

Ezkontza zibiletarako baimena eskatzeko epea egokitu egin dute

Ezkontza eguna kontuan hartuta, 12 hilabeteko aurrerapenarekin egin ahal izango da ezkontza eskabidea

UBANE MADERA > ARRASATE
Udalak ohar baten bitarte ezkontza zibilekin lotutako bi berritasunen berri eman gura die herriarrei; laster indarrean sartuko diren berritasun biren berri.

Batetik, jakinarazi du hemendik aurrera alkatzetan barik, Biztanleen Arreta Zerbitzuan egin beharko dutela ezkontza eskabidea.

Bestetik, jakinarazi du, ezkontza eguna kontuan hartuta, gehienez jota 12 hilabeteko aurrerapenarekin egin ahal izango dela ezkontza eskabide hori.

Horri dagokionez, orain arte eskabidea egin ahal zen bakarrak urte naturalaren barruan, hau da, urtea hasten zenetik, urtarriletik aurrera, urte horretako eskaera egin behar izaten ziren. Baino horrek arazoak eragiten zituen, adibidez, urtarrilean bertan edo

otsailean ezkondu gura zuten bikoteen artean, ez zuten astirik izaten-eta, eskabidea garaiz aurkezteko. Horrexegatik erabaki du Udalak urtebeteko epea uztea, baina ezkontza dataren arabera, eta ez urte naturalaren arabera.

Bestalde, Udalak jakinarazi du, eskabidea aurkezteko ezkontideen eta lekukoen nortasun agiriak ere aurkeztu behar direla. Halaber, gogorarazi du ezkontza espedientea Erregistro Zibilean (Bake Epaitegian) tramtatu behar dela eta ezingo dela ezkontzarik ospatu baldin eta horren tramitazioa bukatuta ez badago.



MIREN ARREGI

POLITIKA > PRESO POLITIKOAK

Bigarren eskuko jantzi eta osagarrien azoka, preso politikoek aldeko ekimenak gauzatzeko

Material asko batu dute, baina gehiago eramanet gero, onartuko dute; Iluntz edo Irati tabernara eraman behar da

U.M. > ARRASATE
 Beste urte batez, eta Gabonak geraturaz direla aprobetxatuta, bigarren eskuko jantzi eta osagarrien azoka antolatu du Portaloira Topaguneak. Preso politikoek aldeko elkartea horrek abenduaren 15-16ko asteburuan egingo du azoka, 11:00etatik 20:00ak bitartean.

Batutako dirua erabiliko dute euskal preso politikoek aldeko ekimenak gauzatzeko. Horrez gainera, azokaren bitartez presoen eskubideak ere aldarrikatu gura dituzte; hau da, gaixo dauzen presoak aske uztea; zigorren hiru laurdenak beteta dituztenak aske uztea eta oro har, euskal preso politikoak Euskal Herriratzea.



AZOKA lazko azokara material ugari eraman zuten herritarrek. PORTALOIRA TOPAGUNEA

ORAINDIK ERAMAN DAITEKE

Portaloira Topagunetik jakinarazi dute dagoeneko material dezenete batu dutela. Edozelan ere, gehiago eramanet gero, oraindik onartuko dutela ere gaineratute. Iluntz edo Irati tabernetara eraman behar da materiala, 12:00etatik aurrera; esandako

moduan, jantziak eta osagarriak (gerrikoak, poltsak, zapiak...) eraman behar dira, eta oinetakoak ere onartzen dituzte; hori bai, guztia egoera onean badago.

Batutako materiala oso prezio merkean salduko dutela iragarri dute, asko jota 10-15 euroren truke.

Abaroako nagusiei omenaldia

Abaroako bazkide nagusiek omenaldia jaso zuten eguztenean; esker on xumea adierazi zieten eurek gizarteari emandako eskertzeko. Bestelako artean, Ino Galparsoro alkatea eta Ander Rodriguez Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia izan ziren ekitaldian. Nagusie dagokienez, 90 bazkide zeuden deitura eta 37k hartu zuten oparia.

> OBRAK

Adjudikatu dute Santa Barbara parkean argiteria hobetzeko proiektua

Santa Barbara parkearekin lotutako proiektua oraingo asteko tokiko gobernu batzarrean adjudikatu dute, Hain zuzen ere, ziburu-zaburuak dauden jolasuneko eta Santa Barbara parke barruko bidetxoko argiteria hobetu eta handitu egin gura du Arrasateko Udalak.

Hori horrela, tokiko gobernu batzarrean erabaki zuten Urondo enpresari adjudikatzea argiztapena hobetzeko lan horiek. 30.600 euro pasatxo inbertituko ditu Udalak farola berriak ipintzen. Eta lanak ahalik eta lasterren bukatuko dituztela iragarrí dute, izan ere, gura dute Gabonetarako guztia txukunduta utzi. Ondorioz, bi hilabeteko epe-muga zehaztu dute.

> ELKARTASUNA

Datorren astean dira bigarren eskuko jostailuak eramateko azkeneko hitzorduak

Aurtengo Jostailuen Truke Merkaturako jostailuak batzen jarraituko du Txatxilipurdi elkartea datorren astean. Hain zuzen ere, azkeneko hitzorduak izango dira. Kasu horretan, Okendoko ludotekan da hitzordua. Jostailuak eraman behar dira arratsaldean, 17:00etatik 19:00ak bitartean. Jostailua eramatzen duenari, txartel bat emango diote trukean. Gero, txartel hori erabili beharko du trukatu eta haren partez jostailu bat hartzeko. Jostailuen Truke Merkatua abenduaren 15ean eta 16an egingo dute.

Metal aroztegia eta PVC

Leihoa eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoa

Ateak

Armairu enpotratuak

Armairu-fronteak

Mota guztiako zoruak

Lixatua eta bernizatua


Osagariak

Neurrira egindako alfonbrak

Gortinak, mahaiak eta aulkiaik



Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua



Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

Igor de Quadra > Antzezlea

"Taula gainean aktore bakarra naiz, baina erabiltzen ditudan objektuek bizia hartzen dute"

A. ARANBURUZABALA > ARRASATE
Debagoieneko euskara elkarrekin antolatutako I. Kultur Zirkuituaren barruan, Igor de Quadra Bilboko aktoreak *Methology* antzezlan egingo du gaur, egubakoitza, Kulturaren, 22:30ean. Publiko guztientzat da.

Methology antzezlan kurioso moduan iragarri dute. Zergatik da kuriosoa?

Hainbat teknika edo hizkuntza eszeniko lantzen dituen antzezlan da; hau da, mimo edo keinu zatiak daude, eta baita berba egindako zatiak ere. Horrez gain, objektuak eta soinuak ere erabiltzen ditut.

Zer kontatzen duzu?

Aktore baten bidaia surrealistika eta absurdoa azaltzen dut, *Nor naiz ni?* galdera korapilatsuarri erantzun nahian, errealtitate eta ametsaren tartean kokatuz. Aktorearen eta pertsonaiaren arteko harreman eskizofrenikoa da.

Kontu serioa dirudi.

Ez, horixe! Umorearekin jolasten dut. Barre egingo duzuelakoan nago.

Nori gomendatuko zenioke?

Publiko guztientzako aproposa dela esango nuke. Oso ikusleria ezberdinaren aurrean antzezta izan dudan lana da, baina haurren aurrean ere. Gaiak helduendako badirudi ere, nork bere erara ulertzen du, oso bisuala/ikusgarria da-eta.

Taularen gainean bakarrik izango zara.


Bai, hezur-haragizko aktore bakarra naiz, baina inguruan objektu asko ditut, horien artean telebista bat eta nire antza duen paperezko panpina bat. Bizia hartzen dutela esan daiteke.

Publikoarekin ere jolasten duzu.

Bai, publikoarekin komunikatzen saiatzen naiz. Modu ezberdinaren hitz egiten diot: batzuetan zuzenean hitz egiten diot eta beste batzuetan, berriz, erabiltzen ditudan objektuen bitartez.

Egun Bilbon, baina urtetan Londresen bizi izandakoa zara.

Bai, hamar urtean bizi izan nintzen Londresen. Han hasi nuen aktore ibilbidea. Hemen



Igor de Quadra antzezlea *Methology* lanaren irudi baten.

IGOR DE QUADRA

aurrez ikastaro batzuk eginda nituen arren, Londresen egin nituen lehen antzerki ikasketa serioak, Paristik joandako International School Mime-n, hain zuzen ere.

Eskolako Ange Fou konpainian egin zenuen lan.

Bai, horrela da; konpainian antzezten eta eskolan eskolak ematen ere jardun nuen sei bat urtean. Ondoren, Belgikako neska batekin Falsa Imago konpa-

nia sortu nuen. Edinburgoko Fringe jaialdi ezagunean izan ginene eta, horrez gainera, Belgikako Pinokio Prize saria eskuratu genuen.

Egun zer duzu esku artean?

Antzerki eskolak ematen ditut Bilboko Kukutxa gaztetxeen. Horrez gain, eskultore batekin ikuskizun bat prestatzen ari naiz. Zoritzarrez, baina, antzerkiak ez dit jateko nahikorik ematen, eta beste ogibide bat ere badut.

MUSIKA > IZASKUN MURGIA LIRIKA ELKARTEAREN 'EL DÚO DE LA AFRICANA' ZARZUELA

Aurtengo zarzuelaren azken bi emanaldiak

Lirika elkarrekin 'El dúo de la africana' zarzuelaren azken emanaldiak egingo ditu gaur 20:00etan eta bihar 19:30ean, Amaia antzokian

na zuzendariak ere bide beretik erantzun du: "Oso pozik nago, oso kritika onak egin dizkigute-eta. Taula gainetik barre algara handiak entzuten ziren, domekan bereziki".

Gaur eta bihar egingo dituzten bi emanaldiak ere harrera ona izango dutela erakusten du sarre-salmentak; dagoeneko ia guztiak agorturik daude.

ZARZUELA BARREGARRIA

El dúo de la africana-k antzerkia antzerkiaren barruan, aspaldiko topikoa jasotzen du, opera zarzuelaren barruan kasu horretan. Querubini opera zuzendari mizkinaren taldeak Meyerbeerren *Africana* lana egiteko dituen zailtasunak dira istorioaren abiatantu, baina tartean istorio asko nahastuko dira; besteak beste, amodiozkoak.

Elkarrekin egin duen zortziganen zarzuela da. Gonzalezen esanetan, orain arte egindakoekin



'EL DÚO DE LA AFRICANA' Zarzuelaren une bat.

JOSETXO ARANTZABAL

alderatzu berritasun asko ditu: batetik, protagonistei dagokienez, batzuek lehenengo aldiz izan dute-eta horren ardura; istorio-

ari dagokionez, berriz, oraingean komikotasuna ez du pertsonaia batek ekartzen, egoera bera da oso-osorik barregarria.

MUSIKA

Asteburuko 3.60 aretoko musika emanaldiak

Punk kontzertua izango da gaur; bihar, berriz, elektro DJ saioa

A.ARANBURUZALA> ARRASATE

Aste bukaera honetan ere askotariko estiloentzako lekua izango da 3.60 aretoan. Gaur, egubakoitza, hiru punk talderen kontzertua izango da; horien artean, Londresko The Restarts taldea; bihar, berriz, Lalas disko jartzalearen emanaldia izango da.

PUNK KONTZERTUA

80ko hamarkadan Londresen jaiotako The Restarts taldea izango da gaur 3.60 aretoan egingo den punk kontzertuan parte hartuko duen taldeetariko bat. Bederatzi lan argitaratuta eta taula gainean eskarmen handia duen taldea da. Europa, AEB eta Kanadan egindako biren ostean, Euskal Herrian dira orain, kaleratu berri duten *Outsider* diskoarekin. Londreskoak punk filosofiaren ikur dira; horren erakusle, besteak beste, kantuetako mezuak dira.

Gasteizko Akrata eta Madrilgo Trayuka taldeak ere izango dira, 22:30ean hasiko den kontzertuan. 90eko hamarkada erdialdean sortutako Akratak 2002. urtean kaleratu zuen lehen lana; 2004ean, berriz, Subversion X taldearekin batera Gasteizko gaztetxean grabatutako zuzenekoa aurkeztu zuten. Eta 2006. urtean jaio zen hirugarren lana.

Kide aldaketa askoren ostean, 2005ean hasi ziren gogor entseatzen gaurko emanaldiko hirugarrenak: Madrilgo Trayuka. Disko bat dute kalean.

Gaurko hitzorduaz gain, bihar, goizaldeko lauretan musika elektronikoz gozatzeko aukera egongo da DJ Lalasen eskutik.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

ANTROPOLOGIA IKERKETA: EUSKALDUNAK ZORATUTA DAUDE!

Ezinezkoa da. Alperrik da, ez dago hori ulertuko duenik. Praktikan jarri ditut Leipzigeko unibertsitatean ikasitakoak, Malinowskiren teoriak, Levi-Straussen ideiak, Pello Zabalaren temporak. San Agustin bera fedegabetuko luke ikerketa honek. Aita Barandiaranek, txapela jaurti eta hip-hop a besteari ekingo lioke.

Esango duzue bada, zerk desesperatzen nauen. Zerk ateratzen nauen nire onetik. O gibidez antropologoa nauzue eta nire doktoretza tesia euskaldunen hizkuntza ohiturei buruz egitea erabaki nuen. Sinpatikoak egiten zitzazkidan, Europako azken indigenak diote. Europako lehen zoroak gehituko nuke nik.

Afrikara joan ninteen, Asiria hobeto, baina Arrasate izeneko leku baten amaitu nuen. Mondragón. Hasiera baten uste nuen euskaldunek euskaraz egiten zutela. Euskaraz-dun ez? Ba hemen unibertssoa bera baino konplexuagoa den errealtitate bat dago.

Noiz hitz egiten du euskaldunak euskaraz? Norekin hitz egiten du euskaldunak euskaraz? Goenkale noiz amaituko den jakitea baino zailagoa da horri erantzutea. Zaldibarreko biribilguneari buelta ematea baino konplikatuagoa.

Hasiera batean uste nuen euskarra haurrekin eta txakurrekin egiten zela soilik. Datu hori eskuratu nuen lehen behaketetatik. Dena den, behin batek esan zidan txakur bati euskaraz egiteagatik jaso zuela isun bat behin. Euskaldunen kontraesanak izango dira, batek daki.

Haurrei euskaraz egiten zaie, hauek euskaraz erantzuten dute. Baina, haurrek euren artean erdaraz egiten dute. Hori gutxi balitz, gaztelaniaz hitz egiten duten gurasoek errietatik egiten diete gaztelaniaz egiten duten haurrei.

Euskaraz ikasten duenak, gaztelaniaz egiten du lan. Justizian ez da eskatzen epaileek euskaraz jakitea eta gero hauek euskalduntzen



Arrasate herrian egin dute antropologia ikerketa.

dirua inbertitzen da. Asko behin eta berriz egoten dira justizia gaztelaniaz dagoela eta protestan. Manifestazioak, kanpaldiak eta antzekoak egin ohi dituzte. Baino beste batzuk, euskarazko sententzia, ohar edo lege bat euskaraz irakurtzean kexatu egiten dira euskaldunak izanda ez dute-lako tutik ulertzen.

ETB 1eko pelikuletako itzulpenetaz kexatzen dira euskaldun gehienak, ez omen dago konparaziorik gaztelaniazkoen eta euskarazko bikoizketen artean. Hauek berak, kexatzen

direna berberak, sutan jartzen dira ordea euskara gutxiesten edo mespretxatzen bada. Galdetu bestela, Wall Street Journaleko kazetariari.

Ez dago ez pauta, ez irizpide ez antzeko ezer. Euskaldunen artean noiz egiten den euskaraz eta noiz ez Stephen Hawkinen teoria batek ere ez luke ebatziko. Bi euskaldunek, egun berean, euskaraz hitz dezakete eguraldiari buruz, gaztelaniaz gorrotatu, euskaraz maitatu, gaztelaniaz ogia erosi, euskaraz komentatu errealaaren azkena, gazte-

laniaz hitz egin politikaz. Edo guztia hau nahasturik.

Egunen araberako zerbaiz izan zitekeela ere uste izan nuen bolada batez. Baina azkar konturatutu nintzen, berdin diola astearte izan ala larunbat. Bost axola ostegun edo igande.

Euskaraz hitz egitea debekatzen badiete, sutan jartzen dira euskaldunak. Ehun mila pertsona Egunkariaren itxieraren manifestazioan. Sanz entzun, Nafarroa euskaldun. Manifestazioko leloa euskaraz, jendeak manifestazioan zehar eginiko komen-

tarioak gaztelaniaz.

Baina beno, ez zaituztet komentario hauekin aspertuko. Ongi ezagutzen duzue zein den egoera. Nik nire tesiaren emaitza besterik ez nuen plazaratu nahi, 3 urte luzetako ikerketen fruitua, esaldi bakar batean laburbildu daitekeena: euskaldunak burutik jota daude. Pitzatuta. Erotuta. Zoratuta. Euskaldun sentitu eta erdaraz hitz egiten dute. Herritar batzuk euskaraz hitz egitean batzutan lotsatu egiten dira, beste asko gaztelaniaz hitz egiteagatik gaizki sentitzen dira, errudun. Eta nik, antropologo xume honek, nire buruari galdetzen diot: ez ote litzateke dena errazago euskaraz hitz egingo baluite beti?

Hans Neueshaus
Antropologoa

**"Ez zoratu,
euskarari ebatu!"**



EZ ZORATU, EUSKARARI EBATU!

**Amari euskaraz, anai-arrebei erdaraz, lagunartean euskaraz,
bikotekideari erdaraz, umeei euskaraz, bilobei euskaraz,
zaintzaileari erdaraz, lankideari euskaraz, koinatuari erdaraz,
koinatari erdaraz, okinari euskaraz, medikuari erdaraz,
ertzainari erdaraz, tabernariari euskaraz, egunkaria erdaraz,
diskoak erdaraz, irratia euskaraz, haserrea erdaraz, txistea erdaraz,
pasadizoak euskaraz, epaitegian erdaraz, bankuan euskaraz,
bileretan erdaraz, pelikulak erdaraz, txikiteoan erdaraz, ...**

> ATLETISMOA

**10. Atletiada egingo
dute domekan
Anoetan**

Arrasateko eta Aretxabale-tako atletak Anoetan izango dira domeka goizean, 10. Atletiadan. Alebin, infantil eta kadete mailetako atletek hartuko dute esku, eta egunotan gogor entrenatzen ibili dira Mojategin, podiuma lortzeko. Atleta askok lehenengo aldiz hartuko dute parte laserketa batean; 34 atleta joango dira Anoetara.

> ERRUGBIA

**Arrasateko neskek
Getxo hartuko dute
zapatuan**

Mikel Kerexetak zuzentzen duen taldeak Getxo hartuko du zapatua arratsaldean Mojategin (17:00). Arrasateko neskek beste jardunaldi gogor bat izango dute aurrean. Senior mailako taldeak, berriz, Universitarios taldearen zelaian jokatuko du Bilbon, domeka eguerdian.

Zapatua goizean, berriz, Arrasateko gaztetxoek errugbia izango dute multikirolean.

> PILOTA

**Arrasateko
pilotariek Bergaran
jokatuko dute bihar**

Gipuzkoako txapelketa barruan, Arrasateko taldeko pilotariek Bergaran izango dute bihar arratsaldean hitzordua -16:30ean hasita-.

Arrasateko pilotariek Bergarakoak eta Euskal Jolas taldekoak izango dituzte aurrean, baina ez dira partidu bakanak izango, beste hainbat herriko taldeek ere Bergaran jokatuko dute-eta.

PILOTA > BAQUE SARIA


Bolinaga ez da Baque sariko finalean izango, baina eskura du DVkoia

Eguaztenean jokatu zuen Ibai Bolinagak Baque sariko finalerdia; Jaunarena izan zuen aurrean, eta pilotari leitzarrak 18-8 irabazi zion

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Hain zuzen ere, Jaunarena da Ibai Bolinagak *Diarlo Vasco*-ko Txapelketan duen bikotekidea. Baina eguztenean kontrario izan zuen Baque sariko finalerdiak, eta aurrelari leitzarrak ez zuen barkatu (18-8). Arrasateko taldeko entrenatzaile Mauri Zubillagak partidu aurrelik ere adierazi zuen Bolinaga justu samar dagoela eskuetatik, ez dagoela beste batzuetan bezain indartsu, eta Iurretan bistan geratu zen hori: "Konfiantza barik dabil, eskuetan behar baino traru gehiago ipinita. Min dauka eskuetan, eta partiduan igarri egin zen hori. Jaunarenak 6-7 tanto egin zizkion sakez, eta horrela ezin da irabazi".

Hain zuzen ere, pilotariek adin horietan izaten dituzten partidu kopuruek ez dute lagunten lesio batetik ondo erreku- peratzeko: "Pilotari guztiek dabilta berdin, baina norberak ikasi egin behar du neurria ipintzen, eta dena jokatu beharrean, batzuetan ezetz esaten", adierazi du Zubillagak.



BOLINAGA Arrasateko pilotaria, iazko herri arteko txapelketan.

J.A.

DV-KO FINALA, GERTU

Abenduaren 6an jokatuko dute Jaunarenak eta Bolinagak *Diarlo Vasco* Txapelketako finalerdiak. Partidu horretarako, baina, Zubillaga baikor dago: "Jaunarena oso ondo dabil, eta Bolinagak gauza bat dauka ona: pilotaria

dela. Hau da, sasoiko ez egon arren neurria ematen duela; gutxirekin, asko egiteko gauza dela, alegia. Gainera, oso ezberdina da buruz buru jokatu, edo bikoteka. Buruz buru jokatzerakoan, ondo ez dagoenak ez dauka ezer egiterik".

futbitoa zaldibar

EMAITZAK

Ciprís-Lasagabaster	3-1
THC-Equs	4-1
HLB 108-Iturrioz Tab.	9-7
Abokajarro-Ekaitz Taberna	6-7
Iriztu Taberna-Kalapatxak	6-6
AT Celaya-Bar Kokots	3-4
Cicatrus-Total Disaster	10-3
Saukelu Abian-Betrayer	2-10
McAwen Dauen-Dribling	7-4
Iluntz-Dublin Irish Pub	5-5

PARTIDUAK

Abenduak 1, zapatua	Epaileak
09:00 HLB 108-Kalapatxak	Cicatrus
10:00 Cicatrus-Dribling	HLB 108
11:00 Dublin Irish Pub-Saukelu Ab.	Dribling
12:00 McAwen Dauen-Iluntz	AT Celaya
13:00 Abokajarro-Bar Kokots	Iluntz
16:00 Betrayer-AT Celaya	Equs
17:00 Ciprís-Equs	Total Disaster
18:00 Iriztu Taberna-Total Dis.	Ciprís

Abenduak 2, domeka	Epaileak
10:00 THC-Ekaitz Taberna	Iturrioz Tab.
11:00 Iturrioz Tab.-Lasagabaster	THC
12:00 Dribling-Saukelu Abian	Antolatzai.
13:00 Cicatrus-Bar Kokots	Antolatzai.

SAILKAPENA

	P	J
1. McAwen Dauen	12	4
2. Dublin Irish Pub	10	4
3. Ciprís	9	4
4. THC	9	4
5. Ekaitz Taberna	9	4
6. Iriztu Taberna	8	4
7. Betrayer	7	4
8. Lasagabaster	6	4
9. Dribling	6	4
10. Saukelu Abian	6	4
11. HLB 108	6	4
12. Iluntz	5	4
13. Iturrioz Taberna	4	4
14. Kalapatxak	4	4
15. Abokajarro	3	4
16. AT Celaya	3	4
17. Cicatrus	3	4
18. Equus	3	4
19. Bar Kokots	3	4
20. Total Disaster	0	4

**Kopa hasiko dute
asteburuan**

Ligako norgehiagokekin batera, domekako azken bi partiduak Kopa Txapelke-takoak izango dira, final-hamaseireneta lehenengo partiduak. Guztira zortzi taldeek jokatuko dute aurre-fase hori, lauk domekan eta beste lauk datorren astean.



IÑIGO BIAIN Santutxuarren aurrean (Ocaso Berrio Otxoa), lehian. JOSETXO ARANTZABAL

SASKIBALOA > LEHENENGKO MAILA

MUk azken hiru partiduak irabazi dituen Baskonia izango du aurrean bihar

Denboraldiko lehenengo porrota ahaztu eta Baskoniaren bolada ona eteten ahaleginduko da MU

X.U. > ARRASATE

Joan den astean amaitu zen Mondragon Unibertsitatearen bolada ona. Zazpi partidu irabazi eta gero, Valsay Ardoik zortzigarrenean eman zuen kolpea. Hala ere, porrot horregatik inor ez da behar baino gehiago asaldatu, lehenago edo geroago iritsi behar

zuen-eta MURI aurre egingo zion taldeak. Biar, berriz, Baskonia izango da Iturripen (18:00); gasteiztarrok joan den astean nafarrek erakutsi zutena berrestera datoz, MU ez dela menderaezina. Baina oraingoan etxearen jokatuko du Arrasateko taldeak, eta hor, Kintana, Gamarra, Mallabi eta konpainia are eta indartsuagoak dira.

ADI EGOTEKO ARRAZOIAK

Merinoren aginduetara dauden jokalariek, honezkerro, mesfidantzaz begiratuko diote Baskoniari. Izan ere, gasteiztarrok sailkapenaren erdian egoteak ez du talde horren egungo egoera isla-

tzen. Joan den astean Atletico San Sebastian taldea 79-67 men-dean hartuta batu zuen Baskoniak hirugarren garaipena segi-dan. Bistan da Baskonia ez dela denboraldi hasiera makal hura izan zuen taldea; hala, estropetu egin berri duen taldeak behetik gora datorrena hartuko du. Gainera, TAU Ceramica taldearen entrenatzen den Ander Gartzia bergararra ere izango da Iturripen, Baskoniarekin jokatzen -ikus 40. orria-.

Biharkoarekin batera, Mondragon Unibertsitateak kontrario gogorrak izango ditu Gabonak iritsi artean; lidergoa ez galtzea da helburua.

Kanpotarrak Arrasaten

Evelyn Huenchullan > Txiletarra
Arrasaten bizi da

"Euskaldun kulturarekin asko identifikatzen naiz"

JASONE ZABALA > ARRASATE
Evelyn txiletarra da. Bost urte daramatza Arrasaten bizi izaten, senar Entxo eta alaba Iratirekin. Gure artean oso gustura dagoela esan digu, eta Arrasaten geratzeko asmoa dauka.

Evelyn Txilektik Andorrara jo zuen lehendabizi 2001ean. Han, hainbat jatetxetan lan egin zuen, eta orduan ezagutu zuen Entxo arrasatearra, bere senarra. Hura eta Entxo Andorratik Salou alde-ra joan ziren, eta Saloun urte erdi pasa ondoren Arrasatera bueltatu ziren, Entxoren gurasoen etxera. Hori 2002. urtean izan zen, eta urte hartan bertan bi gauza garrantzitsu gertatu ziren Evelynen bizitzan: alde batetik, gurasoen etxetik irten eta beste etxe batera joan ziren bizi izate- ra eta azaroan Irati alaba jaio zen.

Evelyni hemengo janariagatik galdetuta, hauxe esan digu: "Ez dago alde handirik Txileko eta hemengo janarien artean. Gainera, Aretxabaletako Josu tabernan egiten dut lan, eta hasieran, behintzat, txipiroiak ikusi ere ezin nituen egin, baina dago-

eneko ohitu egin naiz eta asko gustatzen zaizkit. Zopa eta makarroiekin ez dut arazorik izan, Txilen ere jaten direlako, nahiz eta modu ezberdinean gertatu. Jan aldetik esan daitekeen bes-te gauza bat ogiarena da, han kilo-saltzen dela eta hemen ez".

ANTZERAKO PAISAIA

Txileko eta hemengo paisaiak nahiko antzerakoak dira. Evelynen arabera, "Txilen hegoaldea oso berdea da eta euri asko egiten du, eta urtaraoak hobeto naba-ritzen dira".

Kulturari dagokionez, esan, Evelynen abizena, Huenchullan, indigenen abizena dela eta Txilen badagoela Nahuelbuta izene-ko indigenen natura parke bat. Evelynek aipatzen duen beste gauza bat merkataritza-etxeak dira, Txilen ez baitago bat ere ez.

Hizkuntzari helduz, euskaraz ez dakien arren oso identifi-katua sentitzen da hemengo ego-erarekin: "Ni indigena jatorrikoia izanda, ikusten dut Txilen indi- gena izatearen garrantzia gal-tzen ari dela eta errepresioa nahiko handia dela. Hemen, berri- z, jendea harro dago euskalduna



Evelyn Huenchullan, alaba Iratirekin.

"Txileko hegoaldea berdea da, hemengoa bezala, baina urtaraoak hemen baino hobeto nabaritzen dira"

izateaz eta euskaraz hitz egiteaz, eta ni horrekin guztiorekin oso identifikatua sentitzen naiz. Nahiz eta euskaraz ez jakin, alaba Iratirekin euskaraz egin behar dut derrigorrez eta hark ere halaxe egiteko esaten dit. Euskalte-

"Hemen jendea, Txilen ez bezala, harro dago euskalduna izateaz, eta ni horrekin oso identifikatuta nago"

gian apuntatzeko naiz". Familiartekoei dagokienez, Arrasate- ra etorri zenetik bi aldiz egon da Txilen. Hain zuzen, bi anaia eta gurasoak ditu han, eta, faltan sumatzen dituen arren, gustura dago gure artean.

Joan den azaroaren 17an ospatu zuten 1956ko arrasatearrek euren eguna

Urtero egiten duten moduan, aurten ere, 1956. urtean jaiotako arrasatearrek euren eguna ospatu zuten. 70 bat lagun bildu ziren 14:00etan Herriko Plazan. Herriko elizako eskaileretan argazkia atera zuten eta handik bazi-kaltze-ra joan ziren. Bazkaria batzokian izan zuten, eta oso ondo bazi-kaldu eta kontu ugari elkarri konta-tu ondoren, Koldo Gaztañagak bere akordeoi eta abestiekin dan-tzan ipini zituen, arratsaldea eder-ki sartu arte. *Gran Reserva 56* ize-narekin bataiatu zuten lagun tal-dea. Datorren urtean ere aurten bezain ondo pasatzea espero dute guztiak.



FOTO IMAGEN

bere ustez



Jose Riviere

Txartel bakarraren hobekuntza

Gipuzkoako Batzar Nagusiek pauso bat gehiago eman dute Debagoieneko autobus-txartel bakarraren gaian. Otsail-letik aurrera, Lurraldebus garraioetan, egiten den lehen bidaiatik aurrera saritu egingo zaio deskontu txartelaren jabe den edonori. Honetaroko, aurrekontuen onespenen araberako neurri batzuk onartu dituzte.

Pentsio baxuak jasotzen ditutzenei txartela dohainik bideratuko dietela diote, baina ez dute esaten pentsioak

"Pentsio baxuak jasotzen ditutzenei txartela dohainik bideratuko dietela diote"

zenbatekoa izan behar duen, ezta txartelak noiz arte izango duen balioa.

Azertzen ari diren beste kontu bat pentsiodunentzako txartel bereziak ateratzea da. Jakin nahi dut Eusko Trenbideak-en salneurrien beherapenez gozatzen duten pentsiodun eta erretiratuek txartel bakarrean beherapen berberekin jarraitzeko zein formula erabiliko duten. Modu berean, bide honetatik jarraituz jakin nahiko nuke Debagoieneko erretiratua eta pentsionistek Gipuzkoako beste herriekin konparatuz jasaten dugun bidegabekeria ezabatuko duten. Ikusten da, Arabako foru diputatu Arantxa Tapiari ez zaiola batere axola zer gertatzen zaigun. Beste egun batean hitz egingo dugu honetaz.

**((112))
SOS DEIAK**

HEZKUNTZA > ARANZADIREN ETA SAN MARTINEN ARTEKO AUSIA

Ikastetxeen espazioen gaineko ikerketa egitea eskatu dute

Mozio alternatiboa aurrera atera zuten EAEk eta Aralarrek astehenean

Aranzadik Seminarioan dituen espazioen gaineko txostenetako mozionea aurrean, mozio alternatiboa aurrera atera zuten EAEk eta Aralarrek astehenean

EDU MENDIBIL > BERGARA
EAJren eta EAren babesarekin San Martin ikastetxeak aurkeztutako mozionea aurrean, mozio alternatiboa aurrera atera zuten EAEk eta Aralarrek astehenean

Onartutako testuan zera jasotzen da: "Hezkuntza Sailak San Martin, Martinez Irala eta Errege Mintegian Aranzadi ikastolak erabiltzen dituen eta erabili ahal izango dituen espazioen inguruko azterketa teknikoa egingo du". Era berean, "epe motz eta ertainerako irtenbideak lantzeko lan



ASTERO BILKURAK San Martin ikastetxeko irakasleek eta gurasoek azaroaren 17an egindako elkarretaratzea.

GOIENKARIA

mahaia lehenbailehen osatukoa da, Hezkuntza Saila eta eskola biak ordezkatuta izango direlarik. Udal ere ordezkatuta egon liteke". EAJ, EA eta PSE-EE alderdiak zinegotziak abstentitzat egin ziren onartutako testuan. Ausia eskolaratze-arazoa dela jasotzen da bertan.

PLANIFIKAZIOA ESKATUZ

San Martineko Gurasoen Elkarteko Iñaki Arriolarene ustetan, "eskolaratze arazoa baino finantzaketa arazoa da. Ikusteko dago sare pribatuko edo kontzertatuko ikastetxe batek zelan finantzatzen duen lagapenean jasotako eraikinean egin beharreko lanak.

Udalak dirulaguntzak emateko orduan, San Martin kontuan izatea eskatzen dugu. Eta eskolaratze arazoa geuk dugu, gela falta dugulako. Epe luzera soluzioa badugu, 2012an Martinez Irala berreskuratuko dugulako. Bitartean Martinez Irala konpartitzeke planifikazioa egin behar da".

GABONAK > ERAKUSLEHIO LEHIAKETA

Erakusleho lehiaketa: abenduaren 12rako gertu egon beharko dute erakuslehoek

Udalak eta Bedelkarrek deitura, hiru erakuslehorik onenak sarituko dituzte eta bakoitzak 250 euro eta garaikurra eskuratuko ditu

E.M. > BERGARA
Ohikoa denez, Udalak eta Bedelkar dendarien elkartea erakusleho lehiaketa deitu dute Gabonei begira. Bergarako merkatari-tza-establezimendu guztiak

aintzakotzat hartuko dira, aurrez izena eman beharrik gabe. Baldintza bakarra hauxe da: abenduaren 12tik urtarrilaren 7ra bitartean (biak barne) erakusketarako prestatuta egon beharko dute

erakuslehoek. Denda bakoitzak saltzen dituen ohiko artikuluak agertu beharko ditu erakuslehoan eta epaimaihak, besteak beste, publizitate-mezuaren imajinazioa, originaltasuna eta eraginkortasuna izango ditu kontuan.

HIRU SARI

Hiru erakuslehorik onenak sarituko dituzte eta bakoitzak 250 euro eta garaikurra eskuratuko

ditu. Abenduaren 19an emango dituzte aditzera aurtengo saridunak, Udalak kultura etxean, 15:30ean, deitutako prentsurrekoan.

Lehiaketak irauten duen egunetan erakuslehoak argiztatuta edukitzea komeni da. Era berean, erakuslehoak apaintzeko gorosti, goroldio, erratz eta izei naturala ez erabiltea eskatu dute Udalak eta Bedelkarrek.

> HEZKUNTZA
Umeen kantuak eta jolasak lantzeko ikastaroa urtarilean

Udaleko Euskara batzordeak, herriko ikastetxeen laguntzaz, umeen jolasak eta kantuak ikasteko eta ipuin kontaketa lantzeko saioak antolatu ditu.

Ikastaroa 14 orduko da eta euskaraz zein gazteleraez egiteko aukera dago. Irakaslea Ana Carpintero irakasle bergararra izango da. Izena emateko epea abenduaren 14ra arte dago zabalik eta matrikulak 24 euro balio du. %85eko asistentzia dutenei ordaindutakoaren erdia ordainduko zaie. Urtarilean hasiko da ikastaroa. Argibideak Udaleko Euskara zerbitzuan (943 77 91 66).

> ZABORRAK
Puntu Berde
Mugikorra izango da bihar azokan

Hamabostean behin sukaldeko olioa eta bestelako hondakinak jasotzen datorren Mankomunitateko Puntu Berde Mugikorra bihar, zapatua, izango da Oxirondoko azokan, 09:00etatik 13:00etara.

Sukaldeko olio erabiliaz gain, fluoreszenteak, bateriak, toner kartutxoak, erradiografiak, pilak, telefono mugikorrak, termometroak, etxe tresna elektriko txikiak, disolbatzaileak (ontzi itxietan), garbitasun produktuak, pestizidak eta antzerakoak edota aerosol ontziak jasotzen ditu Puntu Berde Mugikorrok.

SANTOS



Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10



ABENDUAK 3 euskararen eguna
pauso pauso... normalkuntzarantz

17:30ean haurrentzat jolasak Munibe plazan

19:00etan ekitaldia Aroztegi aretoan

Amaitzeko, mokadu goxo-goxoa bertaratu zareten guztiontzako

BERBa
Bergarako Euskaltzaleon Bilgunea

GABONAK > ARTISAU FERIA

Artisau feria egingo dute lehenengoz, abenduaren 21etik 24ra Muniben

Herriko giroa suspertzea eta, aldi berean, Gabonetako erosketak, neurri baten behintzat, Bergaran egitea bultzatu nahi dute antolatzaleek

lantzen dituen Inazio Madina-beitiak hartuko dute parte, berregarrei dagokienez. Antzuolako eta Arrasateko artisauak ere etorriko dira eta Gipuzkoatik, Nafarroatik eta Lapurditik ere bai, tartean Larrauleko Carlos Irazu, enborrak erabiliz altzariak egiten dituena. Ferian, zeramika, tai-

la, larrugintza, ehungintza, txotxongiloak, xaboiak, bisuteria lanak eta egurrezko jostailuak izango dira ikusgai.

Abenduaren 24an, artisau produktuekin osatutako saskia zozketatuko dute. Txartelak salgai daude hainbat tabernatan, euro baten truke.



ARTISAUAK Hamaika postu jarriko dituzte Munibe plazan.

ARTXIBOA

EDU MENDIBIL > BERGARA

Artisau feria egingo dute Bergaran abenduaren 21etik 24ra. Inaugurazioa hilaren 21ean 19:00etan izango da, Munibe plazan. Egu-bakoitzetik asteluhenera bitartean hamaika postu jarriko dituzte bertan. Antzuolako Artiloreko Manuela Gheviro dugu antolatzaleetako bat. Haren hitzetan, "Gabonen atarian herria girotzea da kontua, eta feriarekin hauxe lortu nahi da: herritarrek hemen geratzea eta erosketak neurri batean behintzat herrian egitea, merkataritza-etxe handietara joan barik. Udalaren partetik laguntena osoa jaso dugu".

HERRIKO ARTISAUAK

Besteak beste, Angiozarko Eleazar mendiko artisauak, Zilargi tairetrekoek eta makilak egiten dituen Emilio Gutierrezak eta pilotak

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.

Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az gerotzik zure zerbitzura

Ion Murgizu Pinturak
Pintura orokorrean
Fatxadak
Pintura Industriala
Dekorazio Pinturak
Bergara - Soraluze
Tf: 943 75 13 24 - 652777030

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77




KAI BERRI
TABERNA

Musika ona eta giro hobea!

Gosariak
9:00etatik aurrera

Kruz Gallastegi 3 Bergara





LUIS LASKURAIN Luis Laskurain, Bergaran daukan pintura estudioan.

JASONE ZABALA

PINTURA > LUIS LASKURAINEK ERAKUSKETA EGINGO DU MANHATTANEN

Luis Laskurainen lanak, New Yorken ikusgai

Datorren urteko otsailean egongo dira haren koadroak ikusgai New Yorkeko Ezair galerian

JASONE ZABALA > BERGARA

Luis Laskurain bergarar pintoreek datorren otsailean erakusketa egingo du Manhattaneko Ezair galerian. Duela urtebete Madrilen egon zen erakusketa bat egiten eta hango lagun baten bidez aukera hori egokitu zaio: "Aukera ezin hobea da nire lanak

munduan zehar erakusteko, edozeinek ezin dezake egin halakorik, eta horregatik zorte oneko sentitzen naiz". Erakusketa otsail guztian zehar egongo da zabalik. Oraindik ez daki zehazki zenbat koadro eramango dituen berta, baina 6 eta 12 artean egon daiteke. Natura hilak erakutsiko

ditu, kolore eta konposizio askotarikoak; izan ere, klasikotasunetik ihes egin nahi du Laskurainek horrekin.

BESTE ERAKUSKETA BATZUK

Aurretik, baina, beste erakusketa batzuk egingo ditu. Abenduaren 23an, Bergarako estudioko ateak irekiko ditu, ikusi nahi duenarentzat, eta urtarilaren 9tik 20ra Oñatioko kultura etxearen egingo du beste erakusketa bat.

MUSIKA > ANDOAINGO ABESBATZA

Andoaingo Alberto Agirre abesbatzaren kontzertua

Bihar, zapatua, 19:45ean egingo dute kontzertua Santa Marina parrokian

JASONE ZABALA > BERGARA
Bihar, zapatua, 19:45ean, kontzertua eskainiko du Andoaingo Alberto Agirre abesbatzak Santa Marinako elizan.

ELKARTRUKEA
Kontzertu hori maiatzean Aritzeta abesbatzak Andoainen eman zuen kontzertuaren elkartrukearen ondorioa da, eta oraingo honetan, beraz,

Bergaran egongo dira andoain-darrak.

Hain zuzen ere, bi zati izango ditu biharko saioak: lehenengoan, abesbatzak organoaren laguntzarekin abestuko du; eta bigarren zatian, organo barik abestuko dute. Abesbatzaren zuzendaria 1998. urtea ezkerro Joxean Paskua da, eta hark zuzenduko du biharko kontzertua.



ALBERTO AGIRRE ABESBATZA Bihar eskainiko dute kontzertua.

GOENKARIA

> DIPOSITIBA EMANALDIA

Gaur arratsaldeko zapietan Jon Arretxeren diapositiba emanaldia egongo da Osintxun

Osintxuko auzotarrek antolatutako *Gaztañatan* programazioaren barruan, Jon Arretxe idazle bizkaitarrak *Amazonia, oihana eta jendea* izeneko diapositiba emanaldia eta hitzaldiaegingo du Osintxuko ludotekan, 19:00etan. Jon Arretxek berak idatzitako *Tuparen seme-alabak* liburuan oinarriturik dago, Amazonia aldean 95. urtean egindako bidaian, hain zuzen.

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

AZPEITXI
Jatetxea

Aranerrea 13 behea. Bergara
943 76 55 00


Kabutzia
ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

- └ Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- └ Ziklomotorreko lizenzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- └ Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin
- └ **Puntuak berreskuratzeko** aukera

**Gainditu motorraren azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!
Eta autoarena 18 urte bete aurretik!**

943 76 16 63 BERGARA



ARRAÑAGA
AUTODESKOLA

BOLU SUKALDEAK



Gremioen koordinazioa

Aurrekontua
konpromiso barik.



Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02
bolusukaldeak@euskalnet.net • www.euskalnet.net/bolusukaldeak

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

ZURE
ZERBITZURA!!

Mota guztiako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA

> FUTBOLA

Bergarak Amara
Berri hartuko du
Agorrosinen

Irailaren 22a ezkero ez du Bergarak partidurik galdu, eta sailkapenean ondo igarri da hori. Manu Diazzen mutilek boladari eutsi gura diote Amaia Berri taldearen kontra (zapatua, 15:00, Agorrosin).

BTLSk, berriz, Gazteak taldea hartuko du Ipintzan (zapatua, 17:30).

> SASKIBALOIA

Garaipen beharrean
dago Candy, azken
postuan

Bederatzigarren postuan dagoen Ordiziaren kontra jokatuko du Candyk asteburuauan. Joan den astean liderraren kantxan 13 puntuko aldeagatik galdu zuten (69-56), eta sailkapeneko azken postutik gora egin ezinda, mahoneroek garaipen bat behar dute, lehenbailehen.

> KARATEA

Amasorrain eta Urkia
Gipuzkoako
txapelketan laugarren

Shotokan karate elkarteko bi ordezkarri laugarren postuan sailkatu dira Gipuzkoako txapelketan: Joane Amasorrain eta Jon Urkia. Bi bergarar horiek Gipuzkoako selekzioa ordezkatu zuten Bizkaiko III. karate kopan, eta selekzio guztien artean gipuzkoarrak laugarren izan ziren.

MENDIA > BIGARREN ESKUKO MATERIAL AZOKA

Pol-Polekoak abenduaren 5era arte egongo dira batzen eskiko eta mendiko materiala

Material guzta batuta, abenduaren 10ean egingo du Bergarako mendi elkartea urteroko azoka, eta bost egun iraungo du azoka horrek

XABIER URTZELAI > BERGARA

Eski denboraldia haster dagoean aprobatxatzen du Pol-Polek urteroko eskiko eta mendiko materialaren azoka egiteko; orain da momentu onena. Iazko eski denboraldia amaituta, askok esan zuten aurten material berria estreinatuko zutela, baina orain arte ez dira gogoratu. Eta, azokan egoera onean dagoen materiala erozi ahal izango dute, prezio merkeagoan.

Herritarren artean harrera ona izaten du merkatu horrek, jendeak geroago eta gehiago erossten ditu bigarren eskuko gauzak. Bestalde, eskiatzaile asko ia urtero material berria estreinatzen ohi dira, eta Bergaran dagoneko erabiltzen ez duten materia lagatik euro batzuk eskura ditzakete. Hala, dagoeneko erabiltzen ez diren eski taula, txamarra, praka eta bestelakoak Pol-Polea eramateko eskaera egin dute.



ONDOKO DAGOENA Egoera onean dagoen materiala bakarrik eraman.

GOIENKARIA

BOST EGUNeko AZOKA

Mendi elkartekoak aste barruan materiala batzen ibili dira, eta astelehenean, hilak 3, lan horri helduko diote, eguztenera arte. Kontuan hartu, egun horietan 19:00etatik 20:30era arte egongo direla mendi elkartean materiala batzen. Informazio gehiago 943 76 48 51 telefonoan.

Material guzta batutakoan, Pol-Polekoek bost eguneko azoka antolatuko dute, abenduaren 10etik 15era arte. Aste barruan, 19:00etatik 20:30era arte egongo da materiala salgai eta hilaren 5ean, zapatuan, 18:00etatik 20:00ak arte egongo dira lanean. Gabonetan batek baino gehiagok egingo du estreinaldia.

Labegaraieta**EMAITZAK**

Errota-Gain-Los Blus	8-0
Iribide-Komando Piperrak	2-6
Carboneros-El Mapet	8-1
Irish Pub-Hamaika Jintxi	5-5
Belengua-Tiki-Taka	3-3
Niu Tim-Deportivo Oriente.....	15-2

PARTIDUAK

Abenduak 2, domeka, barruan	Epaileak
09:30 Niu Tim-CM Errota-Gain	Irish Pub
10:30 Irish Pub-Iribide	Niu Tim
11:30 Belengua-Carboneros	Los Blus
12:30 Los Blus-Hamaika Jintxi	Carboneros
17:00 El Mapet-Komando Pip.	Tiki-Taka
18:00 Tiki-Taka-Deportivo Oriente	K.Piper.

SAILKAPENA

	P	J
1. CM Errotagain.....	18	6
2. Irish Pub	13	6
3. Carboneros	12	6
4. Komando Piperrak	12	6
5. Belengua	11	6
6. Los Blus	10	6
7. Tiki-Taka	10	6
8. Niu Tim	9	6
9. Iribide	6	6
10. El Mapet.....	3	6
11. Hamaika Jintxi.....	1	6
12. Deportivo Oriente.....	-3	

Hainbat sorpresa
Labegaraietako
txapelketan

Orain arte jokatutako sei jardunaldietaan bistan geratu da aurten inoiz baino parekotasun handiagoa dagoela, ia astero egoten da-eta ezustekoren bat. Aurreko jardunaldian, esaterako, Hamaika Jintxi taldeak sailkapeneko bigarren lekuau dagoen Irish Pub taldearen kontura eskuratu zuen txapelketako lehenengo puntu. Ez dadila inor lokartu, badeazpada ere.

Gizarte laguntzarako prestakuntza



PRESTAKUNTZA-EKINTZAK 2008
ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO PROGRAMA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILE-DIPLOMA

4. promozioa

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

2008ko
urtarrila



BERGARA

Tokia: Bergarako UNED.

Iraupena: 225 ordu (urtariletitik irailera, abuztuan izan ezik)

Hizkuntza: gaztelania

Datak eta ordutegiak:

Ikastaroaren hasiera: urtarilaren 11n

Eskola eguna eta orduak:

Ostiraletan 17:00etatik 21:00etara,
eta zapatuetan 9:00etatik 14:00etara

Matrikula epea: azaroaren 16tik abenduaren 21era.

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

Bergarako UNED. Gizarte laguntzan Trebatzeko Eskola.

Tel.: 943 76 90 33

Matrikula internet bidez egiteko: www.uned.es/ca-bergara



nire bidaia hora

Ana Txurruka

Danubioko bidea bizikletan > 2006ko abuztua

"Bizikletaz bidaia luze hora egitea oso aberasgarria iruditu zitzaidan, gomendagarria"

JASONE ZABA > BERGARA

Anak beti izandu bidaiatzeko gogoa, asko gustatzen zaio eta oso abentu-razalea da. Horrela, 2006ko abuztuan, bederatzilaguneko talde batek uda bizikleta gainean eman zuen, Danubioko ibaiak egiten duen ibilbide berbera egiten Europako hainbat lurraldetan zehar.

Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako lankideek eta unibertsitateko lagunek egin zuten bidaia. "Hamaika mapa begiratu ondoren, Danubio ibaiak Alemania, Austria, Eslovenia eta Hungarian zehar egiten duen ibilbidea egitea erabaki genuen; guztira 1.300 kilometro inguru", azaldu zigun Anak.

Kilometro asko izan arren, ez zuten izan Alemania eta Austria zeharkatzeko arazo handirik, bide-ak oso ondo adierazita eta prestata baitzeuden; izan ere, Anak komentatu digunez, "bertakoentzat arrunta ohi da bizikletaz mugitzea herri batetik bestera. Eslovenian eta Hungarian, berriz, maparen lagunza beharrezko egin zitzagun".

Bidea laua eta lasaia da, eta naturaz gozatzeko aukera ematen du, betiere Danubio ibaiaren ertzelek. Egunean 80 kilometro inguru egiten zuten, eta adostutako helmugara iristeko zailtasunak izan zituzten, bidean zeuden tabernean garagardoa edatearen erruz.

Bidean ikusitakoari dagokionez, esan daiteke Alemanian eta Austrian ondo mantendutako Erdi Aroko herriak dituztel; besteak beste, Ulm, Gunzburg eta Regensburg. Gastronomiaz gozatzeaz gain, musikaz ere gozatu zuten: Linzen eta Vienan, esaterako.

VIENAN EZBEHARRA

Vienan ezbeharra izan zuten: "Bizikleta lapurtu zidaten. Lapurrik bere bizikleta zaharra utzi zidan nirearen trukean". Disgustua handia izan zen, baina bidean aurrean jarraitu zuten. Ondoren, Esloveniara iritsi ziren: Bratislavara, hain zuzen ere. Herri horren inguruan



Ana Txurruka.

"Bertakoentzat arrunta ohi da bizikletaz mugitzea herri batetik bestera"

"Bratislava gutxi zaindutako hiria iruditzen zitzagun, batez ere, kanpoaldeko auzoak"



Ana (behean ezkerretik hasita bigarrena), beste bidaia-kideekin batera.

ruan honakoa esan zigun Anak: "Gutxi zaindutako hiria iruditzen zitzagun, batez ere kanpoaldeko auzoak, baina hala eta guztiz ere polita zen. Erdialdean barroko estiloko eraikuntza ugari ikusteko aukera izan genuen, eta hiriko sinboloa den gaztelua baita ere. Hango prezioak Alemania eta Austria koak baino baxuagoak dira eta jan eta edan soberan egin genuen. Horren adibide esan dezakegu treneko langile batek komentatu zigula hilean 200 euro irabazten zituela. Han, lo egiteko aukerak urriak zirenez, azkar pasa genuen herrialdea eta Hungarian sartu ginen". Hungarian ere aurreko paisaia grisa errepiatzan zen, urtetan zehar jasandako baldintza desegokiak direla eta.

Taldekoek bidaia Budapesten amaitu zuten, eta han, atseden hartu eta turismoa egiteko aukera ere izan zuten: "Parlamentua, merkatua eta opera bisitatzea merezi du". Hiria bi zatitan banatuta dute.

tzen du Danubiok, Buda eta Pest. Ibilbideak antolatzen dira itsasontzietan eta pare bat orduz hantxe ibili ziren. Ibaiak izugarritzko zabalera dauka hiri horretan: "Musika ondare handia dago, eta bigarren eskuko dendetan buelta ka ibili ondoren, kalean jotzen zegoen gizon bat biolina erosi nion. Lapurtutako bizikletaren hutsunea bete zidan hark".

Etxera itzultzean, baina, izugarrizko sorpresa eman zioten Anari bidaia berarekin egin zuten guztiek; izan ere, Vienan lapurtutako bizikleta bera oparitu zioten: "Nire eskerrik handienak eman nahi dizkiet opari eder hau egin didaten lagunei".

Eta egindako bidaia gomendatuko lukeen galdetuta, hauxe esan digu: "Benetan bidaia gomendagarria iruditzen zait, eta hara joan ginen guztioi, bizikletak gauza interesgarri asko ikusi eta bizitzeko aukera ematen duela uste dut".

bere ustez



Lander Juaristi

Erantzunak
oraindik ere
eraikitzeo

Berria naiz euskalgin-tzan, bi urtez mintza-praktika egitasmoetako teknikari izan naiz. Bestalde, aitortzen dut nire militantzia beste erronka batzuetara bideratu izan dudala eta ez euskararen aldeko mugimenduan.

Dena den, azken urte hauean euskara eta euskal hiztunak izan ditut egunero buruan, eta urteetan euskararen aldeibilitako eta dabiltsan pertsonen egiten dituzten galderak egin dizkiot nire buruari.

Erantzunik ez. Zalantzak mila. Argi, gauza gutxi eta

"Dena den, azken urte hauetan euskara eta euskal hiztunak izan ditut egunero buruan"

buru-buelta ugari. Hizkuntza hiztunok egiten dugu aberats, hizkuntzaren atzean badago herri bat, historia bat, mundua ulertzeko era bat? Benetako borroka, komunitate hori bizirik mantentzea izan beharrean, gizartearen erronka berriei aurre egiteko modu propioa sortzean datzala pentsatu izan dut. Gizarteak nahi baino borroka gehiago eskaintzen dizkigu, eta injustiziak asko dira egunerokotasunean, zer-gatik ez erabili hizkuntzaren atzean ezkutatzeten den hori gauzak aldatzeko? Zergatik ez egin aurre euskara-tasunetik etorkinen egoera latzari? Zergatik ez erabili hizkuntza integracio tresna moduan? Zer eskaini daki euskara jendeak etorkizunari? Galderak mila, erantzunak eraikitzeko daude oraindik.



**Ferretería
Múgica**
Burdindegia

**INDUSTRIA
HORNIDURAK**

Eskaintza bereziak:

**PROFESIONALA • BEROKUNTZA
GABONAK (brikolajea eta etxeko tresneria)**

Bidekurutzeta 8 • BERGARA • Tel.: 943 76 28 67 • Faxa: 943 76 94 31





Kantariko saioak telebistan


Martitzenetan,
20:15ean
Errepikapena:
eguztenetan, 13:47ean

Eguenetan,
20:15ean
Errepikapena:
eguztenetan, 13:47ean

Telebistan noiz agertuko zaren jakiteko irakurri Asteleheneko Goienkaria.

Asteleheneko Goienkaria etxean jasotzeko deitu
902 36 38 51 telefonora.

BABESLEA



gaztetxoen
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



HIRIGINTZA > HERRIKO PLAZAKO LANAK

Herriko Plazaren itxura guztiz eraberrituko dute datorren urtean

Oraingo zuhaitzak eta eserlekuak kenduko dituzte, baita pergola ere; milioi bat euroko aurrekontua daukate eta bederatzi hilabete iraungo dute lanek

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta Herriko Plaza birmoldatzeko asmoa aurreko agintaldiko Udalak azaldu zuen, eta orain urtehenean proiektua idazteko enpresa bat hartu zuen. Bada, astelehenean egindako osoko bilkuraren lanekin aurrera egitea onartu zuen udalbatzak eta orain, lehiaketa deialdia argitaratuko dute lanok zein egin erabakitzeko; datorren urte hasieran esleituko dituzte.

IRISGARRITASUNA HOBETU Saneamendu lanak egitea dauka aurreikusita Udalak Herriko Plaza; hau da, bertako ur hodiak



HERRIKO PLAZA Perimetroa mantendu egingo dute, baina eserleku eta zuhaitzak ia plaza erdiraino ekarriko dituzte. M.A.

aldatzea. Hori aprobetxatuta, guztiz eraberrituko dute plaza, eta itxura berria izango du datorren urte bukaerarako.

Donostiako Asmatu enpresak egin du proiektua, eta alda-keta garrantzitsuak egingo dizkiote, batez ere irisgarritasuna-

ri dagokionez. Hala, plaza barrenean dagoen harrizko pergola bota egingo dute, eta arrapala hobeak jarriko dituzte gurpil-

dun aulkian dabiltsanek zein ume-aulkiek samurrago igotzeko. Gainera, maila berean jarriko dituzte arkueak eta plaza.

ZUHAITZ ETA ESERLEKU BERRIAK Orain dauden zortzi platanondoak kendu egingo dituzte: "Izan ere, lurzoru guztia hondatzen dabiltsa zuhaitzen sustraiak", adierazi digu alkateak. Eta eserlekuak ere desagertu egingo dira orain dauden lekutik. Berriak aurrerago ekarriko dituzte, ia plaza erdira: "Plazaren perimetroa mantendu egingo dugu, baina txikiagoa izango da gero, eserleku eta zuhaitzak aurrerago egongo direlako. Hala, ez da hain hutsik ikusiko eta samurrago beteko dugu", argitu zigun alkateak. Argitasun handiagoa izateko arkuak kendu egingo dituzte, eta lauki itxura hartuko dute etxeek.

Lanok lehenbailehen esleitu, eta 2008ko lehen hiruhilabetean hastea gurako luke Udalak. Bederatzi hilabete iraungo dutela aurreikusi dute, eta 1.074.292 euroko aurrekontua daukate.

UDALA > OSOKO BILKURA

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako adierazpena onartu zuten

Gero eta informazio gutxiago ematea eta egunkarien bitarte berri izatea egotzi zioten udal gobernuari gainerako alderdietako zinegotziek

M.A. > ARETXABAleta

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak astelehenean eta hainbat gai onartu zituzten. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako adierazpena irakurri zuten; hilaren 25ean egindako elkarretaratzean irakurritakoa, hain zuzen. Biolenzia sexista gero eta emakume gaz-

teagoek jasaten dutela aipatu zuten, eta alderdi guztien atxikimendua jaso zuen adierazpenak.


Eskeraren tartean, Ainhoa Sagarrribai zinegotziak salatu zuen PSE-EEren aurka egindako pintadek hamar egun egin zituztela kendu barrik. Alkateak erantzun zion Zerbitzu Sailaren koordinaziorik ezak

eragin zuela akatsa, eta 48 ordu pasatu aurretik kentzeko ardura duela Udalak. Bukatzeko, gero eta informazio gutxiago jasotzea egotzi zion Sagarrribai udal gobernuari, eta kontuak prentsan agertu aurretik jakinarazteko. Beste alderdiek bat egin zuten eskaerarekin, eta alkateak hala egingo zuela esan zien.



UDALBATZA Asteleheneko osoko bilkuran zinegotzi guztiak elkartu ziren. M.A.

PAGALDAI
Opari denda
Burrindegia



Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

((112))
SOS DEIAK

Raijin Tattoo

MANTENDU DEBAGOIENA
EDERRA!
TATUATU ZAITEZ!
Iralabarri plaza 1, behe
Aretxabaleta
Tel.: 610 85 91 54
www.myspace.com/raijintattoo

> KIROLA

Urbiara irteera Murrukixorekin, domekan

Urbiara irteera antolatu du Murrukixo MEk domekarako, abenduak 2. Familia giroan izango da irteera, umeak gurasoekin, eta ez dago aurrez izenik eman beharrik.

09:45ean aterako dira Azbe lantegi aurretik, nor bere automobilean. Arantzazun autoak utzi eta Urbiarantz joko dute. Asmoa da Urbiako aterpetxeen baziak, eta hantxe ematen dute na jango dute. Hala ere, gura dutenek ogitartekoak eroan ditzakete. 16:30ak ingururako itzultzea aurreikusi dute.

> EUSKARA

Euskararen Eguna ospatzeko ekitaldiak astelehenean

Euskararen Nazioarteko Eguna da astelehenean, abenduaren 3an, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte Loramendi EEk, Udal Euskaltegiak eta Barriketan taldeak. 19:30ean elkartuko dira Herriko Plazan eta euskaltzaleen argazkia aterako dute; gero, atxikimendu mezua irakurriko dute. 19:50ean, kantu-poteoa hasiko dute, kantu liburukak lagun dituztela, eta 20:30ean, udaletxe zaharreko atarian txistorra janda bukatuko dute ospakizuna.

> HEZKUNTZA

Giza balioen astea egiten dabilta Kurtzebarri eskolan

Haur eta Lehen hezkuntzetan giza balioen astea egin dute Kurtzebarri eskolan, eta gaur bukatuko dute gaztaina erre jaia eginda. Jostailu, Gabon eta kontsumoaren gaineko hausnarketak egin dituzte bost egunean.

Atzo, ostera, Udzkenari Agur jaia ospatzekoak ziren ikasle, irakasle eta gurasoak. Urtero legez, *lekaixo lehiaketa* egin behar zuten, eta Larrin dantza. Gaztainak eta buzkanatzak jan zituzten berotzeko.



PARAPENTEa Jon Iriarte arrasatearrari atera zion argazkia Xabi Urtzelai uztail arratsalde baten.

XABI URTZELAI

MENDIA > ARGAZKI LEHIAKETA

Murrukixo: Xabi Urtzelairen argazki ikusgarria egutegian

Kurtzebarri tontor
ingurutik atera zuen
argazkia uztaileko
arratsalde baten

Bazkideek etxean
jasoko dituzte datozen
egunetan; gainerakoek
Murrukixon dituzte

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Argazki lehiaketa deitu zuen Murrukixo Mendizale Elkarteak datorren urteko egutegia egiteko. 12 lagunek bidali zituzten argazkiak, gehienek launa eta baten batek gehiago ere bai. Eta Xabi Urtzelai arrasatearraren hautatu du epaimahaia.

KURTZEARRITIK ATERATA

Urkulu urtegi gainean dabilen parapentea ageri da Urtzelairen argazkian: "Benetan ikusgarria da, eta hautatzen ibili ginenondako gustukoena izan zen", azaldu digu Murrukixoko presidenteak, Iñaki San Miguelek.

Kurtzebarri tontorretik 300 bat metro behera eginda atera zuen argazkia Urtzelai, uztaileko arratsalde baten. Parapentean bota zen Jon Iriarte lagunari argazkiak ateratzeko asmoarekin igo zen, gero GOIENKARIko erreportajea egiteko.

BAZKIDEEI ASTEAN BANATU

Dagoeneko kartazaletan sartuta dituzte egutegiak, eta datorren astean bertan hasiko dira bazkideei banatzen. Hala ere, bazkideez den herritarren batek gura izanez gero Murrukixoko lokalean du eskura, martzenetan, 19:00etatik 20:00etara.

AISIALDIA > GAZTELEKUA ETA LUDOTEKA

Abenduaren 2an hasita, domeka arratsaldero zabalik ludoteka, 8 eta 12 urte artekoendako

'Zentzia erabiliz ligatu'
izeneko tailerra egingo
dute gaur eta bihar
gaztelekuuan

M.A. > ARETXABAleta

Domeka honetan hasita, abenduak 2, domeka arratsalde guztietan zabalduko dute ludoteka 8 eta 12 urte arteko gaztetxoendako. 17:30etik 19:30era egongo da

zabalik, eta askotariko ekitaldiak antolatuko dituzte. Oraingoan, elkar ezagutzeko jolasak egingo dituzte, baita txantxa jolasak ere. Eta hurrengoan, abenduak 16, filma ikusiko dute.

GAZTELEKUKO EGITARAU

Atxagazte gaztelekuuan, ostera, *Zentzia erabiliz ligatu* izeneko tailerra egingo dute gaur eta bihar. Prebentzio eta Gazteria zerbitzuek antolatu dute, eta gaztelekuuan izango da, 18:00etatik 19:30era. Domekan, euskararen aldeko lelo lehiaketa egingo dute.

Abenduaren 7an, egubakoi-tza, Durangoko azokara joango dira, eta 8an, txistorra jana egingo dute Herriko Plazan. Abenduaren 15ean gaztelekuua apainduko dute Gabonei begira, eta 16an, zinemara joango dira, Gasteizera. 22an eta 23an, ostera, eskulanak egingo dituzte gaztelekuuan.

KULTURA

Kanpaiak zelan jo ikasten hasita daude

Areantzan elkartzen
dira, astelehenean,
sei auzotako
zortzi lagun

M.A. > ARETXABAleta

Irailean aurkeztu zuten kanpai-jole eskola Areantza auzoan, eta urriaren bigarren astea ezkerro kanpaiak zelan jo ikastaroa egiten dabilta. Astelehenero elkartzen dira Areantzako auzo salan; hau da, sasoi baten doktrina ematen zuten txokoan. Sei auzotatik etorritako zortzi lagun, hain zuzen.

Ordenagailua erabiltzen dute ikasteko: "Pantaila aurrean eta mahai gainean eskuak astinduta, kanpai joaldi ezberdinaren erritmoak harrapatzen ibiltzen gara", azaldu digu Julen Abasolo ikasleak. Joaldi gaitzenek denbora luzeagoa eskatzen diente: "Letxuga kanpai eta errepikak, esaterako". Elizpean daukaten tramankuluan ariketak egiten hasita daude; hala, ikasitako erritmoak kanpandorrean aurkituko dituzten postura eta distantzia berdintsuetan jotseko.

DOMEKETAN JOKO DITUZTE

Hurrengo pausoak kanpaietara joatea izango da. Horregatik, hauxe jakinarazi gura dute: "Kanpai hotsak merez duen errespetua kontuan hartuta jakinarazi abendutik aurrera, ez jai guztieta baina hilean hiru edo lau aldiz, jaiegunetako -zapatu, domeka, zubiak- eguerdi aldera kanpai jotzen ibiliko garela Areantza eta gaintontzeko auzoetan".

Hori horrela, esandako egunetan eta eguerdi aldera entzungo diren kanpai hotsek ez dute euren esanahirik edukiko. Eta hau gaineratu du Abasolok: "Lehenengo egunetakoak seguru asko ez dira ondo jotakoak izango. Aurreratu ahala hobetuko dugu; ea jendeak ere antzematen duen".



Kanpaiak jotzen.

GOIENKARIA

GARBITU KOOP. ELK.

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak

Obra bukaerako garbiketak

Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak

Kristalen garbiketak

Errekabarren 3- Behea ARETXABAleta

Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21

garbittu@euskalnet.net

LIBURUA > ARRASATEKO KOOPERATIBISMOA

Kooperatibismoaz idatzi dute ETEOko lau irakaslek

Holandan kaleratu
berri den liburu bateko
kapitulua idatzi dute
ETEOko lau irakaslek

Idatzitako kapituluan,
Arrasateko
kooperatibismoa
aztertzen dute

MAIDER ARREGI > OÑATI
Oñatiko Enpresa Zientzien
Fakultateko (ETEO) lau ira-
kaslek *The Challenge of Social
Innovation in Urban Revitali-
zation* izeneko liburuan parte
hartu dute. Holandan argitaran-
tu den liburuan Arrasateko
kooperatibismoaren gaine-
ko kapitulu bat idatzi dute lau ira-
kasleok.

Luxio Ugarte, Herve Gre-
llier, Jean Michael Larrasquet
eta Sain Lopezek idatzi dute
kapitulua. Argitalpena, hain
zuzen, Amsterdameko Delft
University of Technology Uni-
versitateko Paul Drewe, Juan
Luis Klein eta Edward Hulsber-
gen-ek editatu dute. Orain dela


aste batzuk kaleratu zuten,
Techne Press-ek argitaletxearen
eskutik.

HAINBAT EREDU AZTERGAI

The Challenge of Social Innovation in Urban Revitalization liburuau, lurrarde ezberdinak
kasuak aztertzen dira. Guztira bederatzi tokitako esperientziak azaltzen dira. Besteak beste, Montreal, Liverpool, Jerusalem, Nikaragua, Peru, Frantzia, Herbehereak eta Arrasateko esperientzia kontatzen da bederatzi kapituluetan.

Hala, bederatzi kasuetan, lurralte baten indarberritzea gertatu da gizarte ekimen berri-
zaileen eskutik. Prozesu horien konplexutasuna azal-
tzen duten zenbait teoria ere jasotzen dira.

ETEOko lau irakaslek *Thin-
king about transfer from the
Mondragon experience* izeneko
kapitulua idatzi dute. Bertan, Arrasateko esperientzia azal-
tzen da, haren garapenaren
gakoak, gaur egungo jarduera
eta etorkizunean bideratuko
dut garapena. Horretaz gain,
hezkuntza, ikerketa, lurralte
eta esperientziaren garapenaren
arteko erlazioak ere azter-
tzen dira liburuan.



AZALA Argazkian, ETEOko lau irakaslek parte hartu duten liburaren azala. MAIDER ARREGI


KULTURA > MUGARIK GABEKO LURPEA

'Mugarik gabeko lurpea' ekimenak lurpeko mundua ezagutzeko aukera eskaintzen du

Ekimen horretaz
gozatu nahi dutenek
hainbat abantaila
izango dituzte Euskal
Herriko hainbat koba
bisitatzeko orduan

MIREN ARREGI > OÑATI

Euskal Herriko lurpea ezagutze-
ko ekimena da *Mugarik gabeko
lurpea* izenez aurkeztu dutena.
Ekimen hori Euskal Herriko
hainbat koba edo leizek elkarla-
nean antolatu dute: Urdazubi-
Urdax, Sara, Zugarramurdi,
Pozalagua, Mendukilo eta Oña-
tiko Arrikirutz dira ekimenaren
bultatzaleak. Kontuak kontu,
senidetutako koba horiek guztiak
liburuxka bat atera dute, eta libu-
rxka horrekin, aipatutako
kobak bisitatzeagatik deskontua
egingo zaio bisitariari; eta gaine-
ra, koba guztiak bisitatutakoan
opari bat ere emango zaio ekimen



ARRIKRUTZ *Mugarik gabeko lurpea* ekimenaren barruan dago Oñatiko koba.

horretan parte hartzeagatik.
Aukera paregabea, beraz, gure
herriaren barrunbeetara bidaia
egiteko eta horiek ezagutzeko.

LIBURUXKA NOLA ERABILI

Koba horietako batera joaten den
guztiari *Mugarik gabeko lurpea*
delako liburuxka emango diote.

Hala, kobako sarrera erosio oste-
an, liburuxkari zigilua jarriko
diote. Hori eginda, ekimen horren
parte diren gainontzeko koba
guztietan %20ko deskontua izan-
go du bisitariak. Hori bai, libu-
rxka bakoitzak pertsona baka-
rrak erabil dezake. Azkeneko
koban oparia ere banatuko dute.

INAUTERIAK > LUZAIDEKO DANTZAK

Luzaireko dantzak antzeztuko dituzte aurten

Herritar guziei
egin gura diete
deialdia Oñatz dantza
taldeko partaideek

MIREN ARREGI > OÑATI

Azken urteotan egin ez bada ere,
aurten, duela urte batzuk egi-
ten zen moduan, herritarrek
parte hartzeko deialdia egin du
Oñatz dantza taldeak otsailaren
2an izango den Luzaireko Inauer-
teriak ikuskizuneari parte har-
tzeko. Hainbat era eta tokitako
Inaueriak antzeztu izan dira
urte luzetan zehar Oñatin,
Oñatz dantza taldearen eskutik,
tartean guztiotzat ezagunak
diren Lantzko Inaueriak, iau-
ziak, iñude eta artzainak eta gal-
darariak. Duela bost bat urte
antolatu zuten azkenekoz inau-
teriak antzeztuko ekimena. Bain-
a gero eta herritar gutxiagok
parte hartzen zuela ikusita eta
ekimena indarra galtzen zihon-

ala ikusita, baztertu egin zuten
urte askotan zehar Aratustee-
tako zapatuari egin izan den
saioa.

Otsailaren 2an egingo diren
Luzaireko dantzen saiorako
entseguak eguztenetan
20:00etik 21:00ak arte izango
dira, eta zapatuari berriz,
12:00etik aurrera Errekalde-
ko lokaletan. Parte hartu nahi
dutin herritarrek lau dantza
ikasi beharko dituzte, eta Luzai-
reko Inauerieta erreperto-
rioa osatzen duten gainontze-
ko dantza guztiak Oñatz dantza
taldeko kideek egingo dituzte.
Herritarrei egindako lana era-
kusteko eguna, esan bezala,
otsailaren 2a izango da eta par-
te-hartzaleek goizean eta arra-
tsaldean dantzatuko dute. Baz-
karitarako aukera ere izango
da, noski.

Oñatz dantza taldekoek
herritar guziei dei egiten die-
te ekimen horretan parte har-
tzeko; izan ere, egun horri inda-
rra eman gura diote berriz.

> AUTOBUS ZERBITZUA
**Arantzazura joateko
autobusak domekero
egongo dira 2008an**

Oñatiko Udalak antolatuta,
2007ko abenduan eta 2008ko
urtarriletik aurrera ere,
domekero autobus zerbitzua
egongo da Arantzazuko San-
tutegira joateko. Hala, aben-
duko zubiari begira, dome-
kan, abenduaren 9an, izango
da autobus zerbitzua.

Oñatin hiru geltoki egon-
go dira: San Lorentzon, Abe-
nidan eta postetxe parean.
Handik zuzenean Arantzazu-
ko Santutegira joango da auto-
busa. Bueltarako geltokiak
ere berberak izango dira.
Txartel bakoitzaren prezioa
0,50 euro izango da ibilbide eta
pertsonako.

ORDUTEGIA
Oñatik Arantzazura orduro
egongo da autobusa, 07:30etik
19:30era. Arantzazutik Oñati-
ra, berriz, 08:00etik 20:00eta-
ra bitartean orduro.

> AUTOBUS ZERBITZUA
**Txandako dendetan
sariak banatuko
dituzte abenduan**

Abenduko lehen hamabostaldi-
an, Txanda elkartea sariak
dituzten txartelak banatuko diru.
Txandako dendetan banatuko dira eta 17k
diru sariak dituzte. Horietako
batek 500 euro diru eta gai-
rontzoko 16ek, berriz, 50 euro.

OSOKO BILKURA > AURREKO AGINTALDIKO FAKTURA BATZUK HELDU DIRA

Kontrataazioetan irregularitasunak egin duten susmoa dauka Udalak

Aurreko agintaldiko faktura batzuk heldu dira, batzordeetatik pasa ez zirenak

Alkateak Hirigintza batzordea deitu du astelehenerako, arazoa argitzeko

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Eguaztenean ohiko osoko bilkura egin zuten udaletxeen. Hainbat gai aztertu zituzten eta, bestek beste, Juan Carlos Bengoak zinegotzi kargua utzi duela jakinarazi zuten. Horrez gain, osoko bilkuran minutu bateko isilunea egin zuten astean hil den Tomas Madinabeitiaren omenez. Madinabeitiak hainbat lan egin zituen Udalarendako.

AURREKO AGINTALDIKOAK
Baina bestelako gai bat jarri zuten mahai gainean. Asteon hainbat faktura heldu dira Udaltxera, diru kopuru handikoak.

Udaleko idazkariak jakinarazi zuen faktura horiek aurreko agintaldian Frixi enpresari egindako kontratazioenak direla. Are gehiago, alkateak azpimarratu zuen kontrataazio horiek ez dutela diru partidarik izan, eta ez direla batzordeetan onartu.



SAN JUAN KALEA Osoko bilkuran aipatutako fakturak Frixi enpresarenak dira, eta San Juan kaleko lanei dagozkie.

IKER BARANDIARAN

Horrekin lotuta, azaldu zuten faktura horiek San Juan kaleko lanen gaineko kontzeptua duteela, eta guztira ia 180.000 euro batzen dituztela. Horren harira, idazkariak azaldu zuen guztira sei

faktura direla eta horietako bakotza oso gutxigatik ez dela heltzen 30.000 eurora.

Alkateak argitu zuen 30.000 euroko kontratazioa egitekotan derrigorrezkoa dela lehiaketa

publikora ateratzea, eta kopuruak horiek baino apur bat txikiagoak besterik ez zirela.

Alkateak jakinarazi digu astelehenerako Hirigintza batzordea deitu duela, eta batzar horretara

aurreko agintaldiko Hirigintza ko arduradunak deituko dituztela. GOIENKARIAk aurreko agintaldiko Hirigintza batzordeengana jo du, baina astelehenera arte ez dute azalpenik emango.

ANTZERKIA > TXALO ANTZERKI TALDEAREN 'LA GOTA GORDA'

'La gota gorda' umorezko antzezlana gaur Huhezin

Gimnasioan bat egingo duten enpresa-gizon baten eta langabezian dagoen mutil baten arteko komedia

I.B. > ESKORIATZA

Antzerkia bueltan izango da Huhezikor areto nagusian. Gaur, egubakoitza, Txalo antzerki taldeak *'La gota gorda'* ikuskizuna egingo du unibertsitateko aertonian, 22:30ean, gazteleraz. Ez dute sarrerarik kobraztuko.

Joseba Usabiaga eta Iker Galartzak aktoreek esku hartuko dute komedia arin horretan.

Bi protagonistek, Gillermok eta Balentinek, gimnasioan egiten duten topo astean hainbat aldi tan. Bata, kirolak lagunduko diolakoan, tabakoa eta alkohola utzi ondoren denbora-pasa doa gimnasioa; bestea, aldiz, lan bila dabil eta bere asmoa fisikoki ezin hobe egotea da.


ESTAMENTU DESBERDINEKOAK

Bi protagonistak oso desberdinak dira: negozio-gizon bat eta artista izan gura duen mutil gazte bat... Oso bestelako bi mundu, baina gimnasioan eta agertokian elkarreto beharrekoak.

Bakoitzak estamentu sozial zehatz bateko da, eta oihitura eta premia desberdinak dituzte.

Bi aktoreak oso ezagunak dira Euskal Herrian. Tolosako Joseba Usabiaga bere benetako ize-nagatik baino *Goenkale-ko Tximista* moduan da ezagunagoa. Horrez gain, aspaldidanik Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoekin ere lanean dabil, *Goenkale-n* hasi aurretik.

Usabiagarekin batera Amezketako Iker Galartzia izango da Huhezikor areto nagusian. Galartzia Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoekin lan egindakoa da eta *Goenkale-n* gidoilaria eta aktore ibilitakoa da. Tomas pertsonaia antzeztu zuen *Goenkale-n*. Gerora, berriz, ETBko *Vaya semanita* saioan ere lanean ibili izan da.



AKTORE EZAGUNAK Iker Galartzia eta Joseba Usabiaga *Tximista*.

GOIENKARIA

HISTORIA > HEGOAMERIKAKO SENDI BOTERETSUENETAKOA IZAN ZENAREN HISTORIA

Azkarretazabal sendiaren abenturak ikertu dituzte

Arkarazoko Kaiñenako Juan Azkarretazabalek Ameriketara jo zuen XVI. mende hasieran

Juan konkistatzaile ezaguna izan zen eta Pedro semea negozio-gizon oso aberatsa

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Arkarazoko Azkarretazabal etxearen (gaur egungo Kaiñena) jaotako Juan Azkarretazabal edo Juan de Mondragonek XVI. mendean hasiera aldera jo zuen Leintz ibarretik Ameriketara. Hala uste dut historialariek. Militar eta kolonizatzaile oso esanguratsua bilakatu zen. Gerora, haren seme Pedro Potosiko (gaur egungo Bolivian) zilarrezko harrobiak ustiatu zituen eta Hegoamerikako gizon aberatsenetakoa bihurtu zen.

Juanek testamentua idazterakoan eskatu zuen diru kopuru handi bat Eskoriatzan ospitale bat egiteko baliatzea, berak Eskoriatza jaioterritzat zuen-eta. Eta haren bi bilobak Leintz ibarrera bueltatu ziren eginkizun hori burutzera. Aipatutako ospitalea (XVII. mendekoa) gaur egun Huheziko eraikin zaharra da.

EUSKOSAREKO MINTEGIAN

Familia horren hiru belaunaldi gaineko historia jaso duena Arrasateko Ana Isabel Ugalde irakaslea da. Ugalde Artearen Historian espezializatuta dago eta beste ikerketa baten ondorioz Azkarretazabal familiaren berri izan zuen. Hala, Euskal Herriko hainbat artxibategi, Madrilgo eta Sevillan Indietako Artxibategia kontsultatu ditu, familia horren bilbide eta pasarteek erakarrita.

Ikerketa hori Euskosarek antolatutako Euskal Herria Mugaz Gaindi izeneko laugarren



OSPITALEA Gaur egungo Huheziko eraikin zaharra ospitalea izan zen aurretik, XVII. mendean.

IKER BARANDIARAN

mintegian aurkeztu zuen Ugalde. Udarritik gaur egunera arte ibili da Ana Isabel Ugalde ikerketa hori egiten, eta egilea bera zur eta lur gelditu da familia horren gainean deskubritutako guztiarekin: "Hainbat datu eta data ezin izan ditut egiaztu... Asko orduko testiguen esanak, jasotakoak, dira, baina harrituta gelditu naiz Azkarretazabal

delakoek lortu zuten guztiarekin", azpimarratu digu Ana Isabel Ugalde.

GERLARI ETA NEGOZIO GIZONAK

Juan Azkarretazabalek Hegoamerikan zegoela deitura aldatu zuen, eta horren ordez De Mondragon jarri zuen. Konkistatzale eta gerlari amorratua izan zen, eta Gaztelako erregeek ere oso

presente izan zuten. Juanek indiar batekin Pedro semea izan zuen. Pedrok ondasun itzela egin zuen; eta Pedoren bi semeek Euskal Herrira jo zuten XVI. mendearren bukaeran horien tuto-re Bernardo Mostrencorekin. Euren eginkizuna zen Eskoriatzan ospitalea eraikitzea eta hori abian jarri zuten, nahiz eta bi semeak oso gazte hil ziren.



Andres Agiriano.

GOIENKARIA

OMENALDIA

Andres Agirianok 101 urte

Udaleko ordezkariek omenaldi xumea egingo diote Bolibarko baserrian

I.B. > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, Andres Agirianok 101 urte beteko ditu. Bolibar elizateko Karobi baserrian bizi da Zezilio semearekin eta beste hainbat seniderekkin. Agiriano ondo dago osasunez eta burua oso argi du.

Basoan eta egurrekin lan egin izan du hainbat urtean, eta lasai bizi da Bolibarren.

Udalak omenaldi xumea egingo dio gaur goizaldean. Horretarako, ordezkari batzuk igoko dira Bolibarrera.

> ERAKUSKETA

Jostailuen gaineko erakusketa jarriko dute astelehenean

Udaleko Gazteria Zerbitzuak jostailuen gaineko erakusketeta egingo du datorren astean kultura etxearen.

Erakusketa hiru egunean egongo da ikusgai, asteleheneetik eguztenera bitartean, hain zuzen ere. Haren ordutegia 17:00etatik 20:00etara bitartekoia izango da.

Gazteria Zerbitzuaren asmoa da bestelako jolasak erakustea eta haien onura eta kalteak azaltzea.



■ Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

■ Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Tomas Madinabeitia > Apaiza

"Kongoko Kansenya lurralderra ura eramateko proiektua bukatu dugu"

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Tomas Madinabeitia ezaguna da herrian, parrokoa izan zen eta. Kongon izan berri da Bittor Arbulu antzuolarrarekin batera. Berbaldia egin dute biek oraingo astean, hango proiektuen berri emateko.


Kongotik itzuli berri zarete. Zela joan da bidaia?

Oso ondo; ura bideratzeko proiektua amaitutxat eman dugu eta eskolarena ere ondo doala ikusi ahal izan dugu.

Zela hasi zineten proiektu horietan lanean?

Algortako apaiz bat misiolari zegoen Kongon, Kansenya lurraldean. Hura zen Alfonso Sainz de Bilbao eta orain dela bi urte hil zen. Hark abiarazi zituen proiektuak. Andres Arbuluk egin zuen harekin harremana eta Andresen bitartez Bittorrekin. Azken horrek konpromisoa hartu zuen ura Kansenya bideratzeko proiektuarekin bukatzeko. Nik, berriz, umeak eskolatzeko proiektuaren ardua hartz nuen nire gain.

Ura bideratzeko proiektua amaitu duzue, hortaz.



Tomas Madinabeitia, Kongon. A.I.

Umeak eskolaratzeko proiektua, bestalde, zelan dago?

Pozik gaude lortutakoarekin. Bidaia honetan ikusi dugu gauzak ondo doazela. Kansenya lurraldeko Kapiri herrian jarri zituen eskola gehienak Sainz de Bilbao apaizak, baita inguruko beste herri batzuetan ere. 2.000 bat ume hartzen dituzte eskola horietan. Gure ardura orain da irakasleei ordaintzea, estatuak eskola horien ardura bere gain hartzen duen bitartean.

Besteak beste, Anelkarrek lagundu dizue proiektu horiek aurrera eramatzen.

Bai, eta oso eskertzeko da Anelkarren eta antzuolaren laguntasuna. Eskolen proiektuan lagundu digute, batez ere.

Aurrera begira ze beste proiektu dituzue?

Eskola gehienak dauden herrira, Kapirira, ura eramatea da gure hurrengo erronka.

bere ustez



Ugaitz Iturbe

Diruzale hipokritak

Urek daukate boterea, eta eurek dute dirua. Baino asko duenak gehiago nahi izan ohi du, eta esaldiari indarra eman nahian-edo, jo eta su ari dira denon artean ezarritako diru publikoa euren poltsikoetara eraman nahian.

Horretarako desinformazioa eta gezurra dira euren tresnarik eraginkorrenak. Abiadura Handiko Trenarekiko politikan, ahal den gutxien berba egin eta ahal den azkarren eraikitzea dute ardatz, baina kontua ez diho-

"AHTren politikan, ahal den gutxien berba egin eta ahal den azkarren eraiki nahi dute"

GABONAK > GABONETAKO ARGITARAKO AURREKONTURIK EZ

Udaletxeko balkoian jarriko dituzte Gabonetako argiak

Abenduaren 10ean piztuko dituzte argiak udaletxeen, eta lau astean egongo dira

batzuk erabiliko dituzte Herriko Plazari Gabon kutsua emateko. Udaletxeko balkoian zintzilik jarriko dituzte argitxo batzuk.

Horrela, aurten argindarren kostua bakarrik izango dute. Abenduaren 15etik Erregeak pasatu arte egongo dira piztuta.

A.I. > ANTZUOLA
Aurreko urteetako ohiturarekin apurtu nahi izan du aurten Udalak. Gabonetako argiak jartzeko 6.000 euro inguruko aurrekontua bideratu izan dute aurreko urteetan; iaz zerbait gehiago gastatu zuten.

Bada, Udalak erabaki du gutxieneko kostua izan behar dutela Gabonetako argiek; hain zuen, Udalaren beraren argi

DIRUA JOLASGUERAKO
Udaleko arduradunek adierazi dute Gabonetako argietan aurrezten duten dirua bideratuko dutela eskola aurreko jolas-gunea konpontzena. Hainbat enpresari eskatu zieten aurrekontua; 9.000 euro inguru gastatuko dituzte eskola aurreko jolas-gunean zoru berria jartzen eta dauden jolasak konpontzen.



A.I.

Garabidekoak herrian izan dira

Garabide elkartea hizkuntza eta herrien arteko I. truke programa antolatu du; asteon Antzuolan izan dira programa horretako kideak. Udaletxea eta Goizper bisitatu dituzte; Udal, UEMAko kide delako eta Goizper, EMUNen lanaren erakusle moduan. Garabide elkartearen helburua da kooperazio linguistiko eta identitarioa sortzea.



JABI ETXANIZ

Indarkeriaren aurka, kale agerraldia

Aurreko asteko domekan Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna zela-eta, kale agerraldia egin zuten plazan, domeka eguerdian. 60 bat lagun elkartu ziren. Bide batez, Ciudad Juarezko (Mexiko) feminizidioaren aurkako 107 sinadura batu zituzten. Honako webgunean ere sira daiteke: www.mujeresdejuarez.org.

> ABIADURA HANDIKO TRENA

AHT Gelditu! Elkarlana taldeak berbaldia antolatu du abenduaren 4rako, martitzena

AHT Gelditu! Elkarlana taldea osatu berri dute herrian, aurreko astean iragarri bezala. Dagoeneko hasi dira lanean, eta berbaldia antolatu dute datorren asterako. Martitzenean, abenduak 4, 19:30ean, Olaran etxean, egingo dute berbaldi hori. Hizlariak izango dira Mila Elortza eta Hilario Manzanedo, AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kideak. Berbaldiaren izenburua, honakoak: *AHTren gaineko informazioa: trazadura eta eraginak*.

> PRESOAK

Apirilean atxilotu zuten Unai Lamariano antzuolarra aske geratu da oraingo astean

Oraingo asteko martitzenean aske laga dute Unai Lamariano presoa, 10.000 euroko bermea ordainduta. Antzuolarra da Lamariano, aspaldiko urteetan Donostian bizi den arren. Apirilean atxilotu zuten, ETARI laguntasuna ematea egotzita. Orditik hona Valdemoroko (Madril) espetxeen egon da preso. Martitzenean, 20:30ean, hain zuzen ere, irten zen espetxe horretatik eta goizaldeko ordu bietan iritsi zen Donostiara.

**((112))
SOS DEIAK**

bere ustez



Geaxi Ezpeleta

Istripuak baino gehiago

Gaztea naiz bai ni ere. Beste asko eta asko bezala gaztea. Adin polita bertatik pasa direnen esanetan. Ikasketak amaitu, lan mundura salto egin, independizatu (ahal bada behintzat, ez da hain erraza-eta), norbere bizitza bideratzeko adin buelta, hain zuen ere. Honekin elkartu, bestearekin batu, erabakiak hartu.

Duela egun gutxi albiste txar batek tristuraz eta amarruz bete zituen jende askoren barrenak. Bizitzako adin eder honetan zegoen gazte

"Neurriak hartzen hasteko ordua da. Ezin da guztia 'istripu' hitzaren atzean ezkutatu"

batzen heriotza Elorriion. Biziak atarian pausoak ematen ziharduen gazte baten heriotza. Lan istripua. Istripua? Arduradun gabeko istripua? Magnesio bustia, leherketa itzela, gorpu kiskalia eta askorenrentzat bizitza hautsia. Eta istripua? Istripuarena baino itzal beltzagoa du kasu honek ere bere atzean, beste askoren antzean.

Istripu hitza ahaztu eta neurriak hartzen hasteko ordua da. Ezin da guztia istripu hitzaren atzean ezkutatu. Produkzioa eta etekinak baino gauza garrantzitsuagoak badaude lantoki barruetan.

Nora eta lanera joan eta ez itzultzea baino amaiera tristeagorik imaginatzea zail egiten zait.



943 76 07 78. Bergara

POL-POL Taberna

ARRANDEGIA > ARRANDEGIA ZABALTZEKO LIZENTZIA ESKATU DUTE

Elgetako arrandegia martxan jartzeko aukera

32 urtez Eibarko merkatu plazako Dominguez arrandegian lan egindako Puri Piñeirok zabaldu gura du negozioa abenduaren 11n

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Badira bi urte Garbiñe Ormaetxeak Salvador kaleko arrandegia itxi zuela. Ordutik hona eguen goiztan soilik eros dai-teke arrain freskoa Elgetan, Elorrioko arrain saltzaile batek furonetan ekartzen duena, alegia.

Baina badirudi laster izango dugula atzera arrandegia herrian. Puri Piñeiro eibartarrak agertu du negozioa martxan jartzeko intentzioa: "46 urte ditut eta langabezi gelditu naiz Eibarko merkatu plazako Dominguez arrandegia itxi dutenean", adierazi dio GOIENKARI. "Elgetako lokala ikusi dut eta txikia bada ere nahiko iruditzen zait lehenengo pausoak emateko".

Abenduaren 11n zabaldu gura du arrandegia Piñeirok, Gabonak data onak baitira arrain salmentarako. Haren asmoa da arraina Mercabilbao-tik ekartzea eta arrandegia martxinetik zapatura zabaltzea, goizeko ordutegian. Inaugurazioa ere egin gura luke, behin lokala txukundu eta bere beharrerata egokitu ostean.



BI URTEZ Eguren goiztan soilik egin da arrain freskoa herrian erosteko aukera. L.Z.

UDALA TRAMITEAK EGITEKO PREST

Elgetako Udalean pozik hartu dute albistea eta prest agertu dira negozio berri hori martxan jartzeko tramite guziak areagotzea. Hortik aurrera, baina, herritar guztion esku egingo da komertzio hori eta herriko gainerako guziak bultzatu eta mantentzea".

lizentzia emateko", azaldu du Oxel Erostarbe alkateak. "Izan ere, garrantzitsua iruditzen zai-gu herriak dituen zerbitzuak areagotzea. Hortik aurrera, baina, herritar guztion esku egingo da komertzio hori eta herriko gainerako guziak bultzatu eta mantentzea".



Elgetako Athletic zaleek egin dute eratze-batzordea

Elgetako Athletiken lagunarteak badu zuzendaritzat batzordea. Felix Irizar da presidente, Satur Ramos presidente-ordea, Asier Castelos idazkaria eta Jose Monterroso diruzaina. Bokalak Javi Gamarra, Aitor Zamakona, Sebastian Arantzabal, Jose Ramon Sarasua eta Jose Antonio Urizar dira. Baskide egiteko bolatokian utzi behar dira izena eta telefonoa.

IKUSKIZUN POLEMIKOA

Leo Bassik emanaldia du bihar Espaloian

L.Z. > ELGETA

Leo Bassik bihar, zapatua, egingo du *Instintos Basicos* izeneko emanaldia Espaloian. Albiste izan da ikuskizuna azken asteotan; izan ere, bertan behera uzteko eskaera jaso ditu Udalak. Hainbat bazkide eta antzerkizalek egindako galderari erantzuna emanez, Espaloitik adierazi dute antzelana normaltasun osoz egingo dela: "Segurtasun neurri guziak egongo dira", esan dute. "Ez izan dudarik, etorri eta izan zu zeu epaile. Ez utzi inork zure iritzia goberna dezan". Sarrerak erritmo politean saltzen ari direla gaineratu dute. 22:30ean izango da.

> IPUIN KONTALARIA Gaur, liburutegian 10 urtetik gorako umeendako saioa

Ipuin saioa egingo du gaur Elgetan Kandelen Argipean taldeko kide batek. Emanaldia Udal Liburutegian egingo dute, 18:00etan hasita.

Arrazoien bila izeneko kontakizuna egingo du Begoña ipuin kontalariak. Ekintza 10 urtetik gorako umeei zuzenduta dago.

> BOLETA TXAPELKETA Gaur 23:00etan hasiko dute boleta txapelketa

Gaur, barikua, emango diote hasiera urteroko Gabonetako boleta txapelketari, bolatokian. Gainerako saioak abenduaren 15ean, 22an eta 29an egingo dituzte, 23:00etan.

Saio bakoitzak bere saria izango du. Azken saioan, gainera, erregularitasun txapelketako sariak banatuko dira.

KONDE PANADEROKUA



Burdinatze 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

Manex Agirre > Bertsolaria

"Oso giro ona topatu nuen Etxabarrin eta bertso saioak afalostean izateak asko lagundu du"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
Manex Agirre bertsolari aramaioarra Gasteizen jokatuko den Ber txoko bertso txapelketaren finalean izango da bihar. Txapelketak hiru kanporaketa izan ditu eta hilaren 17an Etxabarri Dibinan egindako kanporaketan sailkatu zen aramaioarra finalerako. Txapelketa guztian zehar oso giro ona egon dela azaldu digu eta Gasteizen txapela lortzeko gogor lan egingo duela aitortu du Agirrek.

Finaleko kartelean zure ize na ikustea espero zenuen?

Ez, ez nuen espero. Egia esan, finalean izatea ez duzu sekula espero. Gainera, bertsotan hasi aurretik ez dut horrelakoetan pentsatzen. Gero bai, bertsotan hasita, orduan hasten naiz buruari bueltaka, botatzen ditu dan bertsoek ematen didaten impresioaren arabera.

Eta zer impresio zeneukan hilaren 17ko kanporaketan?

Egia esan, oso ondo sentitu nintzen. Giro oso ona topatu nuen Etxabarri Dibinan. Uste dut, gainera, afalosteko saioak

izateak asko laguntzen duela giro hori lortzen. Bertsotan hasiko momentua iristen denerako giroa berotuta egoten da.

Elkarteen egiten diren afalosteko saioak ala aretoetako txapelketak, zeintzuk dituzu gustukoen?

Nik uste dut biak ere beharrezkoak direla. Zeharo desberdinak dira, giroa asko aldatzen da batetik bestera. Bainaz aurreira egiteko beharrezko da bietan ere eroso sentitzea. Gainera, uste dut bata bestearekin osatu egiten direla.

Zer moduz joan da orokorrean txapelketa? Zer azpimarratuko zenuke?

Duda barik, saioetako giro ona. Oso saio politak izan dira orain arteko guztia.

Bihar finala jokatuko da Gasteizen; zer moduz ikusten duzu zure burua finalerako?

Ba ez dakit. Iku egin beharko da nola doan guztia. Egia esan, oraingoz ez daukat ardura handirik eta ez dut horretan askorik pen-



Manex Agirre.

GOIENKARIA

"Saioetako giroa azpimarratuko nuke, oso saio politak izan dira orain arteko guztia"

"Egia esan, oraingoz ez daukat ardura handirik eta ez dut finalean askorik pentsatu"

tsatu. Ni ahalik eta ondoen egiten ahaleginduko naiz eta gero ikusi egin beharko da...

Finalean zeinek ematen dizu beldur handien?

Ez dago beldurrik. (Barre) Ez dakit, denok ezagutzen dugu elkar. Bainaz bueno, hark ere GOIENKARIA irakurtzen duenez, Jokin Labayen arrasatearrari botako dizkiot oraingoan loreak. Orain arte oso lan ona egin du.

UDALBATZA > OSOKO BILKURA

Osasun zerbitzuak aztertuko dituzte

Osakidetzarekin harremanetan jarrita, herriko osasun zerbitzuen azterketa orokorra egingo da

Udaletxeko arkueetan postontziak jarriko dituzte elkartea eta baserriendako

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
 Eguaztenean azaroari dagokion osoko bilkura egin zuten Aramaion eta, besteak beste, osasun gaiak izan zituzten hizpide. Izan ere, osasun etxetik Udalari esku tu diote margotze lanak eta berrikuntzak egitea. Hori horrela, Udal epe laburrera osasun etxekek bilduko da, haien dituzten eskaerak entzun eta bertako egoera aztertzeko. Herrian pediatra baten beharra ere ikusten du Udalak. Horregaitik, Osakidetzarekin harrema-

netan ipini gura dute Aramaiko osasun zerbitzuen azterketa orokorra egiteko.

POSTONTZIAK

Osoko bilkuran onartu zuten, bestetik, udaletxeko arkueetan postontziak jartzea. Izan ere, herritik urrun dauden baserriz batuetan arazoak izaten dituzte posta jasotzea. Kultura etxeen dagon elkartea bakotzak ere postontzi bat izango du elkartea bakotzaren posta bereizteko.



OSOKO BILKURA Azaroko osoko bilkura egin zuten eguztenean.

A.B.

EAJ-KO ZINEGOTZIA

Iñaki Nafarrate EAJKO zinegotzi ohiak dimisioa aurkeztu zue netik alderdi horrek Aramaiko udalbatzan daukan hirugarren eserlekua hutsik egon da. Azkeneko osoko bilkuran, urriari zegokionean, esaterako, EAJKO bi zinegotzi bakarrik egon ziren.

Eguaztenean egindako osoko bilkuran, baina, hiru eserlekua beteta ikusi ahal izan genituen. Juan Miguel Loiti, EAJKOren zerrendan laugarrenak, beteko du aurrerantzean orain arte hutsik egon den postua. Loitiren kargu-hartzea izan zen osoko bilkuren lehenengo puntua.

> AUZO ALKATEAK
Izendatu dituzte dagoeneko Ibarrako bi auzo alkateak

Jose Carretero izango da hemendik aurrera Ibarra auzoko Ibargoia, Iturrizuri eta Aita Gabirel kaleetako eta Bizente Goikoetxea plazako auzo alkatea. Nardeaga eta Pedro Ignacio Barrutia kaleetako eta Santakruz abadearen plazakoa, berriz, Fernando Perez izango da. Horixe izan zen Aramaioko Ibarra auzoko bizilaguneak joan den domekan emandako botoekin erabaki zutena. Aukeraketa horiekiz izendatuta daude, beraz, Aramaioko auzo alkate guztiak. Udalak auzo alkateekin harremana bultzatu nahi du. Horretarako lantalcondea osatu du herriko auzo alkate guztiekin eta lokal bat ere utziko die.

> ZINEMA
'Pipi Galtzaluze' filma kultura etxeen ikusgai domekan

Aramaioko txikitxoek zinemarekin hitzordua daukate domeka honetan ere. *Pipi Galtzaluze* filma botako dute kultura etxeen arratsaldeko bostetan. Telebistan eta liburuaren horrenbestetan ikusitako neskato xelebrearen gorabeherak ikusteko aukera izango dute, beraz. Pipi, Galtzaluze kapitainaren alaba, munduko beste neskatoak ez bezalakoa da: gizon gihartsuak baino indartsuagoa, pertsona nagusiak baino bizkorragoa, eta, sinesgaitza bada ere, ez dauka ohera joateko inolako ordurik. Ozaba Txikia, Pipiren zaldiekin, Nilson Jauna tximinoarekin eta Pipiren lagun Kiko eta Anitarekin barre algarak ziurtatua daude.

> KULTURA
'Lankidetza argazkietan jasota' erakusketa Santiñan

Abenduaren 9ra arte Santiñan ikusgai egongo da *Lankidetza argazkietan jasota* era-kusketa. Arabako Aldundiak eta Gasteizko Udalak antolatutako ekimena da hori. Aste gunetan 17:30etik 19:30era bitartean egongo da zabalik erakusketa. Asteburuetan, berriz, 12:30etik 14:00etara.

Lankidetzen gaiarekin lotuta, eta herriko gaztetxoei begira, tailerra ere egingo dituzte. Atzo, dantza tailerra egin zuten eskolako gimnasioan eta astelehenean eskulan tailerra egingo dute kultura etxeen. Azkenik, abenduaren 4an herri desberdinako musikekin kontzertua egingo dute kultura etxeen.

LANAK > SORAN ETXEA

Soran etxea ostatu bihurtzeko lanak, aurreikusitako moduan

Teilatua bukatzen
dabiltza eta surrealdea
Gabonetaroko
bukatuta egongo da

Ostatua eta jatetxea
datorren urteko
irailean zabaltzeko
asmoa dute ugazabek

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Dagoeneko urtebetea pasatu da
Soran jauregia konpontzen hasi
zirenetik. Orduan urte eta erdi-
ko lanak aurreikusi zituzten, eta
Monse Valerio ugazabak martxa
onean doazela baieztago digu.

HABE IKUSGARRIAK
Soran jauregia edo Indianokoa
egoera benetan eskasean zegoen
orain dela urte eta erdi. Udalak
saltzeko asmoa azaldu zuen jau-
si aurretik, eta Gaztainuzketako
mendi etxeak kudeatzent dituen
Monse Valerio eta Loren Larra-
ñaga bikoteak erosia zuen. Euren
asmoa zen konpondu eta ostate
bihurtzea. Hala, azaro inguruan
hasi zituzten zaharberritze lanak,
eta urtebetea geroago martxa one-
an doazela ziurtatu digute: "Tei-
latua bukatzen dabiltza eta Gabon



SORAN JAUREGIA Aldamioz beteta dauka surrealdea ostate bihurtuko duten Soran jauregiak.

M.A.

ingururako surrealdea guztiz
bukatuko dute. Egia esan, berri-
tuta dago surrealdea, baina mar-
gotzea geratzen zaie langileei.
Orain aldamioz beteta dago eta
ez da ondo ikusten; behin mar-
gotuta, beharbada kendu egingo
dituzte", argitu digu Valeriok.

Barrualdeari dagokionez,
egurrezko habeak eta lurzorua
berritu dituzte: "Ahal izan dugun

guztia mantendu dugu, eta habe-
ak ikusgarri geratu dira", adie-
razi du Valeriok.

IRALEAN, ZABALIK
XVIII. mendean eraikitako jaure-
gi dotorea da Soran, baina
aurretik beste bat egon zen ber-
tan. Santiago kalean dago, eta las-
ter ostatea izango da. Hamar
logela izango ditu, 70en bat lagu-

nendako jangela, laneko batzarre-
tarako egongela jangela txiki
batekin, taberna eta ugazaben
bizileku. Sotoan, osteria, biltegia
eta komunak jarriko dituzte. Eta
datorren urteko irailean zabal-
tzea gura dute Valerio eta Larra-
ñaga bikoteak: "Udarako balite-
ke bukatuta izatea, baina iraile-
an zabaltzea erabaki dugu".

Soran jauregiko ostatea zabal-
tzerakoan Gaztainuzketako mendi
etxeen kudeaketa utzi egingo
dute: "Biak mantentzeak lan han-
dia eskatuko liguke, eta ez dugu
jarraituko Gaztainuzketan.
Horrek ez du esan gura itxi egin-
go direnik", argitu du. Udalarenak
dira mendi etxeak, eta hark era-
baki beharko du zer egin.

ZERBITZUAK > GASA

Astelehenean bete zituzten gas-deposituak, eta herritarrek alta eska diezaiokete Repsol

Argibideak eskatu edo
alta emateko
telefono zenbakia
jarri du Repsolek
herritarren eskura:
901 17 01 70

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Astelehenean, azaroak 26, bete
zituen Repsol enpresak herria-
ren gainaldean dauden bi gas-
deposituak. Urtebete itxaron
behar izan dute gatzagarrek
gasa iristeko, baina neguan etxe-
an izango dute batzuek: lehenen-
go fasean gasaren hodiak sartu
zizkietenek, hain zuzen.

HERRITARREI ARGIBIDEAK
Orain etxe barrura sartu behar
dute gasa, eta, horretarako, ins-
talazio lanak egin beharko dituz-



GAS-DEPOSITUAK Astelehenean bete zituzten herriaren gainean dauden biak. M.A.

te batzuek eta alta eskatu guztielk.
Repsol enpresak telefono zenba-
ki bat jarri du herritarren zerbi-
tzura edozein argibide eskatzeko
eta alta eskaerak egiteko. Hona
zenbakia: 901 17 01 70.

Bestalde, bigarren faseko
gasaren lanak egiteko deialdia
egin du Udalak, eta abenduaren
12an bukatuko da eskaerak aur-
kezteko epea. Urtea bukatu aurre-
tik erabaki gura du zeinek egin.

> BATZARRA
**Batzarra egingo du
Gurelek astelehenean,
batzordea aldatzeko**

Gurel guraso elkarreka batzarra
egingo du astelehenean, aben-
duaren 3an. 18:30ean izango da,
Toki Eder elkartean, eta elkar-
eko baziak guztiei egin diete dei
hurreratu eta ekarpenak egin
ditzaten.

Gai nagusi bi izango dituzte
berbagai: zuzendaritza batzor-
dearen aldaketa eta Gabonak.
Batzordeko bi kideri alde egitea
egokitzent zaie -presidente eta
diruzainari-, eta ordezkoak hau-
tatu beharko dituzte. Ondoren,
karguen banaketa ere egingo
dute. Bestalde, Gabon jaietan
egingo dituzten ekitaldiak anto-
latuko dituzte: jaiotza jarri edo
ez, Olentzeroarekin irten...

HIRIGINTZA

Txabolen gaineko ordenantza aldatu dute

Herrian bertan ere
egin ahal izango
dituzte orain

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Txabola eta estalpeak eraiki-
tza arautzen duen udal ordenan-
tza aldatzea erabaki zuen
udalbatzak orain dela hilabe-
te inguru. Ordenantza haren
arabera herrian bertan ezin
zitekeen txabolarik egin,
gutxienez 200 metrora egon
behar zuten. Hori, baina, alda-
tu eta gutxienezko distantzia-
rik ez jartzea erabaki zuen.
Eusebio Villar alkateak era-
baki haren arrazoia azaldu
digu: "Ortu gehienak herri
inguruan dituzte gatzagarrek,
eta txabola ere bertan behar
dute lanabes eta gainerako-
ak gordetzeko. Baimenik
eman ezean modu txarrean
egiten dituzte; hortaz, baime-
na eman eta behar bezalako-
ak egitea hobe izango dela
pentsatu dugu".

KALTEORDAINIK EZ

Aldatutako ordenantzan
zehaztu dute, gainera, inoiz
lanen bat egiteko -hodiak sar-
tu, kaleak txukundu... - txab-
ola bota beharko balute Uda-
laren aginduz, kalteordinak
eskatzeko aukerarik ez dute-
la izango ugazabek.

Ordenantzari egindako
aldaketak ikusgai daude uda-
letxeen azaroaren 16a ezkerro.
Eta herritarren batek alega-
zioren bat jarri gura izanez
gero, abenduaren erdira arte
izango du epea. Halakorik ez
bada gertatzen behin betiko
onartuta geratuko da orde-
nantza berria.

> BERBALDIA
**Minbiziaren gaineko
berbaldia, Katxalin
eskutik, abenduaren 11n**

Bularreko minbiziaren gaineko
berbaldia egingo du Katxalin
elkartea, Bularreko eta Gineko-
logiako Minbiziagatik Eraginda-
ko Emakumeen Elkarteak, hain
zuzen. Udal Gizarte Zerbitzuak
antolatu du ekitaldia Katxaline-
kin batera eta abenduaren 11n
izango da, martitzena, 18:00etan,
kultura etxeen.

Bularreko minbiziaria lehenbai-
lehen atzemateak duen garran-
tziaren gainean jardungo dute
Katxalin elkarteko kideek. 50
urtetik gorako emakumeei zuzen-
dua dago bereziki berbaldia, bai-
na gaiaren garrantzia jabetuta
Gatzagako emakume guztiei egin
diete gonbidapena.

Ander Gartzia > TAU Ceramicako jokalaria

"Neven Spahijak kantxaratzeko agindu zidanean, segituan erantzi nuen jertsea"

XABIER URTZELAI > GASTEIZ

Gasteizko Buesa Arenan izan gara aste barruan, TAU Ceramicako jokalaria Ander Gartzia bergararrarekin berbetan. Lehenengo urtea du talde gorenean, eta dagoeneko jaso du entrenamenduetan egindako lanaren saria: Euroligan debuta egitea. Orain, ACB ligan ere gura ditu minituak.

Zelan iritsi zara Europako talde indartsuena batean jokatzen?

Bueno, hori izan da txikitik izan dudan ilusioa, ametsa, eta amets hori egia bilakatu da orain. Eguneroko lanari esker lortu dut helburu hori.

Zer moduz orain arte taldean egin dituzun hilabete hauetan?

Taldekideek oso ondo hartu naute, taldeko juniorra naiz, eta bromak egiten dizkidate. Taldeko giroa daukagu; esaterako, Boulebardera joaten gara egunero denok baziak zera, eta uste dut kantxan ere igarri egiten dela hori.

Zelakoa da Ander Gartziaren eguneroakoa?

Egia esateko, nahiko gogorra. Goizean bi orduko entrenamendu saioa egiten dugu, eta normalean nahiko lan fisikoa izaten da, gimnasioa... Eta, arratsaldeko lan-saioan baloiarekin ibiltzen gara gehiago, edo kontrarioak aztertzeko bideo emanaldiak eta horrelakoak izaten ditugu.

Eta, batzuetan beheko kategoriako taldeari, Baskoniari, lagun-

tza joaten naiz; hortaz, egunean hiru entrenamendu izatea gogorra izaten da. Asteburuetan, berriz, talde nagusiarekin egoten naiz, eta ahal dudanean Baskoniarekin jokatzen dut.

Zein da TAU Ceramican egin behar izaten duzun lana?

Funtsean, taldeari entrenatzen laguntzea da nire lana, eta alde horretatik ahal dudan guztia egiten dut.

Eta gero, entrenatzaleak jokatzeko aukeraren bat edo beste ematen badit, ba hori aprobetxatzentz ahalegindu.

ACB Ligan oraindik ez, baina dagoeneko Euroligan egin duzu debutua, Vidi Vici Bolognaren kontra. Partidu hartatik zeoroitzapen duzu?

Oso oroitzapen ona. Markagailuan taldeak alde handia zuen eta minutu baten faltan entrenatzaleak kantxaratzeko esan zidan. Berehala erantzi nuen txandala, eta urduri samar nengoen.

Bazuen debutu egiteko esperanzarik?

Bai, beti izaten da esperantza. Gainera, erraz irabazten ari ginen, eta banekien hura momento aproposa izan zitekeela. Baina minituak joan ahala geroago eta aukera gutxiago nituen, entrenatzaleak jokatzen irteteko esan zidan arte.

Eta kantxan egindako minutuan, pase on bat eman eta errebote batean borrokan iku siintugun.

Taldekideak ahalegindu ziren balioa niri ematen, eta bai, errebotera neukan guztiarekin joan nintzen. Motza egin zitzaidan, baina zaleak txaloka nituela kantxaratu nintzen, eta oso hunkigarrria izan zen.

Seguru hura izango duzula partidu gogoangarriena, baina egongo da besterik.

Euroligan jokatutako beste norgehiagoka bat, Grezian. Han zegoen giroa sekulakoa zen, zelako presioa kontrarioarendako! 15.000 lagun abesten... Atsedaldian ere ez ziren isiltzen.

Zer sentitzen du aulkian dagoen jokalariak?

Normala den moduan, jokatzea izaten da helburu nagusia, horretarako egiten dugu-eta lan. Aulkian nagoenean taldekideak animatzen ditut, badakit-eta euren lana ondo egiten badute jokatzeko aukera gehiago izango ditudala.

Maila goreneko jokalariekin entrenatzen zara egunero, zure jokoan ere igarri egingo da hori.

Azken batean, Europako jokalari onenetako batzuk ditugu taldean, eta egia da asko nabilela ikasten. Urte garrantzitsua da niretako.

Eta zelan ikusten duzu etorkizuna? TAU Ceramican jokatzea gaitza da, eta jokalari gazte batek minutua behar ditu.


Bai, egia esateko, ez dakit datorren urtean non egongo nai-

KONTUAN HARTZEKO

Kadete mailako bigarren urtean egin zuen Gartzia Bergaratik Gasteizera

18 urte bete berri, Ander Gartzia (Bergara, 1989) dagoeneko badaki Euroligan jokatza zer den. Urte gutxi dira Gartzia Bergarako saskibaloi kantxan jokatzen zuela, eta Europako estreinaldia egin berri du. Kadete mailako bigarren urtean egin zuen Gasteizera, eta oraindik ere ia-ia gazte mailako jokalaria da; taldekideek esaten dioteng moduan, taldeko juniorra.

Gasteizen, Baskoniako maila txikienetan jokatu du, eta Euskadiko selekzioarekin ere izan da. Aurten talde gorenari, TAU Ceramicari, entrenatzen laguntzeko igo dute gora, eta profesional batek daukan bizimodua jarraitzen du Gartzia ere: entrenatu, atsedet hartu, ikastetxeren batera joan Baskoniaren ordezkarri moduan gazteekin egotera... Egun batetik bestera -eta lana gogoz eginda- Europa mailan dagoen talde indartsuena batean dago Gartzia. Hankak lurrean izanda, badaki etorkizunean Gasteizen jokatza oso gaitza izango dela, baina dagoeneko Buesako zaleak zutiarazi ditu, eta txalo artean hartu dute.



Ander Gartzia



Ander Gartzia, aste barruan, Gasteizko Buesa Arena pabiloian egindako elkarritzetan; aste

zen. Oraingo, taldeari daukadan guztia ematea da gura dudan, ilusio handiarekin nabil, baina egia da ni moduko jokalari gazte batendako ezinbesteko dela minituak jokatzea.

Datozen urteei begira, ez dakit ACB Liga edo kategoria txikia-goko ligak ikusten dituzun geruago.

Horrelakoetan jokalariak anbizio apur bat izan behar due-la uste dut, eta maila gorenari, ACBko begira egon. Datorren urtean, esaterako, oso ondo egongo litzateke ACBko talde txikia-goren batek fitxatzea, orain baino minitu gehiago jokatu ahal izateko. Baino ez dakit horretarako aukerarik izango dudan; dena dela, lehen esandako

"Taldekideek oso ondo hartu naute; gainera, talde giro oso ona daukagu gure artean, eta kantxan ere igarri egiten da hori"

"Batzuetan Baskonia taldearekin jokatzen dut, eta oraingo zapatuaren Arrasaten jokatu ahal izango dut, MUREN kontra"



XABIER URTZELAI

TALDEKIDEEN GAINeko IRITZIA

> NEVEN SPAHIJA (ENTRENATZAILEA)

Oso entrenatzaile ona da. Kantxa barruan jokalarion gainean egoten da, baina kantxatik kanpora broma giroan ibiltzen da.

> PABLO PRIGIONI

Izugarrizko jokalaria da Prigioni; nire uste, Europako base onenetako. Eta oso tipo jatorra.

> IGOR RACOCEVIC

Guztiok ezagutzen dugu Racocevic, eta badakigu ze maila duen. Akaso, boladaka jokatzen du, eta batzuetan ez du maila onena ematen. Baino ondo jokatzen duenean...

> SERGI VIDAL

Taldean daukadan lagun handiena da Sergi. Defentsan egiten duen lana azpimarratuko nuke.

> ZORAN PLANINIC

Oso jokalari elegantea da; entrenamenduetan ere gauza ikusgarriak egiten ditu baloiarekin.

> LUCHO FERNANDEZ

Ni bezala, hura ere gogor entrenatzen dabil, jokatu ahal izateko. Luchori konpetentzia apur bat egiten ahalegintzen naiz, biok postu berean jokatzen dugulako.

> MIRZA TELETOVIC

Iaz nahiko motel amaitu zuen denboraldia, baina aurten ilusio handiarekin dabil, oso indartsu ikusten dut.

> SIMAS JASAITIS

Min hartuta egon da, eta ez du urtea gura moduan hasi. Baina poliki-poliki hasi da aurrera egiten, eta ondo dabil entrenatzen. Ea minutu gehiago dituen.

> JAMES SINGLETON

Zorte oso txarra izan du, belauna hautsi zuen-eta. Baina entrenamendu eta partiduetara animatzera etortzen da, eta hori eskertu egiten da.

> TIAGO SPLITTER

Akaso, gurekin jokatuko duen azken urtea da, NBAra salto egiteko. Oso jokalari ona da, eta aurten erakutsi behar du daukan guztia.

> PETE MICKEAL

Oso jokalari indartsu da, eta entrenamenduetan harengana indarrez joaten ez denak ez dauka ezer egiterik.

> LINTON JOHNSON

Singleton min hartuta dagelako etorri da Linton, eta jokalari ona dela erakus-ten dabil.

> WILL MC DONALD

Konponduta daude hasieran izan zituen arazoak, eta taldeari laguntzen dabil orain.

chenean GOITBn izango da, Harmailatik saioan.

moduan, orain gura dudan gauza bakarra taldeari lagundu eta gehiago ikastea da.

Maila goreneko saskibaloia alde batera utzita, aipatu duzu noizean behin lehenengo mailako Baskoniarekin jokatzen duzula; taldeak igarri egindo du kantxan zaudela.

Bueno, egunero entrenatzen naizenez, hori igarri egiten da. Eta Baskoniarekin jokatzen dudanean ere beti ahalegintzen naiz taldeari laguntzen; betiko taldekeideak ditut han, eta ilusioarekin joaten naiz eurekin jokatzen.

Gainera, asteburuan Iturripen jokatuko du Baskoniak, Mondragon Unibertsitatearen kontra. Jokatzeko asmorik bai?

Bai, bai, han izango naiz. Tau Ceramicak domekan jokatuko du Iurbentia Bilbao Basket taldearen kontrako derbia, eta Arrasateko partidua zapatuian izango denez ez dut arazorik izango. Gainera, Mondragon Unibertsitatea lider dago sailkapenean, eta gu bosgarren lekuaren gaude; taldeari laguntzera joango naiz, eta ea partidu hori irabazteko gauza garen...

Eta ahaztu aurretik, maila goreneko saskibaloiaz nekatzen zaren egunean, Arrasaten edo Bergaran esku zabalik hartuko zaituzte.

(Barre). Bergarako taldean egin nituen saskibaloiko lehenengo urteak, eta orain ere lagunak ditut han jokatzen.

> MENDIKO ESKIA

Aitor Otxoa eta Arkaitz Letamendi oñatiarrak Euskadiko mendiko eskiko selekzioan

Euskadiko Mendi Federazioak martitzenean aurkeztu zuen mendiko eskiko denboraldi berria. Eta, aurkezpenean izan ziren selekzioko kide diren Aitor Otxoa eta Arkaitz Letamendi. Guztira bost lagunek osatuko dute selekzioa, eta tartean daude Oñatiako bi eskiatzaileak.

Iaz hika-mikak izan ziren federazioaren eta lasterketak antolatzen dituzten lagunen artean, baina badirudi atzean geratu direla eztabaideak, eta kirol hori bultatzeko saiakera egingo dute aurten. Horretarako, harrobia lantzko deialdia egin diente 15 eta 25 urte bitarteko eskiatzaileei. Izena ematen duten gazteak Luz Ardidenen elkartuko dira, abenduaren 27tik 30era arte.

> ESKUBALOIA

Bergarak Bilbon jokatuko du zapatuan eta Ford Mugarri Arrasatek Donostian domekan

Portugaleteren kontra batutako bi puntuak esker bosgarren lekuaren dago Ford Mugarri Arrasate, eta Arrasatekoek oraindik atzerrutako norgehiagoka bat dute jokatzeko. Bederatzi jardunaldiitan, Fertxuren eta Balerdiren mutilik 12 puntu batzeko gauza izan dira. Ondo hasi dute denboraldia, baina biharko kontrario Egia Servi Chapek (19:00) hobeto egin ditu etxeeko lanak: dagoeneko hamasei puntu dituzte, eta hirugarren daude sailkapenean.

Bergarak ere etxetik kanpora jokatuko du asteburuan, Bilbon, Escolapios taldearen kontra (domekan, 12:30). Sailkaparen erdian dago Bilboko taldea, eta Bergarakoak etxetik kanpora lortutako lehenengo garaipenaren bila joango dira.

> FUTBOLA

Mondrak eta Aretxabaletak Hondarribia eta Euskalduna hartuko dituzte asteburuan

Hamabosgarren postuan dagoen Hondarribia hartuko du Mondrak asteburuan. Arrasateko taldeak azken asteetan izan dituen gorabeherak direla-eta, Mondrak inoiz baino gehiago behar ditu hiru puntu horiek.

Aretxabaletak, berriz, sailkapenean gertu duen Euskaldunaren bisita izango du domekan. UDA zazpigarren dago (19), eta posatu bat atzerago dago Euskalduna (18). Azkenik, Oñatioko taldeak etxetik kanpora jokatuko du, Eibartarrak taldearen zelaian. Kontrario hori atzealdean dago, eta oñatiarrek jarraian eskuratutako laugarren garaipena daukate buruan.



GOIENKARIA

Gipuzkoako Txapelketa eskura

Aitor Alcaide aretxabaletarrak eskura dauka Gipuzkoako Txapelketa. Biar jokatuko dute azken jardunaldia Billabonan, eta Aretxabaleta-ko lehenengo postua defendatzen ahaleginduko da. Jokatutako sei jardunaldiitan Alcaidek 5 puntu eskuratu ditu, eta biar, hirugarren postuan dagoen Eduardo Sanz izango du aurrean.

ATLETISMOA > DONOSTIako 30. MARATOIA

Iker Larrea antzuolarra azkarrena maratoian

X.U. > BERGARA

Berrogeita hamar debagoienda rrek amaitu zuten joan den domekan Donostiako maratoia. Aurrez, Ritxar Fernandez genuen ordezkari indartsuena, baina 28. kilometroan bertan behera utzi zuen proba, eta Iker Larrea antzuolarak hartz zion errelebua. Larreak 2:38:32 segundotan egin zituen 42 kilometroak.

Aipatu, helmugara iritsi ziren 50 lasterkari horietatik 23 Bergarakoak direla. Eta, ezin ahaztu Bixente Pagaldairen balentria: 30.aldiz iritsi zen helmugara.



BERGARAKO KOADRILA Lasterketa amaitutakoan egindako erretiratua. Aitor Eraña

DONOSTIako MARATOIAN DEBAGOIENDAREN MARKAK

41.	Iker Larrea (Antzuola)	2:38:32
64.	Roberto Zurro (Bergara)	2:42:12
86.	Xabier Iribekanpos (Arras.)	2:42:47
168.	Bittor San Jose (Aretxaba.)	2:50:41
176.	Mikel Larrañaga (Antzuola)	2:51:24
184.	Javier Moreno (Bergara)	2:52:05
188.	Jabi Ibarra (Bergara)	2:52:09
193.	Eduardo Moreno (Bergara)	2:52:16
197.	Ifnaki Muxika (Bergara)	2:52:36
203.	Asier Osinaga (Oñati)	2:52:39
212.	Xabier Elkoro (Bergara)	2:53:20
218.	Arkaitz Ruiz de Loiz. (Berg.)	2:53:20
234.	Aitor Eraña (Bergara)	2:54:11
242.	Jose Antonio Akitu (Berg.)	2:54:12
258.	Aitzol Guridi (Oñati)	2:55:22
281.	Ander Garitano (Bergara)	2:56:03
391.	Igor Lazcano (Eskoriatza)	2:58:57
407.	J.R Gutierrez (Arras.)	2:59:39
409.	Iban Agirrebeña (Bergara)	2:59:18
487.	Ruben Ramos (Arrasate)	3:01:55
502.	Aitor Elkoro (Bergara)	3:02:12
550.	Aitor Larrea (Bergara)	3:04:07
568.	Josu Bideburu (Aramaio)	3:04:38
636.	Angel Blazquez (Arrasate)	3:07:01
681.	Aitor Ayala (Eskoriatza)	3:09:15
684.	Joaquin Gonzalez (Bergara)	3:09:54
744.	Fernando Uribesalgo (Aretx.)	3:11:25
842.	Gaizka Aranburu (Oñati)	3:14:07
918.	Jesus Egino (Bergara)	3:15:43
945.	Xabier Garitano (Bergara)	3:17:13
961.	Alberto Ozeta (Arrasate)	3:17:34
974.	Xabier Zenitagorta (Bergara)	3:18:16
976.	Amilio Galan (Arrasate)	3:17:42
1153.	Igor Basauri (Bergara)	3:23:31
1264.	Raul Mendaraz (Arrasate)	2:59:39
1308.	Jose Galdos (Oñati)	3:26:44
1390.	Miguel Gorgon (Oñati)	3:28:37
1664.	Rufino Ayastui (Oñati)	3:37:04
1709.	Pello Martin (Oñati)	3:39:23
1754.	Sabino Azkarate (Bergara)	3:42:11
1765.	Jose Manuel Larrea (Berg.)	3:44:28
1846.	Bixente Pagaldai (Bergara)	3:46:59
1910.	Shane Curley (Bergara)	3:49:28
1911.	Carlos Aldai (Bergara)	3:49:54
1951.	Alberto Larrea (Oñati)	3:51:57
1988.	Modesto Caceres (Antzuola)	3:55:17
2033.	Pablo Arejolaleiba (Oñati)	3:56:42
2034.	Azibar Orueta (Oñati)	3:56:45
2092.	Josu Errasti (Antzuola)	4:01:31
2093.	Jon Kortabarria (Antzuola)	4:01:34

ardo araba gasteiz on

vitoria-gasteiz • ardoen festa araban
6 / 7 / 8 • abendua • 2007

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Sevilla-Reala
Zapatua. 18:30. Sanchez Piz.

Preferente maila
Eibartarrak-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Unbe.

Mondra-Hondarribia
Zapatua. 16:30. Mojategi
Aretxabaleta-Euskalduna
Domeka. 16:30. Ibarra.

Lehen erregionala
Bergara-Amara Berri
Zapatua. 15:30. Agorrosin.
Elgoibar-Antzuola
Domeka. 16:30. Mintxeta.

Bigarren erregionala
Aretxabaleta-Anaitasuna
Zapatua. 17:30. Ibarra.

Lehenengo maila
Pub Shepherd-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Billabona.

Hirugarren maila
UDA Izotz-Yone Boutique
Zapatua. 18:00. Aretxabaleta.
BTLS-Gazteak
Zapatua. 17:30. Ipintza.

Ohorezko mailako gazteak,
igoera fasea
Hondarribia-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Ondartza.

Beasain-Bergara
Zapatua. 16:00. Igartza.

Gizonezko seniorrak
Candy-Ordizia
Zapatua. 16:00. Bergara.
Donibane-MU
Domeka. 12:00. Pasaia.
Aloña Mendi-Novamark
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

Emakumezko seniorrak
Eskoriatza-Oiarso
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketa
Egia Servi-Ford Mugarriz
Zapatua. 19:00. Donostia.

Escolapios-Bergara
Domeka. 12:30. Bilbao.

Emakumezko seniorrak
Zuazo-Verkol Aloña
Domeka. 10:45. Barakaldo.

Lehen maila territoriala
Arrasate-Decotena Pulpo
Domeka. 10:30. Iturripe.

Bigarren maila territoriala
Bergara-Usurbil
Zapatua. 19:15. Labagoraieta.
Amenabar-Aloña Mendi
Domeka. 13:00. Zubikoa.

Gazte maila, gizonezkoak
Aloña Mendi-Arrasate
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Gazte maila, emakumezkoak
Com.Elgoin-Verkol Aloña
Domeka. 11:00. Olaiagaz.
Bera Bera-Citroen Arrasate
Zapatua. 17:30. Donostia.

ERRUGBIA

Seniorrak
Universitario-Arrasate
Domeka 12:00. Bilbon.

Emakumezkoak
Arrasate-Getxo
Zapatua. 17:00. Mojategin.

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Gaur, 20:00, Bergaran:

Bergara-2Oiarpe

Bergara-Erriope

Gaur, 20:00, Aretxabaletan:

Aretxabaleta-Hernani.

Gaur, 20:00, Eskoriatzan:

Eskoriatza-Lapke.

Zapatua, 16:30, Bergaran

Arrasateko1-Bergara4

Arrasateko3-Euskar Jolas

Aretxabaleta2-Bergara1

Bergara3-Lagunak

antolatzalea

gasteiz on

laguntza teknikoa

turismo VITORIA-GASTEIZ

abra

ARAEX

RUTA DE VINO RIOJA-ALAVESA

babesle ofizialak

Vitoria-Gasteizko Udala
Ayuntamiento de Vitoria-GasteizArabako Foru Aldundia
Diputación Foral de ÁlavaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

babesleak bereziak

EL CORREO

Caja Vital Vital Kutxa

euskaltel

euskadi
con mucho gusto

laguntzaileak

VILLA LUCIA
CENTRO TEMATICO DEL VINO
LAGUARDIA (Alava)

PUNTO ● RADIO

álava7

babesleak

HOTEL ALMONEDA • BARCELÓ HOTEL GASTEIZ ETA BERE ARTAGAN JATETXEA • HOTEL GENERAL ALAVA ETA BERE EL FIGÓN JATETXEA • GRAN HOTEL LAKUA ETA BERE MARGOA JATETXEA • DOS HERMANAS JATETXEA • HOTEL VILLA DE LAGUARDIA

GASTEIZ ON / tel. 945 150 268 / www.gasteizon.com
OFICINA DE TURISMO BULEGOA / tel. 945 161 598
www.vitoria-gasteiz.org/turismo

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> AKORDEOIAK

Datorren astean munduko akordeoio jotzaile onenak Arrasaten > **45**



> KANPAINA

'Wall Street Journal' egunkariko artikuluaren aurka sinadurak > **50**

> LEIRE ALTUBE
Txirrindularia izandakoak gaur egun Zubikoa kirolegian spinning eskolak ematen ditu. Menda, trikitia, bertsoak eta bidaiatzea ditu zaletasun > **50**



GOIENKARIAn hiru marrazkigilek dihardute: Mikel Arroabe, Alex Ugalde eta Unai Busturia

Hchurek euren kasa ikasi eta txikitatik dute marrazteko ohitura

Betiko arkatzaz gain, irudiak egiteko ordenagailua ere erabiltzen dute

AITZIBER ARANBURUZABALA > BERGARA GOIENKARIAn, beste agerkari askotan moduan, idatzizko artikuluez gain, argazki eta marrazkiak daude. GOIENKARIAn hiru irudigile daude. Eurekin izan gara, marrazkien atzean dauden artistak ezagutzeko asmoarekin.

Mikel Arroabe


ARETXABAleta, 35 URTE

Bihar beteko ditu Arroabek 35 urte. Biologia ikasketak eginda, irakaslea da ogibidez; Arabako Errioxako Oiongo San Bizente ikastolan matematika eta natur zientzia eskolak ematen ditu. Lanegunetan Oionen bizi da, baina aste bukaera guztietan itzultzen da jaioterrira.

MARRAZKI ZALETASUNA

Txikitatik du marraztea gustuko: "Olio eta akuarelak ere egin ditudan arren, benetan gustatzenten zaidana marraztea da", azaldu du Aretxabaletako ilustratzaileak. 1994an argitaratu zituen lehen komikiak, *Aretxagazeta* aldizkarian. Horrez gainera, *Napartheid*, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Arrasate Press* aldizkarietan ere hainbat kolaborazio egin zituen.

Arroabek, baina, ez du agerkarietarako bakarrik marraztu: "Lan egin dudan ikastola guztietarako marraztu dudala esango nuke. Arizmendiko Argitxoren irudia pentsatu gabe ateratzen zait dagoeneko; horrez gain, hainbat Araba Euskaraz eta Kilometroak jai baterako ere egin ditut irudiak". Aipatzekoada, era berean, 2001. urtean Arrasateko Oskar Mayorrekin batera egin zuen Urkuluko txorien gaineko liburua.



(43. orrialdetik dator)

Bere kasa ikasi zuen aretxabaletarrak marrazten. Gustuko marrazkilariei buruz galdetuta, izen bakarra esaterik ez duela erantzun du. Orokorean, ordea, *Napartheid* aldzkariko lehenengo belaunaldia gustuko zuela erantzun du.

Bere marrazkiak horrela definitzen ditu: "Orokorean gure gizartea den modukoa islatzen saiatzen naiz, ahal den eta naturalen eta beti gai sozialen bat sartuaz. Arteak helburu soziala izan behar duela uste dut".

Irudigile moduan haurrentzako ipuinak ilustratzearkin amesten du; egunen baten lortuko duelakoan dago.

GOIENKARIA-N LANEAN

GOIENKARIAn, sortu zenetik marrazten duela azaldu du: "Aretxagazeta-ren jarraipena izan zen niretako. Hiruzpalau urtean *Olatz eta Patxi* komiki zinta egin nuen eta azkenaldian asteroko iritzi artikuluak ilustratzen ditut. Horrez gain, beste lan batzuk ere egin ditut; Gabon kantuen liburuak, besteak beste".

Alex Ugalde

BERGARA, 33 URTE

Egun Bilbon bizi da jaiotzez berargarra den Ugalde komikigilea. Liburu biltegi batean egiten du lan. Ugalderen zaletasunak marraztea eta komikiak irakurtea dira.

MARRAZKI ZALETASUNA

Marrazki zaletasuna anaiaren bitartez datorkiola azaldu du: "Txikitán Jabi anaia etengabe marrazten ikusten nuen eta anaiak egiten zituen irudiak kopiatzen nituen nik.". Marrazten ikasteko izan duen eskola egindako akatsak zuzentzaiza dela dio: "Komikiari buruz dakin eta apurra akatsetatik ikasi dut; oraindik ere asko egiten ditut". GOIENKARIAn izan ezik, komikiak egiteagatik apena ordainsaririk jaso ez duela dio; horrez gain, lehiaketetan parte hartu eta horietako bat ere irabazitakoa dela gaineratu du.

Bill Zienkiewitz, Mike Mignola eta Cadelo dira gustuko dituen marrazkilariak. Oso estilo ezberdinak gustatzen zaizkiola dio: errealistetatik hasi eta eskematiko eta estilizatuak bitarteko guztiak. Beste egunkari batzuetako ilustratzaleen lanak begiratzen dituela gaineratu du: "Eta baita umore grafikoa egiten dutenak ere; horien artean, Zaldieroa, Alvarez Rabo edo Mauro Entrialgoen lanak".

Marrazkigintzatik bizi izatearekin amesten duen arren, oso zaila dela dio. Etorkizuneko proiektuen artean, Interneten bitarte liburuak ilustratzea du helburu.

GOIENKARIA-N LANEAN

Berrigara-n egin zituen lehen komikiak: "Madrilera joan nintzen gero bizi izatera; etxera itzulita, GOIENKARIAn marrazteko proposamena egin zidaten".

Bere marrazkiak erakustea gustuko duela dio: "Asmatu ditu dan istorioak erakustea gustuko dut. Atsegina da zure irudi batekin norbaitek barre egin duela entzutea", azaldu du Ugaldek.

Unai Busturia

ARRASATE, 31 URTE

Bilbon jaiotakoa, 8 urterekin heldu zen Debagoienera. Ikasketak zirela-eta, Bilbon eta Bartzelonan bizi izan 2000. urtea bitartean. Egun, Arrasaten bizi da. Arizmendiko artistika eskolako irakaslea da eta, era berean, EHUn ikasten jarraitzen du.

MARRAZKI ZALETASUNA

Txiki-txikitatik marrazten du eta oraindik ere, 5 urterekin egindako irudiak gordeta ditu. Marrazki zaletasuna nondik datorkion ez daki, baina gelako apaletan irakurtzen ikasi baino lehen komikiak zituela dio: "Hasieran marrazkiak baino ez nituen ikusten. Oso gogoko daukat 6 bat urterekin aitak oparitu zidan *Capitán Trueno*-ren komiki bilduma".

Ilustrazio solteez gain, Busturiak *Numenak* izeneko mitologiarri buruzko bi komiki liburu argitaratu ditu Arrasateko Julen Rivasekin: "Trilogiaren bi atalak kalean daude dagoeneko. Lan handia eskatzen du; 2009an izango da hirugarrena". Lana eta ikasketak direla-eta, oso lanpetua dago eta horregatik, bada, garai baten parte hartzen zuen lehiaketak alde batera utzi ditu; hala ere, oso gomendagarriak direla gaineratu du.

Asko dira gustuko dituen ilustratzaleak, marrazteko duten mailagatik zein adierazteko duten gaitasunagatik, horien artean: Guarnido, Springer, Loisel, Blain... Besteak lanari begiratuta asko ikasten dela dio.

GOIENKARIA-N LANEAN

Ugalderen tartekatuz, GOIENKARIArako *Marrazkiz* atalean jarduten du: "Gaurkotasuna duen irudi bat sortzeak esna egoten laguntzen dit", dio Busturiak.

"Irudigile moduan, haurrentzako ipuinak ilustratzearkin amesten dut"

Mikel Arroabe

"Txikitán, anaia Jabiri kopiatzen ikasi nuen nire lehen marrazkiak egiten "

Alex Ugalde

"Gogoan dut 6 urte nituela aitak oparitu zidan 'Capitán Trueno'-ren bilduma"


Unai Busturia



UNAI BUSTURIA Irakurleak gogoan izango duen gaia aukeratzen ahalegintzen dela dio Busturiak. Horien artean oso gustuko du Arrasate Musikalen egoitzaren egoera irudikatzeko egin zuen ilustrazioa. Horrela azaldu du *Marrazkiz* atalerako duen teknika: "Asteko gertakari nagusiak aztertuta, hainbat gairi buruzko zirriborroak egiten ditut eta egokien ikusten dudana garatzen dut gero. Arkatzez egindako zirriborro landu bat lortutakoan, eskaneatu eta ordenagailuan beltzez errepasatzen dut. Beltza garbi dagoenean, amaitzeko grisak ematen dizkio".



ALEX UGALDE Ugaldek oso gustuko du sakelako telefonoari buruzko komiki tira hori. "Gustura geratu nintzen marrazki eta kontatutako istorioarekin", esan du bergararrak. Akziozko istorioak marraztea ditu gustuko. Erabiltzen duen teknikari dagokionez, hauxe azaldu du: "Kontatu nahi dudana argi dudanean, arkatzez egiten dut lehenengo zirriborroa, detaile gehiagorekin marrazten dut gero, luma edo errrotuladore batekin errepasatuz jarraian. Amaitzeko, arkatza borratu eta eskaneatu egiten dut. Noiz edo noiz Photoshop programa ere erabili izan dut".



MIKEL ARROABE Arroabek irudi horrekin ilustratu zuen Pobreza Zero plataformako kideak idatzitako iritzi artikulua. "Lehenengo munduan ondo bizi ahal izateko hirugarrena jan dugu, eurentzako ezer utzi gabe", azaldu du egileak. GOIENKARIArako ilustrazio horiek egiteko ordenagailua erabiltzen du: "Iritzi artikulua irakurita, ideia nagusia ateratzen dut eta Photoshop programaren bitartez egiten dut gero zuri-beltzean irudia".

LEHIAKETA > ARRASATEKO AKORDEOI LEHIAKETAK

Munduko akordeoiaren hiriburu bilakatuko da Arrasate datorren astean

Abenduaren 6tik 9ra munduko akordeoi jotzaile onenak etorriko dira

Lehiaketak hainbat atal biltzen ditu bere baitan, tartean nazioarteko lehiaketa

MIREN ARREGI > ARRASATE "Munduko akordeoiaren hiriburu bilakatuko da Arrasate abenduaren 6tik 9ra bitartean". Hala adierazi zuten Hauspoz-eko, Euskal Herriko akordeoi elkarteko kideek, Arrasateko akordeoi lehiaketako aurkezpenean. Aurreko urteetan bezala, abenduaren 6tik 9ra munduko akordeoi jotzaile onenak hartuko ditu lehiaketa horrek; aurreko edizioetan bezala, maila handiko eta kalitate musical bikaineko parte-hartzaleak ikusteko aukera egongo da.



AKORDEOI LEHIAKETA Hauspoz-eko Urko Etxebeste eta Aitor Furundarena Arrasateko Udaleko ordezkariekin.

M.A

KONTZERTUA > APOCALYPTICA ETA WASP JAM-EN

Txelo doinuak bihar Jam aretoan entzungai

Finlandiako talde berezi Apocalyptic kontzertua eskainiko du bihar Jam aretoan eta abenduaren 6an, bestalde, WASP taldekoak izango dira

M.A > BERGARA Gutxitan ikusten diren talde horietako bat ikusteko aukera egongo da bihar, 21:30ean hasita, Bergarako Jam aretoan; izan ere, Apocalyptic taldea igoko da oholtza gainera. Egiten duten musikaren oinarri bakarra txelo da, perkusioaz edo bateriaz lagunduta. Benetan dira bereziak eta landuak talde horrek eskaizten dituen doinuak; izan ere, abesti ezagunen bertsioak egiten dituzte eta txeloaz bakanrik baliatzen dira, gainera, moldaketa egiteko. Biharko gain, datorren egunean ere bestelako kontzertu bat entzuteko aukera ere egongo da: hain



APOCALYPTICA Taldeak biolontxeloarekin egiten du musika.

GOIENKARIA

zuzen, 20:30ean, WASP taldea igoko da agertokira. Los Angelesen sortutako taldea ikusteko aukera egongo da abenduaren 6an, 20:30ean hasita. Heavy metal eta rock gogorra egiten dute.

APOCALYPTICA TALDEA

Apocalyptic taldea Cello House Band izenarekin sortu zen Helsinki-n 1992an. Kantu eta lan propioak egiten dituzte, baina Metallica, Sepultura eta Pante-

ra taldeen bertsioak moldatzearagatik egin dira ezagun mundu guztian. Biharko emanaldirako sarrerak 25 euro balio du.

WASP TALDEA

1978an Los Angelesen sortutako taldea ikusteko aukera egongo da abenduaren 6an, 20:30ean hasita. Heavy metal eta rock gogorra lantzen dute.

Euskal Herriko akordeoi elkarteko Hauspoz-eko eta Arrasateko Udalak elkarlanean antolatu duten lehiaketa horrek hainbat atal ditu bere baitan; izan ere, bost lehiaketa nagusi egiten dira akordeoi jaialdian: batetik, Gipuzkoako 27. Akordeoi Lehiaketa,

Gipuzkoatik, Euskal Herritik eta Espainiako Estatutik etorriko diren akordeoi jotzaileen bilgunea izango dena. Lehiaketa iza-nik, maila handiko musikari gazteek jardungo dute. XX. Akordeoi Jaialdia deritzona da beste atal bat. Hura da kutsu pedagogikoe-

na duen atala; izan ere, ez da lehiaketa eta akordeoi jotzaileen harrobiaren oinarria ikusi ahal izango da. Hirugarren atala Akordeoi Orkestren V. Lehiaketa da; bertan, akordeoi taldeak arituko dira. Laugarrena II. Udalaitz Akordeoi Lehiaketa da; eta azke-

na eta indartsuena, XV. Nazioarteko Arrasate Hiria lehiaketa. Aurten goi mailako 22 akordeoi jotzaile etorriko dira munduko hainbat tokitatik. Mundu mailako musikari onenak izango dira gure artean, irakasle onenen ikasleak izan direnak, hain zuzen.

ABESBATZAK > GIPUZKOAKO ABESBATZEN FEDERAZIOA

Abesbatzen 25 urteak, liburuan

Federazioaren 25. urteurrena dela eta, Gipuzkoako abesbatzen gaineko nondik norakoak bildu dituzte liburuan

dituen batzorde zuzentzaile desberdinak gauzatu dituzten ekin-tzak eta, bukaerako atal batean, federazioak antolatu edo buru-tu dituen ekintzak ere jasotzen dira; nabarmentzekoak dira Euskal Herrian koru zuzenda-ritzako ikastaroak abian jarri izana edota koruen arteko topaketa bultzatu izana.

Liburuaren bukaeran, azken 25 urtetan Gipuzkoan izan diren abesbatza guztien (federatuak eta ez federatuak, desagertuak, gaur egunekoak...) argazkia eta historia ere bildu du Juan de Izetak.

DEBAGOIENEKO ABESBATZAK
Asko dira liburuan azaltzen diren Debagoieneko abesbatzak: Aretxabaletako abesbatza, Ari-tzeta, Bergarako musika esko-lako abesbatza, Bergarako Orfeoia, Gabero, Ganbara Txiki, Goikobalu (eta hura osatzen duten abesbatza guztiak), Gorosarri abesbatza, Oñati abesbatza, Oñati Gazteak abesbatza, Oñatiko Ganbara abesbatza, San Viator abesbatza eta Txantxiku Ikastola abesbatza. Liburua salgai dago 20 eurotan, federazioaren egoitzan, Tolosan.

INMOBILIARIA DEBA GARAIA
Tels/Fax: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zábalotegi 80 m². Eguzkitsuia.
- Simon Arrieta 30 m². Prezio ona.
- Osintxu 80 m². Berriuta.
- Ibarra 40 m². Berria.
- Bidekarutza 60 m². Berriuta.
- Zubietza 75 m². Txokoarekin.
- Ibarra 84 m². Terrazarekin.
- Zubietza 60 m². Prezio ona.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 m². Berriuta.
- Martoko 53 m². Igogailuarekin.

Antzuola:

- Buztunzuri. 76 m². Prezio ona.
- Alherra 123 m². Duplexa.

Elgeta:

- San Roke 90 m². Berriuta.
- Salvador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berriuta.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

INMOBILIARIA DEBA GARAIA
Tels/Fax: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

BERGARA

- Artekalde, 82 m², ondo.
- Artzamendi, 80 m², oso ondo.
- Zábalotegi, 80 m², ondo.
- Ibarra, 80 m², oso ondo.
- Artekalde, 70 m², ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsuia.
- Ibarra, 130 m², aukera ona.
- Zubietza 75 m², ondo.
- Matxiageti, 65 m², ondo.
- Arizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 87 m², ondo.
- Bidekarutza, duplexa, berriuta.
- San Anton Abad, 70 m², oso ondo.
- Etxebizitza berrien erakuntza Madura, Maserterea eta Zubiauren.

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria.

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berriuta.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

1/ ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Aretxabaleta. 60 m². Bi gela, egongela, bainugela, sukaldajangela, despentsa, berogailua. Berriuta eta jantzia. Oinezkoendako aldean. 198.300 euro. 679 80 18 80.

Aretxabaleta. Berritua. 79 metro koadro. Sukaldea, egongela, 3 logela, komuna, 2 balkoi eta ganbara ditu. Altzairiz hornitua. Berogailua eta igogailua. Loramendi kale inguruaren dago eta argitsua da. Prezio interesgarria. Telefona: 635 75 83 43 edo 665 70 41 29.

Arrasate. Duplexa salgai Otañora kalean. Arrasate erdialdean. Egongela, bi logela, sukalddea, bi komun eta 20 m²-ko terraza. Etxe nahiko berria (12 urte). 696 79 43 89.

Arrasate. Erdialdean apartamentua salgai. Zeharo berritua. 645 73 04 69.

Arrasate. Etxebizitza salgai erdialdean. Erailkin berria. 94,50 m². Hiru logela, bi komun, sukalddea eta egongela. Igogailua eta berogailua. 686 24 97 48.

Arrasate. Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 metro koadro. Guztiz berritua. Bilogela, egongela, bainugela eta sukalddea. Kanpoalderra begira. Igogailua eta sotoa. 620 15 12 12.

Arrasate. Grupo San Juanen etxe salgai. Eguzkitsuia, 60 m². Igogailua, ganbara eta sotoa. 619 25 46 69.

Arrasate. Malvinetan. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukalddea eta ganbara handia. Bodega eta garajea. Ikupegi ederrak eta eguzkitsuia. 330.000 euro. 685 70 78 03.

Arrasate. Uribe auzoan etxebizitza salgai. 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldlea. 88 metro koadro. Orain dela hiru urte berritutako sukaldarekin, eta goitik behera jantzia. 55 milioi pezetza. 699 74 59 09.

Arrasate. Zerrajera kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebalde begira. 945 15 40 22.

Arrasate. Zigarrolan etxebizitza salgai. 53 m². 3 logela, egongela, bainugela, sukalddea eta bainugela. Berogailua eta igogailua. 670 85 45 81.

Arrasate. Urederra inguruan bi solairuko etxea salgai. 123 metro karratua. Berriuta. 185.000 euro. 943 76 00 03.

Oñati. 120 m²-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitza saritzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukalddea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. 676 39 36 93.

Arrasate. Zerrajera kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebalde begira. 945 15 40 22.

Arrasate. Zigarrolan etxebizitza salgai. 53 m². 3 logela, egongela, bainugela, sukalddea eta bainugela. Berogailua eta igogailua. 670 85 45 81.

Arrasate. Urederra inguruan bi solairuko etxea salgai. 123 metro karratua. Berriuta. 185.000 euro. 943 76 00 03.

Oñati. 120 m²-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitza saritzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukalddea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. 676 39 36 93.

Arrasate. Zerrajera kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebalde begira. 945 15 40 22.

Arrasate. Zerrajera kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebalde begira. 945 15 40 22.

Bergara. Etxebizitza salgai. Zobiaurren. Guztiz berritua. Hiru logela, egongela, sukalddea eta bainugela. Berogailua eta igogailua. 210.354 euro. 686 42 73 01.

Bergara. Duplex berria (6 urte). 125 m²; sukaldie hornitua, bi logela (beste bi egiteko aukera), bi bainugela, jangela handia, trasteleku, hiru balkoi, gas naturala, igogailua, antena parabolika. Garaje plaza itxia aukera. 943 53 26 81 edo 699 49 14 14.

Bergara. Etxea saltzen dut. Simon Arrieta plazan. Hiru logela, egongela handia, komuna, komuna eta bi balkoi ditu. Dena kanpora begira. 299.900 euro. 635 73 87 55.

INMOBILIARIA DEBA GARAIA
Tels/Fax: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

BERGARA

- Artekalde, 82 m², ondo.
- Artzamendi, 80 m², oso ondo.
- Zábalotegi, 80 m², ondo.
- Ibarra, 80 m², oso ondo.
- Artekalde, 70 m², ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsuia.
- Ibarra, 130 m², aukera ona.
- Zubietza 75 m², ondo.
- Matxiageti, 65 m², ondo.
- Arizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 87 m², ondo.
- Bidekarutza, duplexa, berriuta.
- San Anton Abad, 70 m², oso ondo.
- Etxebizitza berrien erakuntza Madura, Maserterea eta Zubiauren.

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria.

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berriuta.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU

106. BESTELAKOAK

107. JASO
108. EMAN
109. BESTELAKOAK

110. DENETARIK
111. RELAX

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. ETXEAK OSATU

306. BESTELAKOAK

307. JASO
308. EMAN
309. BESTELAKOAK

310. DENETARIK
311. RELAX

5. IRAKASKUNTZA

501. SALDU
502. EROSI
503. ERRENTAN EMAN
504. ERRENTAN HARTU
505. ETXEAK OSATU

506. BESTELAKOAK

507. JASO
508. EMAN
509. BESTELAKOAK

510. DENETARIK
511. RELAX

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

705. JASO
706. EMAN
707. BESTELAKOAK

708. DENETARIK
709. RELAX

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

905. JASO
906. EMAN
907. BESTELAKOAK

908. DENETARIK
909. RELAX

Eguazten egundira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri dirugu.

943 25 05 01
sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU: GAINERAKO 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.
PRECIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Arrasate erdian. 65 m², berritua, bikote batendako aproposa. 630 22 27 86.

Arrasate. Etxea errentan ematen dut Erguia auzoan. 635 73 04 63.

Arrasate. Gesalibarren. Hiru logela, sukalddea, komuna eta egongela. 943 79 80 70.

Arrasate. Jantzia dago. Unibertsitateko oso gertu, Uribe auzoan. 658 70 91 54.

Arrasate. Logela bat ematen da errentan, sukalddea erabiltseko aukerarekin. Hartzen duena neska bida, hobe. Telefona: 943 79 82 43.

Bergara. Boni Laskurain kalean. Eguzkitsuia, altzarietan. 628 26 65 77.

Eskoriatza. Etxe berria errentan ematen da herri erdian. Hiru logela. 655 70 46 90.

Eskoriatza. Guztiz jantzia. 943 71 46 27.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxe bat alokatu nahi dugu, lau pertsonarentzako. Presazko. Ainhoa. Telefona: 943 71 20 80.

Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko genue. 686 69 41 40.

Arrasateko neskak batek etxearen errentan hartuko luke, Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. 699 06 31 76.

Debagoina. Etxea hartuko nuke errentan. 691 41 69 52.

Oñati. Duplexa salgai eraikitzen diharduten etxebizitza. Leku eta bigarren solairuak. Garajea eta trastelekuak. 420.000 euro. 676 39 36 93.

Oñati. Etxebizitza salgai. 4 logela, 2 komun, egongela, bainugela, garajea, trasteleku, terraza, igerileku. 24 m². Prezioa: 126.200 euro BEZ-a barne. Ibon. Telefona: 678 35 96 08.

Eskoriatza. Etxe berria errentan ematen da herri erdian. Hiru logela. 655 70 46 90.

Oñati. Etxebizitza salgai. 4 logela, 2 komun, egongela, bainugela, garajea, trasteleku, terraza, igerileku. 24 m². Prezioa: 126.200 euro BEZ-a barne. Ibon. Telefona: 678 35 96 08.

Oñati. Etxebizitza salgai. 4 logela, 2 komun, egongela, bainugela, garajea, trasteleku, terraza, igerileku. 24 m². Prezioa: 126.200 euro BEZ-a barne. Ibon. Telefona: 678 35 96 08.



Agapito Gutierrez eta Felisa Lafuente arrasatearrek urrezko ezteiak egin dituzte gaur. 50. urteurrena ospatzeko, bihar, abenduak 1, meza izango dute Arrasateko parrokan eta ondoren bazkaria Saran. Zorionak eta ondo pasa, familiako guztien partetik!



Ibai Etxaniz eta Eneritz Urizarbarrena elgetarrak pasa den zapatuau, hilaren 24an, ezkondu ziren Itziarko elizan. Jarraian, Salegijatexean egin zuten bazkaria senitarteko eta lagunekin. Ondo pasa eztei bidaian eta musu bat lagunen eta familiaren partetik!



Arrasateko **Eneko Galdos eta Onintza Belategi** bihar, abenduak 1, ezkonduko dira Arrasateko udaletxeen. Gero, bazkaria Zelai-Zabal jatetxeen egingo dute familia eta lagunekin. Zorionak, familiaren partetik, eta izan zoriontsuak!

URTEURRENA

Bitxori Urzelai Kortabarria

Lehen urteurreneko meza domekan,
abenduaren 2an, 11:00etan,
Garagartzako San Miguel elizan.



*Nahiz eta gure ondotik
orain urtebate alde eginda egon,
jakin ezazu gure bihotz bihotzean zaudela.*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko Dixameko sendikoen izenean.

ESKELA

Iñaki Olabarria Arana

Bergaran hil zen 2007ko azaroaren 25an, 55 urte zituela.

*Zu joan zara,
baina zuk utzitakoa
gurekin gelditzen da.*



Lagun koadrila.
Bergaran, 2007ko azaroaren 30ean.

ESKER ONA

Jacinto Ziarsolo Alberdi

Donostian hil zen 2007ko azaroaren 21ean, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko azaroaren 30ean.

ESKER ONA

Jesus Elkoro Aranberri

Bergaran hil zen 2007ko azaroaren 27an, 67 urte zituela.

Mila esker gertutik zein urrundik
ondoan izan zareten guztioi.
Eskerrik asko bihotzez.



Bergaran, 2007ko azaroaren 30ean.

ESKELA

Jesus Elkoro Aranberri

Bergaran hil zen 2007ko azaroaren 27an, 67 urte zituela.

*Elkarrekin pasatako
opor egun eder guztia gogoratuz.*



Jaizkibel kanpineko lagunak.
Bergaran, 2007ko azaroaren 30ean.

ESKER ONA

Iñaki Olabarria Arana

Bergaran hil zen 2007ko azaroaren 25an, 55 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko azaroaren 30ean.

ESKELA

Tomas Madinabeitia Medrano

*Joan zara iluntasunean,
zoriontasuna izan bidelagun
bidaia ezezagunean.
Betiko gure bihotzean.*



Zure lagunak.
Aretxabaletan, 2007ko azaroaren 30ean.

hildakoak

• **Miguel Torres Rubio.** Arrasaten, azaroaren 24an. 96 urte.

• **Jose Mari Ezpeleta Uribetxeberria.** Aretxabaletan, azaroaren 25ean. 77 urte.

• **Maria Dolores Elgarresta Zubeldia.** Bergaran, azaroaren 26an. 82 urte.

• **Manuela Granado Valor.** Arrasaten, azaroaren 26an. 90 urte.

• **Jesus Elkoro Aranbarri.** Bergaran, azaroaren 27an. 67 urte.

• **Pascual Vitoria Vitoria.** Arrasaten, azaroaren 28an. 79 urte.

• **Tomas Madinabeitia Medrano.** Eskoriatzan, azaroaren 28an.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,

deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Edo zatoz ordezkaritzat batera, eguzaten eguerdia baino lehen:
Arrasate Goiena: Otalora lizenziaduna 31. 943 71 25 11 / **Goienka:** Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.
Bergara Goienka: Barrenkaleko 33. 943 25 05 01. **Ofidil** Bilboko publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65
Aretxabaleta Goienka: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramalo:** Kinteleena janari denda: Nardea 11. 945 44 50 22. **Elgeta:** Mariasun janari denda: Salvador 26. 943 76 81 90. **Antzuola:** Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.



Babeslea:



OROILORE

Hileta eta beilateko zerbitzuak

*Momentu txar horietan sortzen diren
galdera, kezka eta arazo guztiei
aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da*

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

bila-bila 7



sudokua

1		6				
	5				2	
9		7			1	3
8			6			7
	1		4		6	
3		5				2
6	9		7		5	
2				4		
			1			8

hitz gezidunak

Aletegia	▼	Soldata	▼	Eremutarra	▼
Ezin hobe	►	Ezkutatua	▼	Asiako estatua	
* Irudiko fruitua	►				
Erdi Amerikako estatu	►				
Ez estua	▼	Bizkiak			
Zerbait gabe utzi		Baleuka			
Dantza mota	►			Errep., fruitu mota	►
Guri, bazeñute	►			Lehena eta azkena	
Emakume izena	►			Röntgen	►
Musika nota	►			Ukaben	
Bizkaiko herria	►			Katea, bokalik gabe	►
				Sufrea	
				Begirada	▼

hieroglifo a

Nondik datozen purorik goxoenak?

Q ik

hizki salda

5 txakur arrazen izenak

A	O	T	S	O	G	O	D	R
U	A	N	I	A	Z	T	R	E
H	E	G	A	A	A	O	R	T
A	T	A	A	T	N	O	B	T
U	I	D	Y	O	E	E	O	E
H	N	K	L	A	B	E	X	S
I	O	G	E	N	I	A	E	H
X	S	M	T	O	T	O	R	A
T	N	A	M	R	E	B	O	D

bono fotoa



Nola du izena argazkiko elizak?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta


soluzioak

T	N	A	M	R	E	B	O	D
X	S	M	E	N	I	A	E	H
I	O	G	E	V	O	E	O	S
H	N	K	L	A	B	E	O	T
U	T	A	A	T	N	O	R	E
A	E	G	A	A	A	O	R	T
U	A	N	I	A	Z	T	R	E
A	T	A	A	T	N	O	B	T
U	I	D	Y	O	E	E	O	E
H	N	K	L	A	B	E	X	S
I	O	G	E	N	I	A	E	H
X	S	M	T	O	T	O	R	A
T	N	A	M	R	E	B	O	D

jergoglika: Rabatztik.

5	3	4	9	2	1	6	7	8
7	2	8	3	6	5	4	9	1
6	9	1	4	8	7	2	3	5
3	4	6	5	7	9	1	8	2
2	1	7	8	4	3	5	6	9
8	5	9	2	1	6	3	4	7
9	2	6	7	5	4	8	1	3
4	7	5	1	3	8	9	2	6
1	8	3	6	9	2	7	5	4

F	A	E	A	S	O	A
L	U	Z	I	A	K	T
B	A	L	E	T	U	E
G	A	B	E	T	U	K
Z	B	I	K	I	A	K
B	I	K	A	I	N	A
B	S					



Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela

Zosketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOAK

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goiaren edozein egoitzara

La Fama turroia

gogorra edo biguna, 200 g-ko tabletak

2,75 €

3 eramanda, bakoitzak 1,83 €

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako JOSE VICENTE SANTAMARIArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Oinaztarrak.

The illustration features a central burlap sack overflowing with a variety of items. At the top of the sack, the text "42. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA" is printed in large, bold, black letters. Below this, in smaller black text, is "2007ko Abenduaren 5etik 9ra". The sack is filled with numerous books, some open to show musical notation, and many CDs. The items are rendered in a vibrant, painterly style with splashes of color and light.

**DURANGOKO
42.
EUSKAL LIBURU ETA
DISKO AZOKA**

ABENDUAREN 5ETIK 9RA

Literaturaren alde gaude, musikaren alde.
Ezagutza bultzatzen dutenen alde gaude,
unibertsoak sortzen dituztenen alde,
hitza guztion gune bihurtzen dutenen alde.
Kulturaz mintzo garenean,
guztion mintzaira baitarabilgu.

EROSKI
zurekin

Leire Altube > Spinning irakaslea

"Gutxitan ikusiko nau inork etxeko sofan etzanda ezer egin gabe"

Neska ipurtarina da Leire Altube oñatiarra. Beti gauzak egiteko gogoa duena eta leku

batean geldirik egon ezin dena. Kirolzalea da, txirrindularitzan buru-belarri ibilitakoa, eta gaur

egun ere bizikleta ez du aparte. Oñatiko kiroldegian ematen ditu spinning eskolak, eta

hantxe egin dugu hitzordua, "nire bigarren etxean", Altubek berak esan digunez.

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI
Oñatiko kiroldegian ordu asko emanen dituen arren, lagun arterako ere ateratzen du denbora eta "lagunen lagun ona" dela esan digu. Gurekin berba egin eta bere berri kontatze-ko ere hartu du tartea.

Kirolzalea zara. Bizikleta zer da zuretzat, lan tresna ala aisiaidirako zerbait?

Txirrindularia izandakoa naiz eta garai harten zaletasuna baino zerbait gehiago zen niretzat bizikleta. Utzi ostean, noizean behin, denbora librean, irte-ten nintzen ibiltzera. Orain, lau paretaren artean, kiroldegian ibiltzen naiz. Hortaz, lan tresna bada, baina gustuko; eta oraindik noizean behin kanpoan ere ibiltzen naiz bizikletan.

Txirrindulari modura txapelketetan ibilitakoa zara. Nola gogoratzetan duzu garai hora?

Gauza onak eta txarrak zituen, baina oro har oroitzapen onak gordetzen ditut. Txirrindularitza diziplina handiko kirola da eta niri libre ibiltzea gustatzen zait, gauzak gogoaren eta dudan aldartearen arabera egitea; hortaz, gogorra zen. Bain era berean, jende asko ezagutu nuen, lagun asko egin nituen garai harten eta pertsona modura garatzen ere lagundu zidan. Nirekin garai harten ibili zirenetatik, oñatiarraren artetik Markel Irizarrek jarraitzen du eta kankopoen artean Durangon taldekoide nituene-tatik batzuek profesionaletan dihardute: Agurtzane Elorriaga, Eneritz Iturriaga etxeberrria...

Txirrindularitza, hala ere, ez daukazu erabat utzita. Nola hasi zinen spinningean?

Lehiako txirrindularitza bai, utzia dut, baina oraindik ordu asko ematen ditut bizikleta gai-nean. Gasteizen ikasten nentile-la gurasoen kontura bizi nintzen eta pentsatu nuen diru apur bat ateratzeko zerbait egitea. Aerobic monitorea zen lagun batek animatuta aerobic eskolak ematen hasi nintzen gimnasioetan eta era berean spinning eskolak har-tzen nituen. Ikusi ninduten eta nik neuk eskolak emateko pro-posamena egin zidaten.

Markelen Lagunartea antolatutako spinning saioan ere jardun zenuen.

Esperientzia polita izan zen. Kiroldegiko ikasleendako berri-kuntza izan zen, eta gustura ibili ginen.



IRATI AGIRREAZALDEGI

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 30 urte. **Ikasketak?** Gorpuzta eta Kirol Ekintzen Sustatzailea (Tafid); Kirol Ira-ka-sle-ikasketak eta Psikopedagogia. **Maniarik?** Udan zein neguan galtzerdiak janzten ditut lotarako. **Txirrindulari bat?** Marco Pantani nuen gogoko. **Musi-**

ka talde bat? Tapia eta Leturia. **Bidaiatzeko leku bat?** Afrika; lehen soldatarekin hara joan nintzen eta maiteminduta itzuli nintzen. **Parrandarako toki bat?** Oñati. **Amets bat?** Mugarik gabeko denbora tarte bat libre izan eta munduari buelta ematea.

Oñatiko kiroldegian spinning eskolak ematen dituzu orain.

Iaz fabrikan jardun nuen, baina kiroldegikoa eskaini zidaten eta bertan dihardut, gustuko lanean. Eskolak emateaz gain, ordu-tegiak antolatzeaz, monitoreak aurkitzeaz... arduratzen naiz.

Lanak uzten dizunean zertan ematen duzu denbora librea?

Modian ibiltzea dut gogoko eta azkenaldian bizikletan baino gehiago ibiltzen naiz. Aste barruan Araotz ingurura joaten naiz, Urbian jende asko ibiltzen delako. Lagunekin, multilarekin eta etxekeoekin egoteko ere apro-betxatzen dut aisiaidlia.

Bidaiazalea ere bazara.

Telebistako dokumentalak ikusita Afrikara animaliak ikus-tera joatea zen nire ametsa, eta lehen soldatarekin Tanzaniara joan nintzen safari bat egitera. Orduan hango tribuak ezagutu eta gerora Kamerunen eta Sene-galen egon nintzen. Perura eta Argentinara ere bidaiazu dut, baita Europaren barrena ere.

Oraindik jotzen duzu trikitia?

Umetan akordeoia jotzen nuen eta beti izan ditut gustuko musika eta trikitia. Lehengusina batek trikiti eskolak ematen ditu, harekin hasi nintzen soinu txikia jotzen ikasten eta astean behin joaten naiz eskoletara.

Beste zaletasunik baduzu?

Txikitau gustuko nuen olioe-kin margotzea, baina gero albo-ra utzi nuen zaletasuna. Hala ere, badut berriz hasteko gogoa. Dene-tarik egitea gustatzen zait. Gutxi-tan ikusiko nau inork etxeko sofan etzanda ezer egin gabe.

Bertso eskolan ere hasi zara.

Zapatuetan tabernak ixten zitzutenean, kalean bertsoan amaitzen genuen parranda. Bertso eskolakoek animatu eta erdi txantxetan hasi ginuen. Oraindik paperean gertatzen ditugu bertso-ak. Gipuzkoako Txapelketa ere ez dut jarraitu, aste bukaeretan ikastaroak izaten ditudalako: bodycombat, bodypump...

Etorkizunean kirol monitore jarduteko asmorik baduzu?

Orain artean sekula ez dut pentsatu horretatik bizi izatea, oso gogorra delako eskolak ema-tetik bakarrik bizi izatea; baina orain lan hau egokitu zait eta gus-tura nago; hortaz, ideia ez dut baz-terrera utziko.

2007-11-28 16:54 Ez dituzu zure datuak eman Sartu Erabiltzailea gisa erregistratu Zergatik erregistratu behar da? Zure pasahitza alzatu al duzu? Erabiltzailea Pasahitza Sartu EuskoSare osoan bilatu Bilakaera aurerrera

EUSKO SARE

INFORMAZIOA
Euskal Herria
Euskal Mundua
Euskara
Kultura
Hezkuntza eta
heziketa
Ekonomia eta
enpresak
Turismoa
Blogak

ZERBITZUAK
Lana
Iragarkiak
Enpresa iragarkiak
Sustrain bila
Abizenen bilatzalea
Wiki Abizenak
Munduko Euskal
Komunitatearen
datu-basea

KOMUNITATEAK
Argentina
Azkarate
Bibliotekariak
Francophonie
Gastronomia
Ikertzaileak
Irratia
IT
Jakinet
Jauzi
Latinoamerika
Mintzabidea
Mintzalagunak

EuskoSare > Euskalaren Nazioarteko Eguna > Euskalaren Nazioarteko Eguna 2007 > Mezu Wall Street Journal-entzat

Idatz ezazu zure mezua, mesedezez.

Izena: Idatz itzazu zure izena eta abizena.
Andoni

Herrialdea: Idatz ezazu zure herria.
Arrasate

Posta elektronikoa: Zure posta elektronikoa ez da argitaratuko.
andoni.z@euskalherria.org

Atxikimendus agertu: "EuskoSare erabiltzen dut lanean barre egiteko, haserretzeko, adiskidetze, akordiotara iristeko... Lagunekin eta familiarekin komunikatzeko. Ikertzea eta ikasteko. Esna eta lo, amets egiteko. Nire seme alabekin jolasteko, pozteko, maitatzeko, zigortzeko, eztabaideetako... Ligatzeko, maitasuna egiteko, ongi pasatzeko... Eta beste edozein hizkuntzatan egin daitekeen guztirako."

Ados nago eta mezu hau bidali nahi dut Wall Street Journal-era
 Ados nago baina ez dut mezu hau bidali nahi Wall Street Journal-era

Hitzaren egiaztapena: Hizkuntza irudian ikusten dituzun karaktereak idatz itzazu

https://
http://captchas.net/

Vizkio

EUSKARAZ Elkarlanaren webguneko hizkuntza nagusia euskara da, baina espanyola eta frantsesa ere erabiltzen ditu. GOIENKARIA

EUSKARA > KANPAINA

'Wall Street Journal'-eko artikuluaren aurka sinadura eman daiteke

'Wall Street Journal'-ek azaroaren 6an argitaratu zuen 'Euskal inkisizioa: zelan esaten da artzaina euskaraz?' delako artikuluaren erantzutako aukera ematen du Euskosare.org-ek, hain zuzen ere.

Johnson-ek izenpetutako *Euskal inkisizioa: zelan esaten da artzaina euskaraz?* delako artikuluaren erantzutako aukera ematen du Euskosare.org-ek, hain zuzen ere.

Hala, erantzuna bidaltzeko, www.euskosare.org/ene/2007/ws/guestbook_add_entry_form helbidea jo behar da, eta han, bi aukera daude: atxikimendumezuaren adostasuna agertzea eta mezu Wall Street Journal-era bidaltzea edo adostasuna agertzea baina mezu ez bidaltzea.

Mezu hau da: "Euskara erabiltzen dut lanean barre egiteko, haserretzeko, adiskidetze, akordiotara iristeko... Lagunekin eta familiarekin komunikatzeko. Ikertzea eta ikasteko. Esna eta lo, amets egiteko. Nire seme alabekin jolasteko, pozteko, maitatzeko, zigortzeko, eztabaideetako... Ligatzeko, maitasuna egiteko, ongi pasatzeko... Eta beste edozein hizkuntzatan egin daitekeen guztirako."

egiteko, ongi pasatzeko... Eta beste edozein hizkuntzatan egin daitekeen guztirako."

ARTIKULUA

Artikulua, jatorrizko ingelesezko bertsioan, irakur daiteke www.euskosare.org/ene/2007/article_wsj.html. Artikulu horretan, Keith Johnson-ek euskararen inguruko hainbat egoera eta iritzi batzen ditu: besteak beste, lanpostuan jarraitzeko euskaraz ikasi behar duten irakasle batzueña; euskara irakasle batena; Joseba Arregirena eta Leopoldo Barredarena. Titulurako erabili diren paragrafoetan, kazetariak hau idazten du: "Aireportu, zientzia, errenazimendu, demokrazia, gobernu, independentzia, adibidez, hitz berriak dira, euskara tradizionalean sustrairik ez dutenak; aldiz, artzain esateko hamar hitz daude, abere motaren arabera".

teknologia berriak

> INPRIMAGAILUA

Casio CW-E60: zure CD eta DVDAk etiketatzeko inprimagailu termiko kaleratu dute

Grabatzen ditugun CD eta DVDAk etiketatzeko sistema asko daude, baina hau da kalitate handien ematen duena. Inprimagailua termikoa denez ez du behar CD berezirik.

Dakarren softwarearekin edozein True Type letra tipo eta irudi erabil daiteke.

200 DPIko bereizmena du eta ordenagailura USB bidez konektatzen da.

Inprimagailuaren salneuria 40 euro da. Tinta termiko kartutxo bat zazpi euro eta hiru, 17.



Inprimatzeko azkarrada, zortzi milimetro segundoko abiadura du.

> BIDEOKAMERA

Jarraikako formatuan grabatzen duten definizio handiko Sonyren bi kamera profesional

Sonyk definizio handiko bi kamera aurkeztu ditu: HVR-Z7U eta HVR-S270U modeloak. Biak ere jarraikako formatuan grabatzeko gai dira. Lenteak aldatzeko sistema dute. Carl Zeiss 12x optika daukate eta 1080 eta 1080i (HDV), baita DVCAAM eta DVn ere. Biek aldi berean DV eta memorian (aukeran) graba dezakete.

Salneurria ez dute aditzera eman. Bi modeloak otsailean jarriko dituzte salgai.



HVR-Z7U eskuan eramateko da eta HVR-S270U sorbaldan eramateko.

> ORDENAGAILUA

Alienware Area-51 m15x eta m17x, prestakuntza handiak behar dituzten jokozaletzako

Alienwarek Area-51 m15x eta m17x modeloak aurkeztu ditu.

Alienware m17x modeloak 17 hazbeteko pantaila, Dual Nvidia GeForce 8800m GTX txartel grafikoa, Blu-Ray/DVD birgrabagailua eta 640 GBko disko gogorra dauzka. Alienware m15x modeloak 15 hazbeteko pantaila, Nvidia GeForce 8800m GTX txartel grafikoa, Blu-Ray birgrabagailua eta 320 GBko disko gogorra dauzka.

Datorren urteko lehenengo hiruhilekoan salgai jarriko dituzte bi modeloak. Salneurria finkatzeke dago.



Bi modeloek teklatuak LED bitarte uredin edo gorri koloreetan argitzen dira.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko-blog.komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn	/denetik	/gertu	/lorelan	/pando
/aiastui	/dragon-oriental	/gorkataxi	/korozabaleta	/puerta-ingles
/aretxargi	/dukiena	/gurea	/kizkur	/richimaier
/argi-plastik	/ego	/gutzizeder	/markiegi	/tabernaberri
/arregi	/ekiore	/hamaika	/maulanda	/udalaitz
/atai	/ekin	/itxaseder	/mayte	/urdeki
/azkarate	/elejalde	/irudisport	/merkeopari	/ugartearotza
/bastida	/ezkutuorly	/ixaun	/multipticas	/urbelta
/briz-	/galgorri	/izeder	/ohiak	/urko
aseguruak	/gallastegi	/jacing	/ogizun	/vitoria
/BZ-sistemas	/ganeshia	/joseba	/okipark	/zaindusz
/bolusukaldeak	/garaia	/lamaino-etxeberri	/otzeta	/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejateak.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net



berriak

> 'KANTARI'
**Astean hasi dira
Kantariko emanaldiak
GOITBn**

Grabazioen ostean, hasi dira dagoeneko Goiena Telebistan *Debagoienean Kantari* ikuskizuneko saioak eskaintzen. Saioak martitzenetan eta eguztenetan eskainiko dira, 20:15ean, albistegien ostean, hain zuzen. Dagoeneko eskaini dira oñatiarren eta aretxabaletarren saio bana eta datorren astean eskoriatzarrak eta arrasatearrak ikusteko aukera eskainiko zaizue. Ez galdu aukera!

> 'ZAHARRAK BERRI'
**'Zaharrak berri'
saioan zozketak
egiten jarraitzen dute**

Dakizuen bezala, *Zaharrak berri* saioa gure nagusiekin zuzendutako da. Eguaztenean 20:15ean Goiena Telebistan eskaintzen dute. Datorren asteko tertulian, gure nagusiekin, garai zaharretako jostailuen gainean jardunago dute.

Gogora ezazue saioak irauten duen bitartean 943 00 08 34 telefonora deitura sariak eskuratu ahal izateko zozketan parte har dezakezuela.

> ARRASATE IRRATIA
**Ekonomiaren gaineko
irratsaio berria
martitzenean, 107.7an**

Ekonomia kontuak lantzeko irratsaioa estreinatuko dugu datorren astean. Aitor Izagirre eta Ainhoa Zenigaonaindia ekonomilariek gidatuta, *Igo Euriborrera!* saioan, eugenroko bizitzan berebiziko eragina duten ekonomia kontuak landuko dituzte. Irratsaioa da martitzenean, 11:30ean.

Bestalde, astelehenean, ordu berean *Teknonerriak* saioa izango da, Imanol Sorianoren gidaritzapean.

> ARRASATE IRRATIA
**Gospel ikuskizunera
joateko sarrerak
zozkatuko ditugu**

Abenduaren 23an gospel ikuskizuna izango da Udal Antzokian. Bada, Udalak dagoeneko jakinarazi digu sarrerak oparituko dizkigula gure entzuleen artean zozketatzeko. Hori bai, parte hartzeko honako galderari erantzun behar zaio: zer esan gura du *txikopltxoka* berbak? Arrasateko euskarako berba bat da. Erantzunak bidaltzeko bi bide daude: 943 71 17 31 telefonoa edo *irratia@goienna.com* helbidea. Zozketa, abenduaren 20an.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Joxe Iriarte 'Bikila' izango da 'Ilunpean' saioan gaur

60ko hamarkadan ETA erakundean ibili zen eta Zutik-eko arduradunetako bat da gaur egun

GOIENKARIA

> ARRASATE Joxe Iriarte *Bikila* Errenterian jaio zen, baina Oiartzunen bizi da gaur egun. Bere bizitzako denboraldi luzeak klandestinitatean eman ditu. 60ko hamarkadan ETA erakundean ibili zen, eta horretaz gain Liga Comunista Revolucionaria talde armatuanen buru ere izan zen. LKIKo sortzailetariko bat, IV. Internazionalean ere aritu zen, Euskal Herriko ordezkarri gisa, eta hainbat liburu ere idatzi ditu. Bizi-pen ugari dituen gizonak Iker Barandiaranekin berba saioa izango du eta gertuagotik ezagutzen aukera eskainiko digute.



JOXE IRIARTE GOIENKARIAKO egindako argazkian.

IKER BARANDIARAN

'ERREPORTAJEA' > ASTELEHENEAN, 21:47

Eskualdeko ospitaleko larrialdi zerbitzuak ezagutu ahalko dituzue

GOIENKARIA > ARRASATE

Eskualdeko ospitaleko gaixoen segurtasuna eta etengabeko arreta, zerbitzuen informatizazio aurreratua eta larrialdi zerbitzuetara iristen den gaixoaren larritasun egoera zientifikoki baloratzen duen triaje

sistema direla eta, Osakidetzak Arrasateko ospitalea aukeratu du eredu gisa, Euskalitfundazioa Gasteizen egiten ari den Europako kalitatearen astean parte hartzeko. Aipatutakoa aitzakia hartuta, Julen Iriondo ospitaleko larrialdi zerbitzuak

aukeratu ditu hurrengo erreportajea egiteko. Hala, gaixoak era sistematikoan, larritasunaren arabera sailkatzen dituen triaje sistema zuzenean ezagutzen aukera eskainiko zaizue Goiena Telebistan.

Larrialdi zerbitzuek barrutik nola funtzionatzen duten ere ikusi ahalko duzue eta horretaz guztiaz gain ospitaleak dituen errekursoak eta balibideak ere ezagutuko dituzue. Horretarako, bertako mediku eta langileekin egongo da Julen Iriondo, zuenzuzenean sistemaren berri eman dezaten. Astelehenean, 21:47an.

tele begi

Edorta Arana > www.goienna.net/blogak/hamaika

Sacatan sacatum

Lehenago ere irratian entzun izan dudan Asier Arrieta ikusten dut orain *Ordu txikitán* saioak publizitateari eskaintzen dion tartean. Aberasgarria da iragarkien atzealdean begiratu ahal izateko klabe batzuk edukitzea, horien artean nola eginak dauden, nortzuei zuzenduak diren... Harritzeko da telebistako *spotei* umeek noraino errepasatzen dieten ikustea.

Hegaluze marka batek famatu egin duen singlearen letra ulertzina behintzat ikasia dute programa horretan ageri diren ume guztiek. Niri baino gehiago gustatuko ei zaizkie iragarki horretan ageri direnen aurpegi serioak, ingurune gris eta inpertsonala eta produktuarekin inongo loturarikez duen estética.

Melodia gainetik kendu ezinean nembilela, beste zerbait etorri zitzaidan burura. Carod-Rovira Jose Luis deitu zuten haien tankerakoek ikasia izango ote dute *sacatan sacatum tan tan que sumunbe que sumunbe* estribilloa? Ala, askotan euskararekin gertatzen den bezala, nerbioak galdu eta *en español, en español*, mentalki bida ere, oihukatzen hasita egongo ziren honezkero?

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Marino Lejarreta *Ilunpean* saioan, *Danbaka.cometa Kantari* saioetako musika kontuak, hirugarren adinekoen gainekoak *Zaharrak Berri* saioan eta beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik eguzteneera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albisteak
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberríak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoak
Zozketak
Zorion agurra
(parte hartzeko:
943 71 17 31 irratia@goienna.com)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarraren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

GOITBko programazioa

EGUBAKOITZA, 30

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Animalia. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Erreportajea. 18:45 Albisteak. 19:15 Ikuksira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gertutik. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 1

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikuksira. 11:30 ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Gertutik. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Erreportajea. 14:00 Berbaire. 15:00 Kantari. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hitz bitan. 19:30 Klip @. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Jentilen etorrera. 21:00 Berbaire. . 22:00 Erreportajea. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 Jazmina. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 2

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kantari. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Berbaire. 13:00 ikusten. 13:30 Tolosako abesbatzak. 14:00 Jentilen etorrera. 15:00 Musikantoi. 15:30 Erreportajea. 14:00 Ilunpean. 16:30 Marrazki bizidunak. 19:00 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportajea. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:00 Gertutik. 23:00 Teknopolis. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 3

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea-Ttipi TTapa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Berbaire. 16:15 Berbaire. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Hitz bitan. 18:15 ikusten. 18:45 Berriak. 19:15 Gertutik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 4

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15 Gertutik. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klip. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Animalia. 22:45 Berriak. 23:15 Ikuksira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztenea, 5

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze beroia. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animalia. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. . 20:45 Berriak. 21:15 ikusten. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Zu kazetari. 22:15 Ur eta lur. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 6

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikuksira. 11:30 ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Gertutik. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Erreportajea. 14:00 Berbaire. 15:00 Kantari. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hitz bitan. 19:30 Klip @. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Jentilen etorrera. 21:00 Berbaire. . 22:00 Erreportajea. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 Jazmina. 00:00 Emisio amaiera.



**EZAGUTU ZURE
ALDERIK FRESKOENA**
[eros ezazu zure Udal Merkatuan]

100€-ko 50 opariren
zozketan parte hartzeko
www.fresko-freskue.com



aurrera doan herria

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

ILAIA

Ile apaindegia • Estetika



IGANDEAN INAUGURAZIOA

**ABENDUAK 4an,
ASTEARTEAN LANEAN**

Kalegoi 20 behe

ANTZUOLA

Tel.: 943 76 63 33

Azaroak 30 abenduak 5

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguzteneko egurdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



BERGARA

> WASP taldeak kontzertua egingo du Jam aretoan abenduaren 6an, 20:30ean

Dominator World Tour delakoaren barruan Bergaran geldialdia egingo du WASP taldeak. Disko berria aurkezteria etorriko dira, *Dominator* izeneko lana, hain justu ere. Hamahirugarren lana da hori eta abenduan kaleratuko dute.

Musika



ARRASATE

> 'El dúo de la africana' zarzuelaren beste bi emanaldi aste bukaera

Arrasateko Izaskun Murgia elkarteko lirikoak zarzuela berria prestatu du. Aurreko asteburuan estreinatu zuten eta oraingoan beste bi emanaldi egingo dituzte: gaur, egubakoitza, 20:00etan, eta bihar, zapatua, 19:30ean.

Bertsolaritza



GASTEIZ

> Bi debagoiendar bihar jokatuko den Bertxoko sarketaren finalean

Jokin Labaien arrasatearra eta Manex Agirre aramaioarra beste lau bertsolarirekin batera arituko dira nor baino nor gehiago bihar, zapatua, Bertxoko sarketako finalean. Errexala elkartean izango da hori, 22:30ean.

Musika

OÑATI

> The Warlocks taldearen kontzertua

Psikodeliaren maisuek *Heavy deavy skull lover* izeneko laugarren lana aurkeztuko dute Oñatin egingo duten saioan. Gaztemaniak 2007ren barruan dago kontzertua. Bat baino gehiago aho zabalik geratuko da Los Angelesko taldeak egiten duen musikarekin.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, gazteleukan,

ARRASATE

> The Restarts britainiarrek kontzertua egingo dute

Londresko The Restarts taldearekin batera, kontzertu berean, Trayuka eta Akrata taldeek jardungo dute.

Gaur, egubakoitza, 22:00etan, 3.60 aretoan.

ATXONDO

> Golpe de Estado oñatiarrek kontzertua egingo dute

Infernuko Panpinak eta Artobixarra taldeekin batera egingo dute emanaldia.

Gaur, egubakoitza, 22:00etan, gaztetxeen.

ARRASATE

> The Zucchini's taldeak kontzertua egingo du

Gure Leku tabernan egingo du taldeak saioa.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

BERGARA

> Andoingo Alberto Agirre abesbatzak saioa egingo du

Bergarako Aritzeta abesbatzak Andoainen egindako kontzertuaren trukea da emanaldi hori.

Bihar, zapatua, 19:45ean, Santa Marina parrokiian.

BERGARA

> Disko jartzaleek saioa egingo dute Go-Jamen eta Jamen

Pablo Akaros eta Haitz diskor jartzaleak arituko dira bihar, zapatua, 23:00etan, Go-Jamen. Eguaztenean, berriz, Net 24, AlexUnder eta Damian Schwartzek jardungo dute 00:00etan, Jamen.

BERGARA

> Disko jartzaleek saioa egingo dute Ziripot tabernan

Ibai eta Papi diskor jartzaleek jardungo dute.

Bihar, zapatua, 23:00etan, Ziripot tabernan.

BERGARA

> Gasteizko bi taldek kontzertua egingo dute gaztetxeen

Exhale eta Eorann taldeek egingo dute gaztetxeko emanaldi hori.

Bihar, zapatua, 22:30ean.

ARRASATE

> Disko jartzaleek saioa egingo dute 3.60 aretoan

Lalas diskor jartzaleak jardungo du.

Bihar, zapatua, 04:00etan.

BERGARA

> Apocalyptic taldeak kontzertua egingo du

Biolontxelorik heavyenak entzuteko aukera izango da Jam aretoan. Helsinkiko taldeak *Worlds Collide* azkeneko lana aurkeztuko du.

Bihar, zapatua, 21:00etan.

Antzerkia

ESKORIATZA

> 'La gota gorda' delako antzez-lana Txalo antzerki taldearekin

Iker Galartza eta Joseba Usabiaga dira antzezlaneko bi aktoreak.

PROPOSAMENA



DEBAGOIENA

> Euskararen Egunerako ekitaldi ugari antolatu dituzte

Abenduaren 3an, astelehena, Euskararen Eguna izango da. Horren harira, euskalgintzan diharduten ibarreko taldeek eguna ospatzeko eta euskararen normalizazioa aldarrikatzeko askotariko ekitaldiak antolatu dituzte. Ekitaldiok bihar, zapatua, eta astelehenean egingo dituzte, herriaren arabera. Arrasaten, esaterako, graffiti erakustaldia egingo dute eta gaztaina erreak emango dituzte bihar Herriko Plazan, 17:00etan.

ELGETA

> Leo Bassi aktore ezagunak emanaldi egingo du

Iaz izan zen lehenengoz Bassi Elgetan eta aurten errepikatu egingo du. Oraingoan *Instintos ocultos* delako ikuskizunarekin dator.

Bihar, zapatua, 22:30ean, Espaloian.

Hitzaldiak

ARETXABAleta

> 'Begiak bizitzaren leihoa' delako hitzaldia

Basotxo erretiratuen elkarrekin antolatu du hitzaldia eta Manuel Solorzanok egingo du.

Abenduaren 4an, martitzena, 17:30ean, Basotxo erretiratuen elkartean.

ANTZUOLA

> AHTren gaineko berbaladia AHT Gelditu! Elkarlana taldekoekin

Hizlariak izango dira Mila Elortza eta Hilario Manzanedo eta berbaldiaren izenburua da *AHTren gaineko informazioa: trazadura eta eraginak*.

Abenduaren 4an, martitzena, 19:30ean, Olaran etxeen.

LEINTZ GATZAGA

> Bularreko minbiziren gaineko hitzaldia

Katxalin elkarteko kideek egingo dute berba eta nahi duten guztiendako irekia da.

Abenduaren 11n, martitzena, 18:00etan, kultura etxeen.

Erakusketak

BERGARA

> Margo erakusketa berria Nahikari tabernan

Juan Gonzalez de la Cuestaren margo erakusketa ikusgai egongo da aste bukaeratik aurrera.

Abendu bukaera arte.

ELGETA

> Idoia Azkarate margolariaren erakusketa

Bergarako marrazkilariak astelehenean irekiko du erakusketa.

Abenduaren 21era arte, Espaloia kafe Antzokian.

ESKORIATZA

> Euskal jostailuen erakusketa egingo dute

Erakusketaren helburua da gurasoei eta haurrei euskal jostailuak ezagutzera ematea.

Abenduaren 3tik 5era, 17:00-20:00 ordutegian, kultura etxeen.

ESKORIATZA

> 'Eskoriatzako mendi buzoia' iruditan'

Horixe da Juan Luis Zubizarretaren argazki erakusketaren izenburua.

Abenduan barrena egongo da ikusgai, Inkuru tabernan.

BERGARA

> **Filatelia eta musika erakusketako batean batuta**

Batetik, Bergarako Filatelia Elkarteak zigiluak erakutsiko ditu, eta, bestetik, Bergarako Udal Musika Bandak argazkiak erakutsiko ditu.

Abenduaren 16ra arte, Aroztegin.

ARRASATE

> **'Azala-azalaren kontra' delako erakusketa**

Gaztesareko Sextabaida gunetik antolatutako erakusketa da; Euskal Herriko gazteen eta sexualitatearen inguruko eztabaidearen harira egindako argazki erakusketa.

Hilaren 30era arte, Kulturaten.

BERGARA

> **Nieves Medela arrasatearren lanak Nahikari tabernan**

Arrasateko margolariak olio-lanak zintzilikatuko ditu Nahikariko paretetan.

Azaro bukaerara arte.

Lehiaketak

BERGARA

> **Amodiozko gutunen 16. lehiaketa deitu du Jardunek**

Ohikoa den moduan, lan guztiak jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatzia izan behar dute. Lehiaketan, 1993an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN A-4 orrian, eskuz zein ordenagailuz idatzita aurkezta ahal izango dira. Luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Bestalde, SMS bidezko mezuen lehiaketa ere deitu dute. Argibide gehiagorako deitu Jardun elkarera (943 76 36 61) edo www.jardin.net webgunera ere jo daiteke. Beti bezala, sari banaketa ekitaldia San Valentin egunean, otsailaren 14an egingo dute, kultura etxeen.

Gutunak aurkezko mugaeguna da urtarrilaren 6a.

Ikastaroak

ARETXABAleta

> **Kontakt-inprobazio ikastaro antolatu du Jaiki elkarteak**

Abenduaren 15ean eta 16an izango da ikastaroa. Trinkoa izango da eta hastapen eta sakontze mailak emango dituzte. Olaff Kehlerrek emango ditu eskolak eta izango dira kirol etxeko gimnasioan. Prezioa da 30 euro langileendako eta 25, gainerakoendako.

Izena eman behar da Aretxabaletako Azkena tabernan hilaren 12a baino lehen. 10 euro aurreratu behar dira.

BERGARA

> **Erakusleho lehiaketa deitu du Udalak, Gabonen atarian**

Herriko denda guztiak hartuko dira aintzat, aurrez izena eman barik. Erakuslehoek egon beharko dute.

prestatuta abenduaren 12tik urtarrilaren 7ra bitartean.

Erabakia abenduaren 19an emango dute aditzera.

BERGARA

> **Umeen jolasak, kantuak eta ipuinak lantzeko ikastaroa**

Umeendako euskal jolasak eta kantuak eta euskarazko ipuin kontaketa lantzeko saioak dira. Eskarien arabera euskaraz edo gaztelaniaz emango dira eskolak. Izene-matea da abenduaren 14ra arte.

Izenematea da Udaleko Euskara Zerbitzuan: 943 77 91 31.

Ospakizunak

ARRASATE

> **Gaztaina jana egingo dute Arrasateko Herri Eskolakoek**

Arrasateko Herri Eskolako Guraso elkartek antolatu du eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Gaur, egubakoitza, 17:00etan, Herriko Plazan.

Bestelakoak

ESKORIATZA

> **Gabonetako marrazkia egiteko hitzordua egin dute**

Egin zure Gabonetako marrazkia izenburuarekin marrazkiok egiteko hitzordua egin dute. 4 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoendako deialdia da. Gero, txokolate jana ere egongo da.

Bihar, zapatua, 16:30ean. Marrazkiak frontoian margotuko dituzte. Txokolatea, berriz, plazan banatuko dute.

ELGETA

> **Bigarren eskuko azokarako materiala batzen dihardute**

Udalak bigarren eskuko gauzen azoka antolatu du abenduaren 15erako. Hala, etxean ahaztuta ditugun liburu, disko eta jostailuak udaletxera eramateko dei egin dute, nahiz eta bestelakoak ere jasoko dituzten. Udaletxeko teknikariek materiala sailkatu eta gauza bakoitzari prezioa jarriko diote. Azoka egunean batutako dirua Mexikoko Ciudad Juarezko emakume elkarrearen dako izango da.

Abenduaren 13ra arte batuko dute materiala.

OÑATI

> **Arrikutz kobazuloa ezagutzeko bisitaldiak**

Azaroarekin batera ordutegi berria du Arrikutz kobak. Hain justu, otsailera bitartean, 10:00-14:00 eta 15:00-17:00 ordutegian sartu ahal izango da kobazulo barrura. Prezioari dagokionez, helduek 8 euro ordaindu beharko dituzte; erretiratu eta 5 eta 10 urte bitarteko haurrek, 6 euro; eta 0 eta 4 urte bitartekoek, berriz, doan dute. Taldeei dagokienez, 6 euro ordainduko dute, gutxienez 15 lagunekoak baldin badira.

Aurrez txanda hartzeko deitu 943 08 20 00 edo 943 25 10 24 zenbakira.



Michael Clayton **

Zuzendaria: Tony Gilroy.

Aktoreak: George Clooney, Tilda Swinton, Tom Wilkinson.

AEB. 2007.

119 min.

George Clooney, Steven Soderbergh, Sydney Pollack eta Antony Minghella zinema munduan pisu handia duten izenak dira eta guztiak *Michael Clayton* proiektauren barnean daude. Filmak zerikusi handia du 70eko hamarkadan egiten ziren *thriller*-ekin. Halako filmetan pertsonaia bakar bat ahalegintzen zen korporazio handien edo gobernuen azpi-jokoak desegiten. Argumentuak nahiko konplexuak izaten ziren, datu eta pertsonaia asko agertzen zirelako. Aipatutako ezaugarriak *Michael Clayton*-en agertzen dira, baina tamalez Tony Gilroyren filmak ez du dueila 30-40 urte egiten ziren lanen sendotasunik erakusten.

Michael Clayton filmak goian aipatutako eskema mantentzen du, konplexu da, baino nahasia. Filmeari denborak aurrera eta atzerra egiten du, eta *flash-back* erabilera horri ez diot zentzu handirik aurkitzen; istorio nagusian beste istorio txiki batzuk sortzen dira: George Clooneyk bere semearekin edo anaiekin dituen harremanak, esaterako. Pentsatzen dugu istorio horiek garrantzia izango dutela istorio nagusian, baina azkenean hor erdian geratzen dira pisu handirik hartzarik. Halako osagaietan ez da zaila momentu batzuetan istorioaren haria galtzea, baina ez konplexuak delako, baizik eta Tony Gilroyk modu nahasian kontu duelako.

Michael Clayton nahiko film arrunta da, eta ez du ezer berririk kontatzen. Persoanai bat korporazio handien kontra aritzen ikustea gustuko dutenak edo George Clooney aktorea gustuko duten ikusleak, agian, pozik aterako dira zinema areto-tik.

Gainerakoak, berriz, nahiko hotz aterako dira. Niri ere halaxe gertatu zait.

Antonio Zabala

Zinema

ARAMAIO

KULTURA ETXEA

Pipi Galtzaluze

Domeka: 17:00.

BERGARA

AGORROSIN

Pequeña Miss Sunshine

Zapatua eta domeka: 16:30ean eta 19:30.

ELGETA

ESPALOIA

Babe, txerritxo ausarta

Domeka: 17:30.

YELMO

CINEPLEX-GORBEIA

Bee Movie

12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Hitman

12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Diario de una niñera

12:15, 16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:40.

Michael Clayton

18:00, 20:15, 22:30.

Beowulf

18:00, 20:15, 22:30.

Encantada, la historia de Giselle

18:00, 20:15, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Canciones de amor en Lolita's Club

17:30, 20:00, 22:30.

El orfanato

17:30, 22:30.

La camarera

20:00.

Leones, por corderos

17:30, 22:30.

Luz de domingo

20:00.

La torre de Suso

17:30, 20:00, 22:30.

Once

18:00, 20:15, 22:30.

Mi hermano es hijo unico

18:00, 20:15, 22:30.

Ratatouille

12:15, 15:40, 17:55.

Michael Clayton

20:20, 22:30, 00:40.

Los seis signos de la luz

12:15, 16:45.

Movida bajo el mar

12:15, 16:40.

Saw IV

AEB. 2007. Zuzendaria: Brad Bird.

Marrazki bizidunak.

110 min.

Remy suga mokofina da, eta ez da

konformatzen zaborrizietako

jakiekin. Parisko jatetxe onenetako

baten chefa izan nahi du.

Bestalde, Howard osaba azalduko da

eta legea hausteria behartuko ditu.

Horrek eragina izango du haiengan.

El caso Wells ****

AEB. 2007. Zuzendaria: Andrew Lau.

Aktoreak: Richard Gere,

Michelle Monaghan.

114 min.

Patric Kenzie eta Angie Gennaro

detectiveak bahlitzako lau urteko

haurrentzako asmoz. Haren semea

fantasiasko jokoetan sartuko da.

Baina Laura ez da erosu sentitu,

zerbaitek bere familia mehatxatzen

duela pentatuko baitu.

Las trece rosas *

Espania, 2007. Zuzendaria: Emilio

Ceciaga, ehun urteko ibilbidea

SANTAMASETAN Arrasateko Ceciaga dendak menda beteko du datorren abenduaren 22an, Santamasetan

MIRIAN BITERI > ARRASATE
 Santamas egunean, abenduaren 22an, ehun urte beteko ditu Arrasateko Ceciaga dendak. Gipuzkoako merkatarien elkarrean 2005. urtean eman zion mende bat bete izanaren ziurtagiria. Bada, oker zebilen: "Joan ginen esatera data txarto zegoela, baina ziurtagiria egina zegoela-eta eramateko esan ziguten. Dendan daukagu jarrita", jakinarazi du Rosarito Zeziagak, Loli ahizpa ondoan duela.

Saltokia hainbeste urtez zabalik egoteko arrazoia "lan asko egitea eta konfiantza guztia eduki-tzea" dela azaldu dute ahizpek. Jendea ezagutzeak ere asko laguntzen duela esan dute. "Edonork pasa da noizbait Ceciagatik. Gainera, inguruko jende asko etortzen da gurera", adierazi du Lolik. Horren harira, batzuetan, txikitak egondako norbait sartzen dela gogoratu du Rosaritok.

Mende batean hiru belaunaldi ezberdin pasa dira dendatik. Haren aitaik zabaldu zuen eta izeben ondoren, Rosaritok eta

Lolik hartu zuten dendaren ardua. Lehenengoak urrezko ezteiak egin ditu dagoeneko dendan eta bigarrenak, berriz, ia 40 urte. "Gaztetatik gaude hemen. Gogoratzen naiz lagunak idazkariak zirela eta aste bukaeretan jai zute-la. Guk sekula ez dugu aste bukaera bakar bat ere izan", diote.

DENDA ITXIKO DUTE
 Nekatuta daude eta "ondorengoeak dendarekin jarraitu gura ez dutenez", Ceciaga dendako atea laster itxiko direla jakinarazi dute. "Udaberriko arropa erosita dugu eta, beraz, jarraituko dugu, baina askoz jota urtebete gehiago egongo gara. Pena ematen digu, baina ez dago besterik", dio Lolik.

Batera erretiratuko dira. "Personak batendako lan handiegia dago hemen", adierazi du Lolik. Aspertzak astirik ez dute izango. Rosaritok ordenagailua erabilten ikasiko du. Loli, berriz, amama izan da orain dela gutxi eta ilobarekin egoteko aprobaetxatuko du. Horrez gain, "aspertzea zer den jakin gura dut", aipatu du.

URREZKO EZTEIAK Rosarito Zeziagak mende erdia darama dendako salmahaieren beste aldean

AURKI ITXIKO DUTE Dendako atea datorren urtean itxiko dituzte, nekatuta daude-eta Rosarito eta Loli Zeziaga



DENETARIK Rosarito eta Loli Zeziagak denetarik dute dendan. Irudian, neguko osagarriak esku artean dituztela.

M.B.

ahobero

"Zure etxean paperik gabeko etorkinek egin dute lan. Ez da horrela?"

Rudy Giuliani > Politikoa

AEBetan hauteskunde kanpainan murgilduta daude. Etorkinen gainean hitz egin dute hautagaiak aste honetan. New Yorkeko alkate ohi Rudy Giuliani etorkinen sarrera murriztuko duela esan du eta Mitt Romney hautagaiari leporatu dio etxearen ilegalak har-tea. Etorkinek ez al dute lan eta bizitzak duina izateko esku biderik, ala?

iturri onetik

Reala, Athletic, Eibar eta Debagoineneko neskak lehiatuko dira futbol txapelketan

Emakumeen lauko txapelketa jokatu da aurten, bigarrenez. Reala, Athletic, Eibar eta Debagoineneko selekzioen norgehiagokoa ikusi ahal izango dute zaleek. Esan bezala, bigarren aldia da horrelako txapelketa bat egiten dena. Iaz hiru talde lehiatu ziren: Reala, Eibar eta Debagoineneko neskak osatutakoak, hain zuen ere. Aurtzen, berriz, Athleticekoak ere sartuko dira norgehiagokan.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

25 irratia urte

Esanaren faltan ez zen inor jakin gabe geratuko: Euskadi Irratiak 25 urte bete ditu kanpai buelta artean. Eta nik poza hartu dut, oso gogoan baitut EITBren lehen alea sortu aurreko basamortua. Ez ditut gutxietsiko Loiola, Segura eta beste irratia. Meritu handiko lana zen haiena, baina irratia publikoak beste anbizio bat ekarri zuen, agintearren bulkada lagunarrria.

25 urte geroago, estimu handian dute Euskadi Irratia. Izan ditu gorabeherak, baina gaur oso maila onean dago. Egunero entzuten dudan irratia bakarra da eta aski zait behar beste informazio jasotzeko. Hori asko da euskaraz bizi nahi duenarentzat. Baina, gainera, zinez uste dut EITB talde osoan Euskadi Irratia dela produkturik duinena eta lehiakorrena. Zorioneko gu.

ai, ene!



Ur azpiko lehenengo jatetxea zabaldu dute

Itha deitzen da ur azpian dagoen lehenengo jatetxea. Maldiva uharteetan dagoen Hilton Resort & Spa hotelarena da.

<http://tinyurl.com/36lzf6f>

ARKAUZ
GRUPO
ARETXABAleta 1950-2007 ARRASATE

ARKAUZ
ELECTRODOMÉSTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAleta

ETXE MUEBLES
ALTAZARIA
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAleta

ARKAUZ
MUEBLES
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAleta

expert banatzalea ofiziala

Etxetresna elektrikoekin ez zarela moldatzen?
Har ezazu momentu!
Arkauz etxearen guztiz maiteminduko zara.

Arkauz zure etxea da.